

Goienkaria

2006ko otsailaren 17a > Egubakoitza > VI. urtea > 232. zenbakia > Doan banatzekoak

www.goiena.net

"Mahomaren karikaturak argitaratzea errespetu falta izan dela uste dut"

Leire Atxega
> 09



G2a

Gerrako agiriak
gordetzen dira
Bergaran > 43

DEBAGOIENA
Saharar Errepublikaren 30.
urteurreneneko jaia Bergaran > 04

ARRASATE
Elkarlanean fundazioak liburu
denda zabalduko du > 20

KIROLA
Aloña Mendiko futbolari
boliviarrarekin berriketan > 40

DEBAGOIENA > GARRAIOAK

2010erako tranbia martxan

Udalek diote 2007ko
martxoan hasiko
dituztela lehen
faseko lanak > 05

ARETXABAleta > UDALA

Inoizko aurrekonturik handiena onartu du Udalak

Iazko aurrekontuarekin alde-
ratuta %14,62 hazi da aurenten-
go Aretxabaletako udal aurre-
kontua. Izan ere, ezohiko diru
sarrerak izan ditu aurten Uda-
lak, eta diru hori inbertsioe-
tarako erabiltza erabaki du
gobernu taldeak. Oraingo
astean onartu dute, EAJ-EA,
Aralar eta EBren aldeko boto-
ekin. > 31



GARAIA Udaletxeko bulegoa utzi eta Garaia egitasmoan murgilduko da. "Arlo profesionalak agindu du erabakia hartzerakoan", dio Oñatiako alkateak.

ENEKO AZKARATE

ARRASATE > INGURUMENA

Etxeko oliao batuko dute potetan

Erabilitako oliao
batzeko ontziak
banatuko dituzte > 18



GOIENKARIA

OÑATI > ALKATE ALDAKETA

Andoni Gartziaaren azken egunak alkate

ALKATE BERRIA Lurdes Idoiaga
izendatuko dute alkate datorren
egueneko osoko bilkuran

ABERASGARRIA Alkatetzako
esperientzia, 33 hilabetekoa, "oso
aberasgarria" izan dela dio Gartzia

AURKIBIDEA

Debagoiena > 02-07
Elkarritzeta > 08-09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 40-41
Kultura > 45
Sailkatuak > 46
Eskelak > 47
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Komunikazioa > 51
Telebista-Irratia > 52
Non-zer > 54-55

CLINICA DENTAL

BERGARA

Inplanteak
Odontologia orokorra
Protesiak • Periodontzia
Hortz-estetika




ASEGURU EZBERDINAK DITU

Bidekurutzeta 36 behe. Bergara. 943 76 05 77

PADI

HAURREN HORTZAK
ZAINTEKO
PROGRAMA

Škoda Octavia Combi Berria. 20.040 €-tik AURRERA



*Plan Prever banca.

Udalaitz

Gipuzkoako etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



GUTXIENGOAK > ZEINUEN HIZKUNTZA OFIZIAL EGITEA AZTERTZEN ARI DIRA MADRILEN

Zeinuen hizkuntza txikiak arazo handiei aurre egiten dihardu

OFIZIALTEA eta ikasteko laguntzak ematea proposatzen duen proiektu bat lantzen hasi ziren urtarrilean Espainiako Gorteak

ARAZO GUZTIAK konpondu ez, baina gorren eskubideak eta kultura onartze aldera aurrerapausoa litzatekeela diote adituek



AGURRA Bergarako Arans/Gi zentroko erabiltzaile talde bat, Nikaraguako lagun batzuk zeinuen

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA Debagoienean, 450 bat lagun gor sakonak dira, eta beste neurri batenko gortasuna duten jende gehiago dago. Horietako askok zeinuen hizkuntza erabiltzen dute komunikatzeko. Hala, gor horiek ez dira bakarrik gutxitu sun bat duten taldea; hizkuntza eta, horrekin, kultura propria duten taldea dira. Are gehiago: hizkuntza gutxitua duten taldea dira. Zeinuen hizkuntzaren egoerak badu euskararenarekin antzekotasunik, baina hark ez du inongo errekonozimendu ofizialik. Hori aldatu nahi da urtarrilean Espainiako Gorteetan lantzen hasi ziren Lege Proposamen batekin: Estatuko zeinuen hizkuntza errekonozitza eta gorrei ahoz komunikatzeko laguntzak ematea proposatzen da. Proiektu aurrekaria da Europa osoan.

Proposamena onartzen bada, Estatuan erabiltzen den zeinuen hizkuntza ofizial izango da; ikasle gorrek laguntzak izango dituzte hizkuntza hori ikasteko; itzultzaleak heztea bultzatuko du;

eta hizkuntza normalizatzeko patronatua sortuko da.

GABEZIA DUTENEN ESKUBIDEA Debagoienean, Arans/Gi elkar-teak zentro bat du, Bergaran, gorrei eta euren familiei zerbi-

tza emateko. 70eko hamarkada ezkerro dihardu horretan. Hango zuzendariak, Iñaki Madinabeitia bergararrak, hauxe dio ofizialtzeaz: "Gizarteak askotarikoa dela errekonozituko litzateke, gabezia bat dutenen eskubideak onar-

tza, eta hizkuntza horren atzean dagoen kultura eta nortasuna aintzat hartzea". Hala ere, honakoa ohartarazten du: "Ofizialdu egingo da, bai, baina luze joko du. Bestalde, horrek ez ditu arazo guztiak konponduko. Gor

askok ilusio handia ipintzen dute horrelako neurriean, uste dute horrela jende gehiagok ikasiko duela, itzultzale asko egongo direla... Eta ez da horrela. Ikus-tea besterik ez dago euskararekin zer gertatzen den, errekonozimenduaren aurrean, eta horrela jende gehiagok ikasiko duela, itzultzale asko egongo direla... Eta ez da horrela. Ikus-tea besterik ez dago euskararekin zer gertatzen den, errekonozimenduaren aurrean,

Garaiz ez hartutako gaitzarengatik, hiru urteko gorreria

Anje Loiti Exposito elgetarraren kasua salbuespina da: 5 urte ditu, eta 2 zituenean adoptatu zuten Bulgariatik. Entzuteko arazoak zituela konturatu ziren gurasoak, eta pediatrak esan zien amigdala hipertrofia zuela, ondo entzutea eta arnas hartzea galarazten zion arazo. Bulgarian ez zutelako tratatu, Anjeri urtebeteko atzerapena ekarri dio behin-behineko gortasunak, baina ebakuntzak egin dizkiote eta asko hobetu da.



HOBETUZ Anje orain ari da bere gaixotasunaz osatzen.

Koklea inplantea, kasu batzu tarako laguntza ona

Gero eta laguntza tekniko gehiago dute gorrek. Horietako bat koklea inplantea da. Belarri kanpoaldean aparailua ipintzen diote pertsonari, eta buru barruko inplantearekin osatzen da hori. Gortasun mota batzuk tratatzeko erabiltzen da, neurri bateko entzumen artifiziala sortuz. Argibide gehiago dago www.implantecolare.org gunean. Laguntza horiek gorraren bizi-kalitatea hobetzen dute, betiere gorra jabe izanda ez dutela entzule oso bihurtuko.

Chevrolet harrigarriagoa da. Km 0 direla ez baduzu sinesten, begiratu prezioa.



Giauto 902 345 225

Otaola Etorbidea, 27 · EIBAR · Tel.: 943 70 08 41
Karobi Industrialdea z/g · OLABERRIA · Tel. 943 88 51 50

Kontsumo mistoa (l/100). CO₂ emisioak (g/km). Nubira gama: 7.1.-8.8/178-210 Lacetti gama: 7.1-8.8/171-210



Lacetti 1.4 SE
Km.0 - 11.700 €

Nubira 1.6 SE
Km.0 - 11.700 €



www.chevrolet.es

clientes@giauto.es

Chevrolet gehiago da.



hizkuntzaren bidez agurtzen.

zimendu bat izan arren", da bere konparaketa.

Madinabeitiak gaineratzen du zeinuen hizkuntzak zaitasun handiak izan dituela bizi irauteko, eta gero eta indar handiagoa hartu duela mundu osoko gorren elkarteeik lan handia egin dute-lako. Arans/Gira joaten diren guraso guztiei zeinuen hizkuntza ikastea gomendatzen die, horrek bakarrik ematen diolako gorra-ri mezuaren gainean erabateko ziurtsuna: nahiz eta gehienek ezpainak irakurri edo ahozko hizkuntza batekin moldatzeko gai izan (bakarra ikasten dute gehienek), bide horiekin gaizkiulertuak sarri gertatuko dira.

Hala ere, familia guztiak ez dira zeinuen hizkuntzaren aldekoak. Hala, senide gor bat duen emakume debagoiendar batek dioenez, "ezpainak irakurtzen dakite gehienek, eta ondo moldatzen dira; zeinuen hizkuntzak bazterketa handiagoa dakarkie, nire iritziz". Azkenean, hizkuntza hori ikastea familia bakoitzaren aukera izaten da.

"EGOERA EGUNERO DA LATZA"

Aukera pertsonalak alde batera, zeinuen hizkuntza asko zabalduta, eta aurrerapausoak egin direla diosku Iñaki Madinabeitiak, batez ere ikastetxeetan: gero eta irakasle gehiago joaten dira ikas-

taroak egitera, irakasle eskolekin ere lan handiagoa egiten da...

Eskolaz gain, gorrek beste arlo askotan behar izaten dituzte zerbitzuak edo laguntza: "Alderdi guztietan eragiten dio: hezkuntzan, gizarteratzean, kale-

an, lanean, bikotean... Horrek hezkuntza propioa eskatzen du, baina baita gorra bera jabetzea bere egoeraz ere. Bere egoera eta ingurukoena egunero da latza, eta merezi du horren inguruan lan egitea, baina jabetuta beti egon-

go dela gutxitasun hori", dio Bergarako Arans/Giko zuzendaria.

Egoera hori honela azaltzen du irakaslek: "Entzumenez iristen zaigun informazioa zehatza da; ikusmenetik jasotzen dugu, ez. Gorrari informazioa espresuki eman behar zaio, informazio hori kalean edo telebistan ez duelako jasoko". Gaineratzen duenez, uste faltu asko dago: adibidez, zentzumen baten falta beste zentzumenek bete dezakete-tela.

ESTATUAN HIZKUNTZA BAKARRA

Arans/Gik zeinuen hizkuntza-ren ikastaroak antolatzen ditu urte osoan, eta denetariko jendea joaten da. Gero eta interes handiagoa badago ere, oraindik zeinuen hizkuntzaren gaineko infor-mazio falta dago.

Esaterako, Lege Proposamenak dio "Espainian eta Katalu-nian" ofizialduko direla hizkuntzok, baina ez dira bi hizkuntza: Estatu osoan zeinuen hizkuntza bakarra dago, nahiz eta, euskara-rekin eta euskalkiek bezala, dialekto asko egon: hala, gorrek identifika dezakete nongoa den beste gor bat.

Hala ere, zeinuen hizkuntza ez da bat mundu osoan: orain azkeneko, 103 zenbatu dira. Kanadan, AEBtan eta Mexikon, adibi-dez, berbera erabiltzen dute.

Bestetik, zeinuen hizkuntza ez da mimoa: hala balitz, ez daki-tenek ere ulertuko lukete. Aitzitik, hizkuntza konplexua eta egi-turatura da: kontzeptu bakoitzak bere zeinua du, eta alfabeto bat dago. Era berean, gramatika bat dago: espazioak, erritmoak... esa-nahian eragiten dute.

Iñaki Madinabeitia > Bergarako Arans/Gi zentroko zuzendaria

"Gortasunaren ondorioak ez dira hain ondo ezagutzen"

L.K. > BERGARA

Arans/Girakundeak (www.aransgi.org) Bergaran duen zentroko arduraduna da Iñaki Madinabeitia.

Zelakoa da Arans/Giren zerbitzua?

Oso konpletoa da. Zazpi profesionalak egiten dugu lan gorrei eta ingurukoei arlo guztietan laguntzeko: eskolan, lantokian, lagunartean... Zerbitzu publiko bokazioa dugu.

Jendea sentsibilizatuta dago gai horrekin?

Bai, baina gortasunaren ondorio larriak ez dira hain ondo ezagutzen: komunikazioari eragiten dio, arlo guztietan. Hala ere, ezin gara kexatua: gorren eskubideen alde jende asko dabil lanean.

Zeinuen hizkuntzako ikastaro irekiak dituzue.

Bai. Oinarrizko ikastaroak 5 bat hilabetekoak dira, egi-ten oso erosoak. Horrekin gaia sozializatu nahi dugu, jendeak jakin dezala zer den zeinuen hizkuntza, eta horren atzean pertsona gor bat dagoela.

Zelan bete daiteke gorrek duten gabezia?

Gorraren arazo nagusia ulermen da. Entzuleok datu asko jasotzen dugu eta horiekin moldatzen gara munduan; pertsona gorra, ordea, oso datu gutxi jasotzen ditu eta, horiekin soilik, gaizkuleraketa okerreko ondorioak etor-tzen dira. Horregatik, ditugun komunikazio bide guztiak erabili behar ditugu eurekin: ikusmenetik ahal dugun dena adierazi, eta hortik aurrera jarraitu.



L.K.



LASA jatetxea

Guztioan eskura dagoen luxua

Ozaeta jauregia Tel.: 943 76 10 55 BERGARA





TINDOUF 200.000 familia bizi dira Tidouf-eko kanpamenduetan.

GOIENKARIA

BERGARA > SAHARAREKIN ELKARTASUNA

Bergaran ospatuko dute Saharar Errepublikaren 30. urteurrena

Otsailaren 25ean da jaialdia kirolegian, saharar herriaren autodeterminazio eskubidea eskatzeko

Euriteek 12 mila familia utzi dituzte aterperik eta janik gabe Tindouf-en, eta diru bilketa abiatu dute

OIHANA ELORTZA > BERGARA
Otsailaren 27an beteko dira 30 urte Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoak sortu zela, eta Bergaran egingo duten jaialdi handi batekin ospatuko dute urteurrena. Hilaren 25ean, zapatua, da jaialdia eta Labegaraietako kirolegian egingo dute, goizez eta arratsaldez. Helburua: Sahararen autodeterminazio eskubidea aldarrikatzea.

82 HERRIALDEREN BABESA
Fronte Polisarioak Sahararen eskubidea lortzearren egin du lan orain arte eta munduko 82 herrialderen babesea du dagoeneko. Debagoienean ere talde bat baino gehiago dago Sahara herriaren alde lanean. Arrasate-

ko Nubi elkartea, adibidez, Arrasaten bertan hasi zen lanean, baina dagoeneko Leintz ibarreko herriekin ere badihardu. Bergaran joan den urrian sortu zuten Sahararen aldeko taldea, Bubisher. Bai talde batek bai besteak hainbat kanpaina eta ekintza egiten dituzte urtero, dirua, janaria eta giza laguntza bidaltzeko saharar herriari.

UHOLDEEN KALTEAK
Azken egunotako euriteek kalte handiak eragin dituzte Tindouf-en; 12 mila familia aterperik eta jatekorik gabe gelditu dira, eta laguntza taldeak diru bilketa egiten ari dira hara bidaltzeko. Aaiun, Ausserd, Smara eta Otsailak 27 izan dira kanpamen-

du kaltetuenak. Guztira 38.000 pertsonari egin diete kalte uholdeek eta gehienek izarpean lo egin dute lehen egunetik. Larrial-dietarako gordetzen zituzten elikagaiak ere eraman egin zituen urak eta Tindouf-en ez dute botikarik ez antibiotikorik izurrite-ei aurre egiteko. Gaixotasunak zabalduko diren beldur dira giza laguntzarako taldeak, eta ahalik eta lasterren bidali gura dute euren dirulaguntza. Euskadiko Kutxan dute kontu korrontea: 30350012740120086016. Hurrengo zapatuan Bergaran egingo duten jaia ere aprobetxatuko dute diru bilketa egiteko.

25EAN LABEGARAIETAN
Urteurreneko jaialdia Labegaraietako kirolegian egingo dute otsailaren 25ean. Tailerrak, te dastatzea, henna, musika eta jaima bat egongo dira, besteak beste, 11:30etik aurrera. Ekitaldi politikoa, bazkaria eta musika kontzertua ere antolatu dituzte. Bazkariak 10 euro balio du eta izeana eman behar da aurretik telefono honetan: 670 41 76 07. Dirua kontu korronte honetan sartu behar da: 30350009130091113300.

Mendebaldean batzuk eta Tindouf-en beste batzuk

Spainiako soldaduek Mendebaldeko Sahara utzi zutenerako sartuta zeuden Marokokoak. 30 urte geroago, saharar herriak ez du oraindik burujabetzarki bere lurradean. Zatirik handiena Marokok okupatu du eta hango monarkiaren menpe bizi dira Mendebaldeko Saharako sahararrak. Beste 200.000 saharar Tindouf-eko kanpamenduetan bizi dira errefuxiatuta. Kanpamendeko batek Otsailak 27 eguna du.

O.E. > BERGARA
Tindouf-eko kanpamenduetan bizi dentxiora da Bubisher, eta zorte ona eta esperantza ekartzen ei ditu. Elsa Manso hasieratik da izen hori duen elkarteko presidente, urria ezkerro.

Ze behar ditu saharar herriak?
Uholdeek kalte handiak egin dituzte eta janaria, jaimak eta botikak behar dituzte orain. Orokorean, ordea, erreferendum da falta zaiena. Giza lagun-

tza ere jasotzen dute, baina euren egoera politikoa zuzendu behar dute.

Elkartasun nahikoak dute?

Baietz uste dut. Oso hurbileko herria da euskaldunondako, eta hemen, behintzat, elkartasun handia dagoela uste dut.

Zenbat zarete elkartean?

15 bat lagun. Orain arte janari bilketak eta bestelako ekitaldiak egin ditu-

gutxira orain, hilaren 25eko jaialdia presatzen arigara. Horren ondoren, udan umeak ekartzeko kanpainarekin hasiko gara; izan ere, Udala Bizi Bukean programan sartu da.

Nortzuk datoz jaialdira?

Euskal Herri mailako jaialdia izango da eta hainbat elkartetako ordezkariek eta ume sahararrek hartuko dute parte, besteak beste. Ia dena prest dugu dagoeneko.

> BERGARA
Iñigo Elkoro beste epaiketa baten epaituko dute

Iñigo Elkoro beste epaiketa baten epaitzea erabaki du 18/98 auziko epaimahaia. Iñigok hesteetako gaitza baten ondorioz sendatzeko bizpahiru hilabete behar dituelako hartu dute erabakia. Bestalde, zapatuko manifestaziorako dei egin du eskualdeko 18/98+ taldeak.

> DEBAGOIENA
Tortura desagertzeko eskatu dute herriean

Tortura desagertzeko eskatzeko kale agerraldiak egin zituzten astelehenean, Torturaren Aurkako Egunean, Aretxabaletan, Bergaran eta Oñatin. 19:00etan izan ziren kale agerraldiak. Bergaran, adibidez, hainbat lagun elkartu ziren plazan, torturaren aurka protestatzeko.

> OÑATI
Bizigune programa sinatu dute Udalak eta Jaurlaritzak

Herrian hutsik dauden etxebizitzak prezio babestuetan errentan emateko programa sinatu dute Jaurlaritzak, Oñatiko Udalak eta Suradesa enpresak. Azken datuen arabera, 200 bat etxe daude hutsik Oñatin. Horietako bost Bizigune programan sartuta daude dagoeneko.

> ESKORIATZA
Marixol Iparragirre gose greban dago joan den astea ezkero

Marixol Iparragirrek gose greba mugagabeari ekin zion duela 11 egun. Beste euskal presoekin elkar dezatela eskatzeko hasi du gose greba mugagabea. Marixol Iparragirre Draguignan-eko espetxeen dago. Espetxe bereko beste bi preso ere gose greba mugagabea daude.

> ARRASATE
170 milioi euroko irabaziekin itxi gura du urtea Lagun Arok

Joan den urtean baino %5,6 gehiago irabazi gura du Lagun Aro aseguru etxeak aurten, 2006an. Guztira, 170 milioi euro inguru. Urte honetarako duen beste helburu bat da %9 igotzea polizia kopurua. 2005ean 38.000 polizia berri egin zituzten, horietako asko Hego Euskal Herriko kanpo.

Elsa Manso > Bergarako Bubisher elkarteko presidente

"Giza laguntza badute; erreferendum da falta zaiena"

tza ere jasotzen dute, baina euren egoera politikoa zuzendu behar dute.

Elkartasun nahikoak dute?

Baietz uste dut. Oso hurbileko herria da euskaldunondako, eta hemen, behintzat, elkartasun handia dagoela uste dut.

Zenbat zarete elkartean?

15 bat lagun. Orain arte janari bilketak eta bestelako ekitaldiak egin ditu-

ARETXABAleta > URKULUKO OBRAK

Diputatu nagusiak Urkuluko hobekuntza lanak aurkeztu ditu

Diputazioko ordezkarien gaur, barikua, zuten hitzordua Urkulun, Aretxabaletako alkatearekin

Lanen lehen zatia aurkeztu dute; baina aurrera begira lanean segituko dutela esan digu alkateak

UBANE MADERA > ARETXABAleta Ezustekorik ezean, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri diputatu nagusia eta Lurralde Antolamendurako diputatu Koldo Azkotia Urkulun izan dira gaur goizean (barikua). Aretxabaletako alkate Arrixu Olidenekin bat egin eta Urkuluko urtegiaren egindako berritzeko lanak aurkeztean izan da ekitaldiaren helburua. Izan ere, Urkuluren itxura hobetzeko eta gunetako hark duen balioa nabarmenzeko lanak egin dituzte Aretxabaletako Udalak eta Foru Aldundiak elkarlanean.

ITXURA BERRIA

Alde batetik, urtegiaren itxura berritzeko 627.000 euro eskuratu ditu Udalak Diputazioitik. Arrixu Oliden alkateak kontatu digunez, diru horrekin urtegiari buelta ematen dion bidea zolatu egin dute, urak batzeko arekak egin dituzte, txirrindulariendako bidegorria egin dute eta jarlekuak eta zabor ontziak ipini dituzte, besteak beste.

BALIOA NABARMENTZeko

Bestalde, Urkuluren balioa nabarmenzeko bestelako lanak

egin dituzte urtegiaren. "Ikusita Urkulu dela Gipuzkoa barrualdeko hezegune garrantzitsuena; kontuan hartuta, besteak beste, urtegiak duen balio naturala eta paisaia aldetik duen balioa, eta Debagoieneko (eta gero eta gehiago, Debabarreneko) aisiaaldi-gune importanteeneko dela, erabaki dugu urtegiaren balioa indartzea". Hori guztia kontuan hartuta, Udalak eta Naturgintza Fundazioak hitzarmena sinatu dute elkarlanerako. Besteak beste, txoriak ikusteko behatokia ipiniko dute; elbarriendako arrantzagunea; uretan irlatxoak ipiniko dituzte, txoriek habia egin ditzen eta kanpoko zuhaitzak eta sastarak kendu eta autoktonoak ipiniko dituzte. Hain justu ere, orain dabilta landare aldaketa hori egiten. Arrixu Oliden alkateak esan digu Aste Santurako bukatuko dituztela lan horiek.

Halaber, gaineratu digu orain arte egindako guztia Urkulun egingo dituzten lanen lehen fasea dela. Esan digunez, orain Naturgintzarekin eta Diputazioarekin aztertzen dabilta aurrera begira zer gehiago egin dezaketen Urkulun.



OBRAK Besteak beste, bizikletan ibiltzeko bidegorria egin dute.

MIRARI ALTUBE



Arrasateko erietxea bota eta berria egingo dutela esan du PSOEk

Alderdi Sozialistak Arrasaten erietxe berria egongo dela esan du; orain dagoena desagertu egingo dela eta ingurua guztiz berrituko dutela. Jose Luis Angulo Arrasateko eskualdeko ospitaleko gerenteak, ordea, zehaztu digu oraingo eraikin berria ez dutela botako, ospitaleko eraikin zaharrena soilik botako dutela. Anguloren esanetan, aspaldi zehaztuta zegoen asmoa, baina alderdi politikoaren arteko negoziazioa behar zen. Hiru fasetan egingo dituzte lanak, eta lehen fasearen urratsak emanda daude.

GARRAIOAK

2007an hasiko dira tranbia egiten

Maiatzean egingo dute esleipena trazatuaren proiektua egiteko

O.E. > ARRASATE

Datorren maiatzean, Debagoiena lotuko duen tranbiaren trazatuaren proiektua esleituko dute. Hala, enpresa horrek 10 hilabete eta 750.000 euroko aurrekontua izango ditu proiektua idazteko. Eta, hain zuzen ere, urtebeteari barru tranbiaren lanak hasteko moduan egongo dira, 2007ko otsailan edo martxoan. Lehen fasea egiteko—Aretxabaletatik Bergarara—hiru urte beharko dituzte.

Arrasate, Aretxabaleta, Bergara, Eskoriatza eta Oñatiako alkateek Jaurlaritzako ordezkarien egin zuten bileran asteluhenean Arrasaten, eta tranbiaren proiektua eguneratu zuten.

ALEGAZIOEI ERANTZUNAK

Aretxabaletako Udalak jaso du aurkeztutako alegazioen erantzuna: trazatua aldatu egin dute eta Jaurlaritzak plano berriak ekarriko ditu martxoan, herritarrek ikus-teko. Bergara, Eskoriatza eta Oñatiako udalek aurkeztutako alegazioen erantzunaren zain daude oraindik.

ESKAINTZA

Giauto

REF.	DESKRIBAPENA	PREZIOA/€
958337	175-65-14E3A (T)	71,46
860809	165-65-14E3A (T)	62,88
881923	175-70-13E3B (T)	60,03
502818	165-70-13E3B (T)	58,12
72716	185-65-15E3A (T)	80,98
766215	175-70-14E3A (T)	72,41
136227	195-65-15E3A (H)	96,22
818521	195-60-15E3A (H)	100,04
868762	195-65-15E3A (V)	102,42
137266	205-50-16 (V) PRIMACY	151,95
688397	185-65-15E3A (H)	102,42
458398	205-55-16E3A (V)	134,33
137268	205-55-16E3A (V) PRIMACY	134,33
136276	215-50-17 (W) PRIMACY	221,02

ESKULANA eta BEZ-a Prezioan barne.



www.giauto.es



902 345 125
clientes@giauto.es

MICHELIN

OHARRA: gurpilen alineazioa ez dago prezioaren barrian.

ELGOIBAR · BERGARA · ARRASATE · EIBAR · ANOETA · OLABERRIA



Andoni Gartzia Oñatiko udaletxearen aurrealdean. Datorren astean Lurdes Idoiagari utziko dio lekukoa.

ENEKO AZKARATE

Andoni Gartzia > Oñatiko alkatea

"Aberasgarria izan da, jende asko ezagutu dudalako, baina era berean baita gogorra ere"

ENEKO AZKARATE > OÑATI

Datorren eguneko osoko bilkuraren utziko du alkatetza eta zinegotzi izango da agintaldia amaitu arte. Lurdes Idoiagari utziko dio lekukoa. Hala, Andoni Gartzia alkatetzan eman dituen 33 hilabeteen balorazioa egin digu.

Zergatik erabaki duzu alkate kargua uztea?

Arlo profesionalak agindu du. Garaia egitasmoa une erabakigarran dago, inflexio puntuaren gauza, eta datozen hiruzpalau urteak oso garrantzitsuak izango dira. Enpresen harreman ugari egin behar dut, asko bidaia behar dut, kanpora sarri joan behar dut... Eta Oñatiko Udalean ere nahiko lan neukan. Ez daukat guztiari aurre egiteko astirik.

Ia hiru urte eman dituzu alkatezkan. Zer balorazio egiten duzu?

Lan polita izan da, baina era berean gogorra. Esperientzia aberasgarria izan da, jende asko ezagutu dudalako. Bestalde, une onak eta ez hain onak bizi izan ditut. Beti ez duzu denen gustura egiten. Ilusio handiarekin sartu nintzen eta zinegotzi lanetan ere berdin segituko dut.

Zerk eman dizu satisfaziorik handien?

Jendearekin izan dudan harremana, jende asko ezagutzea aukera izan dut-eta. Horrez

gain, egokitzaigu Oñatiko Arau Subsidiarioak onartzea, eta lan horrek asko bete nau. Eta azpimarratu gura dut etxebizitzaren eskaintzaren arazoa bideratu egin dugula, neurri baten.

Eta arazo gehien?

Batetik, pena eman dit hainbat herritarren eskaerari ezin erantzun izatea, administrazioaren funtzionamendua dela-eta. Horrekin batera, une okerrenak aipatzearren, gaztekin izan ditugun liskarrak. Batez ere, hainbat gazzteren egiteko modua ez zait batere gustatu. Bizi izan ditudan irainak, jazarpena... izan dira oso une desatsegina. Arazoak ez dira horrela konpontzen. Argi utzi nahi dut, edozelan ere, gaztetxearen arazoak ez nauela bultzatu kargua uzteria.

Gaztetxeko kontuari zer irtenbide ikusten diozu?

"Argi utzi nahi dut gaztetxearen arazoak ez nauela bultzatu kargua uzteria"

"Etxebizitzaren eskaintzaren arazoa bideratu egin dugu, neurri baten"

Ez gaude gaztetxearen aurka, baina Udalak beste egitasmo bat dauka gazteendako. Hainbat gazte herriaren ongizatea aldarazten saiatu dira; hori ez zait gustatu.

Arazoa konpontzeko modurik ikusten duzu?

Azken lauzpabost hilabeteotan ez dugu batere harremanik eduki, jarrerek ez dutelako horretan lagundu. Gaztelekuaren egitasmoarekin egingo dugu aurrera. 22 urteko gazte batiz ez diot ukatuko bere askatasun egarria, baina gaurko gizartearen arau minimo batzuk errespetatu behar ditugu.

Zelakoa izan da gobernu taldearen eta Ereittinen arteko elkarbizitza?

Arazo politiko da hau eta ez dut uste udal mailan konpon daitzeenik. Elkarbizitza era normalean egiten saiatu gara. Osoko bilkuretan, batzordeetan parte hartzen utzi diegu, hitza eman diegu... Ulertzen dut, halere, egoera berezi horretan lan egitea zaila dela legez kanpo daudenendako, baina legea ez dugu geuk egin, eta, bestalde, alderdi politiko guztiek dira euren estrategiaren erantzule.

Zer aholku emango zenioke hurrengo alkateari?

Aholkuak eman baino gehiago, laguntza eskainiko nioke. Bizitzak ematen dizkigu aholkuak eta ni ez naiz inor aholkuak emateko inori.



Arrasaten astean bitan egiten dute azoka.

USOA AGIRRE

Debagoieneko herri gehienetan egiten dituzte azokak astero

AINTZANE IRIZAR > BERGARA

Asteko fruta eta barazki erosketa azokan egiteko ohitura daukan jende asko dago. Bestelako produktuak ere asko aurkitu ditzakegu azoketan. Bestalde, arropak, oinetakoak eta etxerako tresneria saltzen dituzten azokak ere egiten dituzte herri handienetan.

Oñatin eta Bergaran zapata goizetan izaten ditugu azokak. Oñatin, azoka plazan eta Santa Marina plazan; Bergaran, berriaz, azoka plazan eta Katabian. Arrasaten, egubakoitz eta eguztetenetan izaten da azoka plazakoa; arropa eta bestelakoena, berriaz, egubakoitz goizetan, Laubide plazan. Aretxabaletan, astelehen goizetan egiten dute azoka, Belorrrietan; Eskoriatzan, egubakoitzetan, Gorosarri plazan. Antzuolan, egubakoitz goizetan, frontoi aurreko aldean; Elgetan, azkenik, astelehen goizetan, herriko plazan.



4x4 eta diesel automobilek zerga gehiago

Espaniako Gobernua automobile batzuei zergak igotzeko aukera aztertzen dabil; diesel eta mendiako ibilgailuei, hain zuzen ere, gehien kutsatzen duten ibilgailuak direlako. Oraindik, baina, ez dute erabakirik hartu.



Lehenengo gazta berriak ikusi ditugu gure azoketan

Gure azoketan ikusi ahal izan ditugu dagoeneko gazta berriak. Zapatuan, esaterako, Oñatiko azokan topatu genituen salgai. Normala den moduan, iaz baino garestixeago: kiloa 15 eurotan, Oñatiko bertako baseari bateko gazta.

Arrasateko etxebizitzen prezioa %6 igo da

Azkeneko urtean %6ko igoera izan dute erabilitako etxebizitzen prezioek Arrasaten. 1998. urtetik hona preziook izan duten igoera txikiak da oraingoa. Gaur egun, metro koadroko batez besteko prezioa 3.155 euro da Arrasaten.

Kontsumoaren gaineko erakusketa Eskoriatzan

Kontsumoa: janari, jantzi eta zapaten etiketak izeneko erakusketa izango dugu ikusgai otsailaren 23tik 26ra Eskoriatzan, Ibarraundi museoan. Erakusketa didaktikoa da; bere helburua da jendeari informazioa ematea.

gure artekoak

KOMA > Sei bat urte dira Jose Luisek eta Viviana Dal Pont bikotekideak Koma hizkuntza enpresa sortu zuela. Oñatin dute egoitza, baina ibarreko errepideetan enpresaren automobil txikiak gehienok ikusi ahal izan ditugu.

Jose Luis Liebana

"Hizkuntzarekin lotutako zerbitzuak eskaintzen ditugu"

AINTZANE IRIZAR > OÑATI
Oraingo Oñatin eta Gasteizen dituzte Koma enpresaen egoitzak, baina laster zabalduko dute beste bat Durangon. Hizkuntzak lotutako zerbitzu guztiak eskaintzen dituze: formazioa, itzulpenak, aholkularrizta...

Hizkuntza akademia bat baino zerbait gehiago da Koma.

Hala da, bai; hizkuntza zen tro bat da eta hizkuntzarekin lotutako hainbat zerbitzu mota eskaintzen ditugu: formazioa, itzulpena, interprete zerbitzua eta hizkuntza aholkularrizta. Formazioa 14 hizkuntzatan eskaintzen dugu; itzulpen idatzia 142 hizkuntzatan eta interprete zerbitzua 65 hizkuntzatan.

Zela moldatzen zarete itzulpen eta interprete zerbitzuak horrenbeste hizkuntzatan eskaintzeko?

250 bat itzultzailerekin dugu harremana modu jarraian. Deialdi zabalak egiten ditugu mundu osoan eta itzulpen espezializatuak egiten dituzten adituak aurkitzen ditugu. Kudeaketa egiten dugu guk sortutako sistema informatiko baten bitarte.

Ze itzulpen zerbitzu eskatzen diziute gehienbat?



Jose Luis zuzendaria, Sonia eta Ana Beatriz Oñati egoitzako langileekin. A.I.

FITXA TEKNIKOAK

> HASIERAK

Alemana eta italiara zekizkinez, jendeak itzulpenak eskatzen zizkion; hortik sortu zitzaien negozioaren ideia.

> WEBGUNEAK

Informazio guztia topatuko duzue honako webgunean: www.komalingua.com.

> LANGILEAK

Formazioan, hau da, irakaskuntzan, 50etik gora langile ditu enpresak.

Enpresek gehien eskatzen digutena da espainoletik ingelerako itzulpena. Dena dela, txinerria eta alemana ere geroago eta garrantzi handiagoa hartzen doaz gure inguruko enpresetan.

Aholkularrizta linguistikoa ere aipatu diguzu. Zer da hori?

Enpresei laguntzea zehazten hizkuntza eskakizunak; langileak aukeratzeko prozesuan pertsonaren hizkuntza mailak neurteza; itzulpenari dagokionez enpresak ze beharrizan dituen zehaztea... Era horretako aholkularrizta eskaintzen dugu.

begi-bistan



**Zumarra moztuta
(Bergara)**
2006/02/16

Argazkia: Aintzane Irizar.
Testua: Aintzane Irizar.

Aurreko astean moztu zituzten Bergaran, Torrekua inguruau, zumar hauetan; hamaika, guztira. Itxura denez, har batek kaltetuta zeuden. Hantxe daude enborrak, lurrean pilatuta.

Har ezazu parte:
Argazkia eta azalpentxoak
bidali honako helbidera:
goienkaria@goiena.com

etxeko leihotik



Aitziber Aranburuzabala > Arrasate Irratiko arduraduna

Lege artean galdua nabil azkenaldian

Lege kontuetan ez naiz izan sekula iaioa. Kazetaritza ikasketak egin nituenean ere, Zuzenbidea zen gainditzea gehien kostatzen zitzaidan ikasgaia. Hamaika abokaturengana jo dut azkenaldian argibide bila, baina oraindik ere zalantzak ditut. 18/98 auziaren epaketari, adibidez, frogatzen zioten. Ekin edo...

Mugaz bestaldeko epaileen legeak ere ez ditut ondo menderatzen. Florent Szewczyk epaileak haur bat ikastolatik ateratzeko emandako arrazoia: ikastolek deskulturalizazioa eta akulturalizaioa eragiten dute. Inkulturaz beteta dago, beraz, Debagoiena ere.

Tabakoaren legeari buruz ere badut galdera zerrenda prestatuta. Esaterako, tabakoaren legea ezarri duena gobernuada, nola ulertu orduan, prezioak jaitsi dituena ere gobernuia izatea? Akaso udaltzainek izango dute erantzunik, horiei dagokie-eta legea betearaztea. Ederra lana!

Amaitzeko, bida, ondorio bi:

1. Zuzenbide eskola partikularrak behar ditut, gerta kariak era egokian kontatzeko gero irratian.
2. Legea egin duenak trampa egina du!

> Lanean tabako

gutxiago erretzen dut, legea indarrean jarri denetik. Baino bestalde, autoan, lanerako bidean, tentazio handiagoa ere badut, bidairen iraupena ere bikoiztu egin zait-eta.

> Zapataua

Debagoienetik Bilbora joango diren autobusetan ere ezingo da zigarrorrik erre. Baino gero bai, 17:30ean manifestazioa abiatu orduko. Bota dezagun, bida, kea, gueu erre aurretik!

izen propioak



Iñigo Zubizarreta
MUSIKARIO



Jose Ramon Vitoria
MUSIKARIO



Aitor Lopez Rekarte
FUTBOL JOKALARIA

Gaur bertan, egubakoitza, Amerika aldera doa Iñigo Zubizarreta gitarra jotzaile arrasatearra, Tako izeneko musika taldearekin. Argentinara eta Uruguayra joango dira. Urte asko darama Iñigok gitarra jotzaile, eta talde ugariarekin jo izan du.

Donostiarra Orfeoia-ren eta EHUREN V. sarietan, Jose Ramon Vitoria musikari arrasatearra sarituko dute, musika bultzatzen eta ikertzen egindako lanagatik. Bihar, zapataua, jasoko du saria Donostian, EHUREN campusean. 3.000 euro jasoko ditu.

West Ham Londresko futbol taldeak Lopez Rekarte fitxatu nahi du. Horixe argitaratu du Marca-k. Orain dela ia hilabete bere eskaintza egin zuen talde britainiarak, baina atzera bota zuten. Liga amaineran saiakera horrekin jarraitzeko asmoa dute.

Elizbarrutian 224 parroquia daude eta bakoitzak bere ordezkaritza ditu. Misioetako da

horietako bat eta Leire Atxegak hortxe dihardu, proiectuen suspertziale lanetan. 700

misiolari gipuzkoar daude munduko 75 herrialdetan sakabnatuta, eta guzien koordinatzai-

lea da. Arrasateko umeek egin dako lanen erakusketa ekarri du Debagoienera.

Leire Atxega > Gotzaindegiko misiotarako ordezkaria

"Mahomaren karikaturak argitaratzea errespetu falta izan dela uste dut"

OIHANA ELORTZA > ARRASATE
Misio ordezkartzak hainbat proiektu garatzen ditu urtero eta misio taldeak bere misiolariaren inguruan egiten du lan. Urruti ez ezik, hemen ere hainbat ekintza egiten dituzte; adibidez, Monterronen jarri duten erakusketa. Arrasateko katekesiko umeek egindako buztinezko lanak daude ikusgai. Hain zuzen, Iparraldearen eta Hegoaldearen hartuemanak irudikatu dituzte 8 eta 11 urte bitarteko umeek.

Mundua zeuk margotu du izeña erakusketa. Ze kolore du munduak?

Kolore guzietako da mundua eta aprobetxatu egin behar da hori. Gizarte honetan behar-beharrezkoak dira ortzadarren koloreak.

Toki askotan egoera zailean, gaizki, bizi dira eta horiei kolore guztiak eskaini gura dizkiet. Kolore bakoitzak bere balioa eta eginbeharra du eta batak ez du bestea kentzen, osagariak dira bata eta bestea.

Eta zein da elizaren kolorea?

Elizak ere kolore guzietako da behar du izan. Askotan itxura ematen du beltza, gorria edo berdea dela, baina kolore guztiak ez baditu aprobetxatzen, zerbaite gaizki egiten ari garen seinale da. Horrek, hala ere, ez du esan gura santuak garenik, gizon-emakumeak gara eta egunero egiten ditugu akatsak.

Ze distantzia dago misio departamentuaren eta gizartearen artean?

Batzuei ez zaie axola gu zer-tan ari garen, baina beste askori bai. Uste dut gure kanpainak, protestak eta mezuak iristen direla, beste gauza bat da kaleko jendeak hori bere gain hartzen duen edo ez, konprometitzen den edo ez. Interes hori norberak sortu behar dio bere buruari.

Ze mezu du erakusketak?

Zein da zure jokaera eta egin-beharra mundu honetan? Ze egin-ko zenuke beste herrialde batzuk ere hobeto bizi daitzen? Horrelako galderak planteatu gura ditugu eta erantzunak erakusketan bilatu gura izan ditugu.

Bi urte daramatzagu horrekin. Bilbo, Gasteiz eta Arabako ordezkartzok elkarrekin abiatu genuen proiectua. Herriz herri eta parrokiaz parroki ibili gara elkartasun gaiak sakonduz. Arrasatetik Mutrikura goaz,



Mundua zeuk margotu erakusketa ibiltariak bi urte ditu eta bukatzean du bere ibilbidea.

eta hantxe bukatuko du ibilbidea erakusketa horrek.

Zein da helburua?

Hausnarketa eta sortze plastikako tailerrak egitea da helburua. Arrasaten, esaterako, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko hartu-emanak landu ditugu. Hain zuzen ere, lau parrokiak hartu dute parte eta bost astez aritu gara lanean bi talde-rekin. Buztina erabili dugu hausnarketa egiteko.

Nola ikusten dute Hegoaldea katekesira doazen Arrasateko umeek?

Pobrea ikusten dute. Hegoaldeko haurrei buruz dakidana da, besteak beste: jatekorik ez dute-la, ez direla ikastetxeetara joaten, asko gurasorik gabe daudela, apurtutako arropak dituztela, zabor artean bizi direla eta anai-arreba asko direla. Horrela zer-gatik bizi diren galdezen diegu guk, baina ez dakite. Oraindik ez dakite gu onto bizi izateko beste batzuek gaizki bizi behar dute-la. Gehiegikerian bizi garela era-kusten diegu eta guk hori neur-tzen ez dugun bitartean beste herrialdeetako umeak berdin biziko direla azaltzen diegu. Eurek ulertzen dute, baina ez dakit noiz arte jabetuko diren ego-eraz, arazoaz. Hala ere, helduok eraikitzen ari garen gizartea du errua, ez umeek.

Hori ez da hitzetan galtzen?

Jendeak berba egiten du eta berba horiek burura edo bihotze-ra joaten dira. Horrek pentsatze-ko laguntzen ditzu. Gizakia gal-tzen da hitzetan batzuetan, baina pertsona on asko dagoela uste dut.

Nortzuk dira onak?

Gu lan handia egiten ari gara kristauak ez direnekin ere, Gipuzkoan batez ere. Gobernuz Kanpoko Erakundeekin, adibidez, lan handia egiten dugu. Gauza askok lotzen gaitu, eta horri heldu behar diogu. Kan-paina askotan elkarrekin goaz, nork bere eta bestearen identita-teak errespetatuta.

Kontzientzia garbitzeko iza-ten dira kanpainak?

Jendeak oraindik ez du sen-sibilitate hori. Jendeak egin behar duena da jabetu kanpainak ez direla kontzientzia garbitzeko soilik, gure egin-beharra bidera-tzeko baizik.

ELIZA

"Elizak gauza asko esaten ditu eta guztiak ez dira egokiak, hankasartzeak ere egiten ditu"

KARIKATURAK

"Jesukristoren karikaturak argitaratuz gero, kristauak ere protestatuko lukete"

ERAKUSKETA

"Arrasateko umeek buztinean irudikatu dute Iparraren eta Hegoaren hartu-emana"

Eta zer diote Iparraldeari buruz galdetuta?

Dena ona ikusten diote Iparraldeari. Egia da zorte handia dugula hemen, eta batez ere Euskal Herrian, jaio garelako. Hala ere, ez gara hobeto bizi. Lana, lana eta lana da buruan duguna eta estresatuta bizi gara guztiok. Balio guztiak galtzen ari dira eta ez dago errespeturik.


Krisian dago eliza?

Krisian sartuta gaude eta badi-rudi ez dugula atera nahi, siesta goxoa egiten ari garela. Baino beti egon dira krisiak. Giza emakumeok ere sarri izaten ditugu; jakin behar dugu konpontzen eta aurrerapausoak ematen.

Elizak gauza asko esaten ditu, baina denak ez dira egokiak. Han-ka-sartze handiak egin ditu, eta egingo ditu. Eliza ez da abstrak-tua, gizon eta emakumeok osatzen dugu. Ahaleginak egiten dira, baina ez da erraza jendea erakartzea. Elizari boluntario bat aurkitzea kosta egiten zaio, baina baita beste edozein era-kunderi ere. Gaur egun konpro-misorik eza handia da eta gizar-tean sartuta dago erabat.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Uste dut beste eliza mota bat posible dela, beste sinismen batzuk ere kontuan hartzen dituen eliza. Momentu honetan, denondako berria den fenomeno bat ari da gertatzten: hainbat eli-zatako umeak daude gure ikas-



Gaur, egubakoitza, 20:00etan itxiko dute Monterrongo erakusketa.

"65 misiolari dira zuen eskualdekoak"

O.E. > ARRASATE

Gipuzkoako 700 misiolari, moja, apaiz eta sekular daude munduko 75 herrialdetan. Horietatik 500 datu basean sartuta ditu misio ordezkaritzak; jasota du non, zertan eta nola ari diren lanean.

Misiolari horien artean debagoien-darrak ere egongo dira ba.

Horixe baietz. 65 misiolari Debagoienekoak dira. Amerikan, Asian eta Afrikan daude sakabanatuta, adibidez Marokon, Indian, Brasilen, Kongo, Kolonbian, Mexikon, Japonian, Mozambiken, El Salvadorren, Paraguayn edo Puerto Rican. Guztien datuak gordeta ditugu eta jarraipe-na egiten diegu.

Zu zeu askotan etortzen zara Debagoienera?

Batera eta bestera ibiltzen naiz ni eta Debagoienera ere sarri etor-tzen naiz. Hainbat taldekin egiten dugu lan eta kontaktu eta harreman han-dia dugu. Arrasaten, esaterako, kate-kista batzuekin egiten dugu lan; Oñati, misio taldearekin, eta Bergaran, berriz, sekularren talde txiki bat sor-tu da orain eta horiengana joaten naiz. Orain, erakusketa ekarri dugu Arrasatera eta horixe izan dut hona etor-tzeko aitzakia.

tetxeetan. Donostiako San Jose ikastetxeen, adibidez, 30 kultu-ratako umeak daude gela baten. Eliza, ikastetxeak, gizarteak eta erakundeak elkartu egin behar dugu eta guzion arteam aurrera eraman ganorazko proiektu bat.

Ze iritzi duzu Mahomaren (Muhammad) karikaturek eka-rrri duten erreakzioen gainean?

Iruditzen zait karikatura horiek argitaratu izana errespe-tu falta ikaragarria dela. Baino besteek hartu duten jokabidea ere gehiegizkoa iruditzen zait. Abia-puntuak, hala ere, irudiak argita-ratu dituztenen errespetu falta izan dela uste dut. Ikasi behar dugu elkarbizitzen errespetuz; bestela, gaur karikaturak eta bihar beste zerbaite izango da.

Nola erreakzionatuko lukete kristauak Jesukristoren kari-katurak argitaratzu gero?

Horrenbesteko erradikaliza-zioarekin ez dut uste, baina ziur nago protesta egingo luketela. Hala ere, iruditzen zait musulmanek ere ekarpen handia egin dezaketa gizarte honetan eta bidezkoia dutela protesta, sinismena eta elkarbizitza.

Debagoineneko PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

BERGARA / Irizar 2
T: 943 76 03 35

LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriozt 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA

BERGARA / Artekale 1
T: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABAleta / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otarra Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABAleta / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTO TEKNIKOAK

DORLETA EGUIARA FDEZ-RIVERA

ARRASATE / Arrasate Pasealekua 16 - 1D
T: 636 38 69 87 / 943 79 58 80
deguiara@yahoo.es

JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

JUAN MARI OSINAGA

ARRASATE / Zerkaosteta 17, behe
T: 943 79 67 78
F: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Otarra 16, solairuarte esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
uribesalgoe@telefonica.net

GESTORIAK

EGUREN

BERGARA / Irala 3
T: 943 76 21 65

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49



zabalik

Larraitz Ugarte

Hitzaldien eta tokien arriskuez

ragan otsailaren 3an Oñatin hainbat gazte drogei buruzko hitzaldi didaktiko bat entzutera joan ziren Gaztetxea izenez bataiatua izan den eta aspalditik hutsik dagoen baserri batera. Hitzaldia gorenean zegoenean Ertzaintza sartu eta bertan zeuden gazteak identifikatu zituen: hamar gazte eta bi adin txikiko, baita prezio berean hizlaria ere.

Desalojoa, Oñatin jada Gaztetxerik ez. Atxiloketak, katxeoak eta protokolo etikoean ere zalantzakoak diren biluzte integrak. Eta, nola ez, kasu hauetan ohikoa den bezala, prozesu penal luze baten hasiera.

Hasiera. Prozesu honek gazte hauek usurpazio delitu baten ustezko egiletzat eraman ditu epaile aurrera. Hirutik sei hilabete bitarteko isuna diruz ondoregi ez dabiltsan gazte batzuentzat, hitzaldi bat entzutera edota ematera joan ziren gazte hauentzat. Hori baita hain zuzen epaileari adierazi diotena.

Badirudi, ordea, hitzaldi bat entzutera edo ematera joan behar izanez gero, lehenbizi hitzaldi-tokiaren egoera juridikoa ezagutu beharra dagoela; adi ibili, beraz, hitzaldia garesti ateratzerik nahi ez baduzu.

Baina diruaren gainetik, betiere, eta jendeak dioenaren kontra, politika. Politika, justizia administrazioaren bidez oñatiar gazte askok dituzten zilegizko nahi eta proiektuak zigortzen, okupazioaren kontrako gurutzadan.

Eta bukaera? Zinez espero dudana, gazte hauen absolutiojuridikoa, bestea aurretiaz baitaukate herriak emana. Eta zergatik ez? Gazteen beharrak entzun eta hauei irtenbide bat emateko ekinmen politiko inteligenteak, faltan botatzen dira eta.

"Hitzaldi batera joanez gero, hitzaldi tokiaren egoera juridikoa ezagutu beharra ei dago"

"Zinez espero dudana da gazte hauen absolutiojuridikoa"

Goienkaria

Argiratzalea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE Lehendakaria Esteban Plazaola Zuzendarri nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Saitetako arduradunak Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea) **Erredakzia** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzela, Oihana Elortza, Leire Kortabarria, Aintzane Irizar, Irati Agirreazaldegi **Oinarrizko diseinuoa** Goi Arana **Maketazioa** Alex Azkarate **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiniano, Natali Martinez, Zortzka Martín, Imanol Elortza, Ibaso Bereizbar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzaran, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa

EGOITA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13 Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com **Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 18.935 ale • **Difusioa:** 17.680 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZIALEAK



Eusko
Jaurlaritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatioko
Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

herriarrak galdezka

EPELE-KASKONATEGI

Egunero Arrasaterantz doan oña-tiabatek deitu digu honetaz kezkatuta: noiz zabalduko dute Epele eta Kaskonategiko biribilgunea lotzeko errepide berria?

Joan zen egunean Joxe Joan Gonzalez de Txabarri diputatu nagusia Arrasaten egon zen Olandixoko tunelaren eta saihesbide berriaren gaineko maketaren aurkezpenean. Epeletik Kaskonategirainoko errepide berriaz ere jardun zuen eta esan zuen martxorako zabaldu nahi dutela, eguraldiak laguntzen badu; gainera zuen lanak bide onetik doazela, baina atzeratu egin direla (hasiera batean urtarrilerako amaituta behar zuten), Telefoniako hari bat erretiratzeko zain izan direlako.

OLANDIXOKO TUNELA

Arrastear batek mezu bat bidali digu zera galdetuz: Olandixoko tunelak eta saihesbide berriak sarbide zuenik izango dute Eibar-Gasteiz autobiderako?

Udaleko eta Foru Aldundiko agintariek joan den astean GOIENKARIARI azaldu ziotenez,

mendebaldeko saihesbideak lotuko ditu Uribarri ingurua eta Mugarrite, hau da, Arrasatetik Aramaiorako irteeratik Arrasate eta Aretxabaleta arteko mugairaino luzatuko da, gutxi gorabehera. 2,1 kilometroko saihesbidea izango da eta tartean 830 metroko tunela izango du. Saihesbide berriak ez du AP-1 autobidearekin lotura zuzenik izango; izan ere, autobiderako sarrera gertukoak izango dira

Epelekoa iparralderantz edo Eskoriatzakoa hegoalderantz.

LA CAIXAREN ETXEBIZITZAK
Arrasaten jakin-mina dago zertain den La Caixa kegin nahizituen alokairuzko etxebizitzen gaineko proiektua. Horren gaineangaldeku digu herritar batek.

Arrasateko alkateak erantzun digunez, oraindik ezin dute ezer zehaztu. Baino, era berean, jakinarazi digu iritsi zaiela Ezker Batuak gai horren gainean ipinitako erre Kurtsoaren erantzuna. Eta erantzun horrek dio posible dela osoko bilkuraren adostutako hitzarmenak, La Caixa kain sinatutakoak, aurrera egitea. Hori bai, alkateak gogorarazi digu hitzarmena indarrean jartzeko beharrezko dutela Egitamu Orokorra aldatzea eta, horretarako, osoko bilkuran gehiengo osoa behar dutela. Oraingo udal gobernuarekin hori ez da posible. Hala, Lakuntzak jakinarazi digu PSE-EErekin negoziatzen dabiltzala, oztopo hori gainditzen. Eta esan digu, baita ere, oraingo astean bertan batzarra izan due-la La Caixa kain.

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaligu zu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxe: 943 25 05 01
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

marrazkiz

Julen Ribas



Kazetaritza leizio bat

Patxi Gaztelumendi

www.gaztelumendi.blogthing.com

Berria egunkariak blogak iragarri zituenean, poza hartu genuen denok. Blogintzara gehitzen zen Berria, eta bertako kazetari batzuk paperean idazteaz gain, blogean ere agertuko zituzten bere kezkak, burutazioak, iritzia, datuak...

Ez da horrela izan. Berria-ko blogak bluf bat izan dira, berehala lehertu den globo

puzgarria, polita agian, baina ez diru bi egun iraun airean. (...)

Bada, hala ere, adibide on bat, astetik astera hobera egiten duena: Imanol Murua Uria. Kazetaritza maite duen kazetaria da Imanol, bizi duena; eta biziarraten duena. Kazetaritzaz berba egitea ere maite duela pentsatu gura dut, bestela ez da normala, ofizioari eskauntzen dion tartea, gogoa eta ilusioa. Irakurle izatearen plazerra, berriz, neurea da. Geurea, guztiona.

Azkena itzela izan da, 6 ordu pasa ditu 81 urteko jeltzale bat elkarrizketatzen. Eta ehunka izan dira, Euskal

Herri osoan, elkarrizketa osorik irakurtzen eman

ditugun orduak. Pentsatu gura dut, jende askok irakurrik zituela Luis Mari Retolazaren egindako berbaldia eta bere bi bertsioak (3 orri Berria, eta 60.000 karaktere Berria.info gunean, 30 folio inguru).

Elkarritzetaren teknika menperatzen du Muruak, aspaldian elkarrizketa asko publikatu ditu. (...) Horregatik, Mahai jokoan izeneko blogera harpidetuta nago, sarri irakurtzen ditut bertako albisteak, komentarioak, jendearen iritzia. (...)

plazara

Ibarretxe euskal estatutuaren proposamen berria defenditzera Espainiako parlamentura joan zenetik hona igaro den guztiaren gaine-

an hausnarketa egin du Aralarko ordezkariak. Tartean, aldaketak egon dira EAJren buruan, Katalunian estatutua onartzeko akordioa

egin dute hango bi alderdi nagusi... Aurrera egiteko indar abertzaleon arteko elkarlana beharrrezkoa da, Aralarren ustez.

Rebeka Ubera *

Urtebete geroago, atzerantz lasterka

Urbete pasatu da Ibarretxe lehendakaria Espainiako parlamentura joan zenetik bere plana defenditzera. Hark erakutsitako jarreratik urrut samar ageri da gaur egun Josu Jon Imazen EAJ. Atzerapausoak eman beharrean batzuek atzeranzko lasterka biziari ekin diote. Tarte berean katalanek beraien Estatut proposamena ren nondik norakoa ezagutu dute.

PSOEri berak elikatutako piztia ari zaio oldartzen. Sotanadun, militar, zembait epaile eta tertulianoren eskuak, espainiar gizartearen zati handi batek bere egin du, azken urteotan, Espainiaren basasun sakratuaren mezua.

Egoerak estututa, PSOEk CIUREkin akordioa lotu eta Parlamentak onartutako Estatuta hustu du. Are okerrago, akordio horrekin Estatuaren lurraldetako artikulazioaren (la España plurinacional) gainean diskurtso itxuraz berri eta irekiagoa isilazti eta trantsizio garaira itzulazti gaitu: orduko aliantza eta orekak berreskuratzeko asmoa garbia da. Eta hortik zenbait ikasgai atera beharko genituzke:

Lehenik, hitzetik hortzera erabili den ohiko argumentua gezurtatzen da: indarkeriarik ezean eta kontsentsuz guztia defenda daiteke demokrazian. Bada, ez. Defendatu bai, baina ez praktikan gauzatu. Modu baketsuan eta Kataluniako parlamentuaren %90ak babestutako proposamena ez da errespetatua izan. Baldintzak betetzen direnean baldintzen baldintza agertzen da: zorioneko konstituzioa *errespetatzea*.



MIKEL ARROIABE

Bigarrenik, garbi ikusi ditugu PSOEk edozein erabaki esparru onartzeko dituen muga eta baldintzak. Mugak kanpoan (PPren markaja) eta barruan ditu (espainiar nazionalismoak aspalditik egin zuen lekua bere baitan). ERCren esperientziak garbi erakutsi digu soilik PSOErekiko negoziazio batean oinarritutako estrategiak duen arriskua.

Azkenik, berriz ere erakutsi digu Kataluniako alderdi konservadoreak bere alderdiaren interesak lehenesten dituela Kataluniako herriaren erabakien errespetuaren aurrean.

Katalunian atzera egiteak guri dagokigun prozesuan eragina izango duela garbi dago. Pro-

"Egoerak estututa, PSOEk CIUREkin akordioa lotu eta Parlamentak onartutako Estatuta hustu egin du"

"Ohiko argumentua: indarkeriarik ezean eta kontsensuz guztia defenda daiteke demokrazian. Bada, ez. Defendatu bai, baina ez praktikan gauzatu"

zesuak ezberdinak dira: hemen ez gabiltza transferentzia bat gehiago edo ez, finantzaketa sistema hau edo beste eztabaidatzan; hemen erabakitzeko gaitasunaz ari gara. Baino Katalunian estatutu erreforma soil bat aurrera ateratzeko izan dituzten zaitasunak ikusita bidea batere erraza ez dela izango urrundik suma dezakegu.

EAJren zuzendaritzak, CIUREkin bidea jarraituz, PSOErek estatutuaren erreforman sakonete ahaleginen bat hitzartu eta alderdiaren interesak eta boterea gordetzeko tentazio handiegia izan dezake. Josu Jonek ez du denbora asko behar izan CIU zoriontzeko.

Kontuan izan beharko da hemen ere oso mugatuta dagoen PSOE batekin negoziatzearen arriskua.

Prozesu politikoa luzea izango da eta erabakitzeko eskubidea errespetu diezaguten borrokatu beharko dugu. Ezinbestekoa izango da indar abertzaleen batzea eta herri mugimendu bateratua berpiztea. Eta horretarako indar abertzaleon arteko elkarlana oztopatzetan duten traba eta baldintzak desagerrazti beharko ditugu. Konfianza eza, errezeloa eta alderdiaren interesak gainditu beharko dira, noski, baina alde guztiek bide politikoaren alde egiten badute batasuna eta elkarlana posible izan daitezke. Ezina ekinez egina.

* Aralarko batzarkidea
Gipuzkoako Batzar Nagusietan

zer deritzozu?

www.goiena.net

Lehen baino
hobeto bizi
gara orain?

BAI	%66,6
EZ	%33,3

> GIZATERIAK HOERA

Horixe baiet. Orain hobeto bizi gara, galdeztea ere. Orduan jateko gutxiago zeukaten, lan gehiago egin behar zuten, astialdirako denbora gutxiago zuten... Gizateriak hoera egin du. Mireia

> LEN POZIXAU

Hobeto bai, baina len pozixau bizi zien gauza gutxiak. Oin danok estresauta alde batetik bestera, jentia amargauta... Pako

> DAUKAGUNAREKIN BIZI

Ez da aberatsagoa gehiago daukana, baizik eta daukanarekin ondo bizitzen daki. Duda barik guk ez dugu pasatzen ordukoen miseria edo goseric. Etor

> DISFRUTATZEKO ASTI GUTXIAGO ORAIN

Ez. Askoz denbora gutxiago dugu familiar egoteko, lagunekin egoteko... Diru gehiago bai, baina bizi gutxiago. Oihana

DATORREN ASTEKO GALDERA: Bakea gertuago ikusten duzu?

Eman zure iritzia
www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzen interesgarrienak.

koplak

Bergarako Bertso Eskola

Makroepaiketa

Madrila joan eta etorri atzeratzen da asteka, auskalo zenbat luzatuko den bertan makroepaiketa.

Izen zerrenda luza dugu Jose Luis, Iñigo, Txapi... ta hurrengoa nor izango den Marlaskak ere ez daki.

Madrilen honen aurka gaudela behingoz ohartu daitezen, zapatu hontan Bilbora joan ta aldarrikatu ozen.

blog-top

Eskola askorik ez daukagunontzat, lezio ona izaten da blog hau. Gomendatuta zaude te, horregatik.

Iparragirre Sariak: iruzurrik ez, mesedes

Telezaborra
www.eibar.org/blogak/telezaborra

EiTBkoek banatu berri dituzte Iparragirre Sariak. EiTB taldeko telebista eta irratietako saioak

bozkatzen dituzte ikus/entzuleek. Eta hedabide bakoitzeko programariak bozkatuenak saria irabazten du.

Hori da EiTBkoek saldu nahi dugtena. Ez daukat daturik esatera noana frogatzeko, baina ez dut uste saria programariak bozkatuenak jasotzen duenik.

Har dezagun Radio Vitoria, adibidez. Zein izan da aurretan Gasteiz Irratian Iparragirre Sariaren irabazlea? *Eusko Ikaskuntza*. Gauetan ematen duten kulturari buruzko programa

da. Kar kar kar. Alegia, inortxok ere entzuten ez duen saio bat. Nahi dutena esango dute, baina ez dut uste hori sainork bozkatuena izan denik.

Gauza zorrotz, arrotz horiek

Xabier Mendiguren Elizegi
www.eibar.org/blogak/mendiguren

Telebista aurrean geunden, zabor horietako bat ikusten, eta aldamenean nuen emakumeak bota zuen:

"Ospetsu izatera iritsi nahi duten emakume horiek derrigorrezko dute gaur egun bi ohe klase zapaltzea: kirofanokoa batetik, halako ipurdia edo holako titiak jartzeko, eta zenbait gizonezkorena bestetik, programa honetan eta hartan atera ahal izateko.

Ikuspegi moralista batetik, badirudi gaitzesgarriagoa dela aginte makila duten gizonezkoen hankartetik pasatu beharra, baina, pentsatzen jarritz gero, zer da gorputzarentzako eraso okerragoa: bisturi batia ala zakil batia sartzen uztea?".

Igande batez Altzuzan

Inazio Arregi
Oñati

Erromanikotik arte garaikidera jauzia ematea erabaki genuen igande horretan nire lagun batek eta biok. Jauzi zuzen eta garbia tarteko irlarik bisitatu gabe. Kepak Oteiza museoa ikusteko gogoa zeukan eta Aragoiko erromanikoaren hiru adierazle garrantzitsu ikustea erabaki genuen, Oteizaren desokupazioa eta espazio hutsak hobeto ulertu guran-edo.

Naturarekin bat egiten duen museoan izan ginen ikusle goizetik. Biok bakarrik Huescako haran bateko bakardadean, hiru eliza txiki bisitatu. Penintsulako zaharrenetako omen dira, X-XI mendeetakoak. Eraikuntza hutsak, Pirinioetako aire garbiari espazioa lapurtu zieten lau pareta eta kainoi bobedek definituta Olivan eta Lárrede herrixketan. Beste lekukorik gabe, eraikuntza huts horien esangura espirituala antzeman nahian, helburua lortu gabe. Duela mila eta ehun urteko baliabideekin artisauak egindako otoitzera aterpe ikaragarriak, gaur hutsaren hurrengoa guretzat. Glaziar zabal batek sortutako haranean urtetan zehar izandako joan-erori eta borroken lekuo bakartia.

Lehen ikasgaia ondo ikasi gabe oraindik, Altzuzara jo genuen euskal eskulturak eman duen jeniorik handienaren museoa ezagutzen. Han, gelak zaintzen zeuden beltzez jantzitako neskek hausten zuten Huescako lurraldeetan ezagutu genuen bakardadea. Beste inor ez, harik eta Europa erdialdeko batzuk iritsi ziren arte.

Esan behar dut museoa oso deigarria eta ederra dela. Oteizaren obraren adierazle ezin hobe. Sarrerako neskari euskaraz zuzendu zitzaion Kepa eta berak ere horrela erantzun zion, euskaraz egiten ez zuen artista euskaldunaren memoria gordeaz. Fundazioaren inguruaren izan diren iskanbilak ezagutu ondoren, bazirudien azken emaitzak eskultoreak eta bere arteak bertsolariaren hizkuntzarekin izandako lotura gorde nahi zuela euskarari garrantzia emanaz.

Sorpresa geroago hasi ziren. Aipatu ditudan Europa erdialdeko horietako batek gaztelera ezagutzen zuen eta hizkuntza garbi batean galduen zion zaintzaile zegoen neska bati, ea non zegoen Aita Donostiaaren oroitarria. Neskak ez zekiela. Museo barrukoaren berri bai, baina handik kanpora zeuden eskulturak ez zituelar ezagutzen. Esan behar dut

Ezker Batua, programari zintzo edonola

Ander Rdz. Lejarza (Ezker Batuaren izenean) > Arrasate sier Mujikak bere mehatxuak bete ditu. Horrela jakinarazi zidan gure artean izandako bileran, edo Ezker Batuak iritzia aldatzen zuen edo komunikabideetara joko zuen. Eta guk ez daukagunez ezer ezkutatzeko, hori egitera animatu nuen.

Kontuak kontu, pasa zen asteko GOIENKARIAn gutuna argitaratu zuen EBren kontra eginez eta, bereziki, nire pertsona deskalifikatuz. Ez da nire asmoa bere adierazpenei erantzutea, gertatutako azaltzea baizik. Zeren eta Asier Mujikak oso balore altuak erabiltzen ditu bere gutunean, "herriarekiko sentsibilitatea, gertutasuna, zerbitzua, etika, eta abar", baina jakinean nago jende gutxik ulertu duela zertaz ari zen, bere interes pertsonalak izan ezik. Hortaz, dena azaltzeko beharrean ikusi dut neure burua.

Asier Mujika Olandixo (Caja Laboral-eko goiko aldean) eremuaren jabeen familiakoa da, eta bere xedea ez da bakarrik dauden etxebizitzen kontsolidazioa lortzea — honen kontra EBk ez duka ezer — pribilegiatuentzako txalea egitea baizik. Azken helburu hau lortzeko, lurzoru ez hiritargarria hirilur bihurtu nahi dute. Kontuan hartzeakoa da bere lurzoruen salneurria % 1.200 igoko litzatekeela. Pasa zen asteko osoko bilkuraren Ezker Batuak bakarrik, PSEk eta PPk ere ezetza eman zioten.

Ezeta emateagatik Asier Mujikak "jarrera itxia, entzungorra, mendekatzailea..." daukadala leporatu dit bere gutunean. Ezker Batuaren hauteskunde programan honako hau irakur dezakegu: "Bigarren bizileku sustapena atzeratzen babestutako etxebizitzari lehentasuna emanet, pertsona askok lehenengo etxe batera sartu ezin duten bitartean. Euskadi lurzorua hain urria den lekuak izanik, natur baliabidearen ustiapen onena egin, okupazio txikiak bermatzu". Hortaz, "Ezker Batua, oposizioa edonola?". Ez. Ezker Batua, programari zintzo edonola.

gelan bertan zeudela oroitarri honi buruzko azalpen guztia. Gehiago ere izan genuen, Kepak liburu-dendara jo zuenean *La ley de los cambios* liburuaren bila. Hango ardura-dunak ere ez zeukan liburu horren berri, nahiz eta eskultorearen etxeko erakusketa ale bat egon mahai gain batean.

Beharbada igande arratsal-deetan pertsonal titularraren ordezkapenak egiten aritzen direnak izango ziren han zeudenak, baina pentsatu nuen Oteizak ez zuela horrelakorik merezi. Horrela izatekotan hobe zegoela bere museoa Aragoiko eliza erromanikoak bezala. Bakarrik, iraganaren lekuo, artistaren obra barruan, baina zaintzailerik gabe.

Bukaeraren hasiera

Irati Arantzabal Zuloaga
(Etxerat-en izenean)
Debagoiena

"Bukaeraren hasiera"; hau da Zapatero espainiar estatuko presidenteak pasa den asteburuan ETA erakunde armatuarri buruz iragarritakoa. Hau botatzeko bere arrazoiaik

izango ditu, edo ez. Nik, behintzat, ez dakit, eta hau ez da une honetan niri dagokidan eztabaida.

Baina badauzkat besta egoera latz batzuei buruzko galderak berari eta bere ingurukoei egiteko. Noiz izango da gure senideek bizi duten egoeren bukaeraren hasiera? Adibide batzuk ematearren, osasun larri eta sendaezinak izan eta presoaren berehalako askatza edota aspaldi beteta izan espetxe zigorra eta kasu honetan ere askatza. Tratu duin eta begirunezko jasotzeko eskubidea, komunikazio, hizkuntza eta hezkuntza eskubidea...

Herri honetan ematen diren biolentzia egoera guztiek kezkatzen naute, eta horregatik Balza Barne sailburuak botatakoari zertxobait gehitu nahi diot. Hau ere ETAri zuzendu zitzaion "biktimarik" gabeko hiru urte hauke ez ditzan bertan behera utzi. Oso esaldi interesgarria iruditu zitzaidan; izan ere, ez baine-kien hiru urte generatzala biktimarik gabe.

A! Ulertu dudala uste dut, "biktima" hitzaren benetako esanahiaz ariko gara; izan ere, horren arabera batzuk bakarrik daude kategoria honetan. Eta ez dira, adibidez: Karmele Solagu-

ren (jada kalean dagoen Ekain Gerra, bere semea, ikustera zihoala auto istripuz hildakoa); Oihane Errazkin eta Kotto (biek bere buruaz beste egin zuten espeltean, honen aurka inork ezer egin gabe); Angel Berrueta (polizia nazional batek eta honen semeak hil zuten M-11ko atentatuaren ostean sortutako giroaren ondorioz); Leo Esteban (preso zegoen bere anaia Esteban Esteban Nieto ikustera zihoala izandako auto istripuren ondorioz hanka moztu eta ondorioz hildakoa); Unai Romano (ikaragarrizko tortura basatiak jasan ostean bere kasua artxibatua izan da, eta gainera bere aurka joango da orain tortura salaketa jarri izana; baina ez al ditugu denok ikusi eragin zizkioten ubeldurak, golpeak...); Jon Agirre (25 urte egingo ditu aurki preso eta oso gaixo egon arren preso darrai); Iñaki de Juana Chaos (epaitua izan zen kode penal zaharrarekin ezarri zitzaion espelte zigorra oso-osorik duka betea, baina eskutitz bat aitzakiatzat hartuta preso jarraitzen du epaiketaren zain), eta gauza bera egin nahi diote Unai Paroti. Eta astebururo-astebururo bi estatuen errepi-deetan barrena murgiltzen garen senide eta lagunak? Guere estatuen biolentziaren biktimak gara, Balza jauna!

Hiru urte hauetan emanda-ko gertaerak dira hauak, ez ditut nik asmatu, beraz ez dadila mesedez inor etorri biktimarik ez dela egon esanez, lotsagarría, izugarrizko errespe-tu falta adierazten duelako horrek. Baina hori zer den ez dakienarentzat ez dago ezer eskatzerik! Ez gaitezen hipokritak izan eta onartu dezagun behingoz herri honek historikoa den gatazka politikoa bizi duela eta horren ondorioz biktimak daudela, baina tamalez bi aldetako biktimak. Ez al dut banik surfitzen maite dudan pertsona ikusteko ehunka kilometro egin beharra daukan-dean; ni etxeen nagoen bitartean bera nola egongo den ez dakidanean, bere bost minutuko deia amaitzean geratzen zaidan hutsunearekin? Eta ni bezala herri honetako ehunka familia, jakin badakigu-lako gaur egungo espelte politikak ez dituela gure senide presoen eskubideak bermatzen, badakigulako ziega ilun horien lau parenen artean nolako eskubide urraketa etengabeak emateen diren.

Gure errealtitatea da hau, hori ezin digu inork ukatu, norberak pairatzen duena norberarena da, norberarena bakarrik. Baina denon ardura da honekin amaitzea eta egoera latz hauetan behingoz bukaera ematea. Eta hasi gaitezen kalteturiko alde denak onar-

tzen, biktima guztia kontuan hartzen. Horrela soilik emango delako gatazka honen konpon-bide politiko, demokratiko eta behin betikoa izateko aukera, kontrakoak ez luukeelako benetan balioko.

Gugandik urrundua izan zaretenoi, baina gure bihotzko txokorik goxo eta beroenean zaudentenontzat laztan bat. Maite zaituztegulako edozein baldintzatan alboan izango gaitzue!

Bolukoendako irtenbidea?

Mikel Arantzabal
Bergara

Bergarako Zabalotegiko bizilagunak haserre daude. Hurrengo urteetarako Arau Subsidiarioekin dabil Udala eta Bolu auzoko trafikoa Zabalotegitik bideratzea aztertzen dihardu. Zabalotegi-koek ez dute euren kalea bihurtu nahi Bolutik Artza-mendirako bide nagusi. Alde horretatik, ulergarria da Zabalotegikoan haserrea.

Baina beste alternatibarik bida? Demagun etorkizunear Bergarako alde zaharra oinezkoendako bihurtu nahi duela Udalak. Arrazoizkoia iruditzen zait hori; izan ere, orain lotsagarri daude San Martin plaza eta alde zaharreko beste kale batzuk.

Hori horrela, nondik bideratu Boluko trafikoa? Masterrekatik? Herriko saihe-bide nagusi bihurtu behar dira Masterreka, Zubietar...? Zer esango dute hango bizilagunek? Bideragarria da? Gauzak horrela, niri ez zait hain okerrekoia iruditzen Zabalotegiko irtenbidea. Horrela, sikiera, Boluko trafikoa Masterrekaren eta Zabalotegiren artean banatuko litzateke.

ZUZENKETA

Izenburu desegokia

Joan zen asteko GOIENKARIAN, 11. orriko Plaza sailean, Batasunaren ize-nean Aitor Arantzabalek idatzitako artikulua argitaratu genuen. Izenburu honekin argitaratu zen artikulua: *Borroka prozesu baten mehatxuak eta aukerak*. Egileak izenburu bezala aukeratutakoa beste hau zen, ordea: *Gatazken konponbidea: borroka prozesu baten mehatxuak eta auke-rak*. Luzea zela-eta, laburtu egin behar izan genuen, baina artikulua-ren egileak eskatu digu jakinazteko irakurleei zein zen berak aukeratutako izenburua. Argitura, beraz.

Ziorla Autoak



Zabaldu berria
Salmenta eta tailer zerbitzua

Musakola auzoa 21 (Roneo ondoan) ARRASATE

Tel: 943 77 01 44



ERREFORMA HENDIAK
DESKONTU HENDIAK
%50 ARTE



**centro
hogar
MUEBLES**

Zigarrola 1, 6. pabilioia
Tel.: 943 77 14 92



www.grupo-aeme.com • grupoam@grupo-aeme.com



Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABAleta / 943 79 24 58
www.baster-alde.com

Eskaintza

- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkaleku

Astelehenetan itxita



Dragon Oriental

Araba etorbidea 3 (Super BM ondoan) / ARRASATE
943 79 85 33

Txinatar jatetxea

Eskaintza

- 140 lagunendako jangela
- Aparkaleku ezin hobea
- Janaria etxera eramatzen dizugu

Eguneko menua eta karta



Eguzkitza erretegia

Eskaintza Arane Erreka 30 / BERGARA
943 76 97 01

- Eguneko menua
- Karta
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak

Berezitasunak

- Behi txuleta
- Bakailaua

Martitzetenetan itxita



Gure Ametsa jatetxea

LEINTZ GATZAGA
943 71 49 52

Eskaintza

- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

Astelehenetan itxita



Taberna-Berri jatetxea

Durana 24-26 / ARETXABAleta
943 79 20 67 / 943 79 49 41

Eskaintza

- Menua
- Enpresa bazkariak
- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak
- Bi jantoki: 80 eta 150 lagunendako

Berezitasunak

- Bakailao entsalada epela
- Oreina Oporto saltsan
- Arrain parrilada



Tartufo jatetxea

Eskaintza San Juan auzoa / BERGARA
943 76 35 51

- Familiako bazkariak
- Kintadak dantzaldiarekin
- Eguneko menua eta karta berezia
- Aparkaleku ezin hobea
- Bi jangela: 100 eta 55 pertsonendako

Berezitasunak

- Arrainenetan aukera zabala
- Oreina eta txuleta txingarretan erreta

Egunero zabalik 5:30etatik aurrera



Zott jatetxea

Eskaintza Zubillaga auzoa 1 / OÑATI
943 78 35 45

Eskaintza

- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

Berezitasunak

- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Igandeetan itxita



Unzueta jatetxea

Zabola auzoa / ARAIA
945 44 50 95

Eskaintza

- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

Berezitasunak


- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

Egunero zabalik



Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-33 Eskoriatza > 34-35
Antzuola > 36 Aramaio > 37 Elgeta > 38 Leintz Gatzaga > 39



> ARRASATE
Gameiko langileen etorkizunaren gaineko zalantzak argitzea > 18



> BERGARA
Herriko arau subsidiarioen gaineko alderdien iritzia > 24-25



> ARETXABAleta
12 milioi euroko aurrekontua onartu du udalbatzarrak > 31



> GATZAGA
Garraio batzordea Foru Aldundiaren erantzunaren zain dago orain > 39

ANTZUOLA, ELGETA ETA LEINTZ GATZAGA > GIZARTE ZERBITZUAK

Gizarte zerbitzuetarako sortuko dute mankomunitatea hiru herri txikik

HELBURUA Hiru herrietako gizarte zerbitzuak zuzentzea, garatzea eta bultzatzea izango da helburua

DIRULAGUNTZAK Diputaziotik urtero 39.000 bat euroko lagunza jasoko dutela espero dute arduradunek

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA Antzuolak, Elgetak eta Leintz Gatzagak gizarte zerbitzuetarako mankomunitate bat eratzeko lanean dihardute. Zehaztasun txiki batzuk adostea eta mankomunitatearen estatu-tuak hiru herrietako udalbatzarrak onartzea besterik ez da geratzen. Mankomunitateari izena jartzea ere falta zaie.

DIPUTAZIOAREN LAGUNTZA Mankomunitate horren helburua izango da hiru herrietako gizarte zerbitzuak zuzentzea, garatzea eta bultzatzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatu du ekimen hori, eta horretarako dirulaguntzak ematen ditu. Hiru udaletako arduradunek espero dute honako dirulaguntza jasoko duela mankomunitateak: 39.000 bat euro urtean.

Diru kopuru hori gizarte zerbitzuetako programa eta ekintzetarako erabili behar da, eta ez pertsonal gastuetarako. Baldintza horixe jartzen du Diputazioak. Bestalde, Udalek aurrekontuaren %5 gutxienez gizarte zerbitzuetarako bideratzea ere beharrezkoa da Diputazioaren laguntza jasotzeko.

TXIKIEK ERE AUKERA Txikiak hain txiki ez izatea da, beste era batera esanda, mankomunitatearen helburua. Hiru herriak batuta zerbitzu hobea eman dezaketen eratuko dute erakunde berri hori. Karmele Korta da gaur egun Elgeta eta Antzuolako gizarte langilea, eta horrelaxe azaldu digu hark: "Adibide bat jartzearren, etxez etxeko zerbitzua enpresa bati kontratatzea aukera izango dugu mankomunitatearekin; aukera hori Leintz Gatzagak, esaterako, ezin izango luke egin bere aldetik".

Esan bezala, gizarte langilea partekatzen dute gaur egun Elgetak eta Antzuolak; horrek, baina, ez du zerikusirik mankomunitatea izango denarekin. Izan ere, gaur egun, udal bakoitza bere funtzionamendua eta aurrekontua dauzka.

BATERATUKO DIREN ZERBITZUAK Bateratuko diren gizarte zerbitzuetako programak honakoak izango dira: etxez etxeko lagunza zerbitzua; Udalaren dirulaguntzak; adin txikikoei erantzuna; erretiratuen elkar-teei eta kooperaziokoei dirulaguntzak emateko irizpideak eta prebentzio eta sensibilizazio programak.



Bi gizarte langile hiru herrietarako

Bi gizarte langile izango ditu mankomunitateak, adostutakoaren arabera. Batek lanegun osoz jardungo du eta besteak lanegun erdiz. Langile horrietako bat izango da Karmele Korta, gaur egun Elgeta eta Antzuolako gizarte langilea dena. Bestea, berriz, kontratatu egin beharko dute; arduradunek espero dute hilabete batzuk barru hastea bigarren gizarte langilea kontratatzea prozesuarekin. Udal bakoitza pertsonal gastuak ordainduko ditu, langileek udal bakoitzean egiten duten lanaren arabera; dedikazioaren arabera, alegia.

ERABAKIA Hiru herrietako udalbatzarrak onartu beharko dute mankomunitatea eratzea.

GOIENKARIA

zerbitzuak**GUARDIAKO FARMAZIAK****ARRASATE**

Astelehena, 20	Ruiz	Maala 31	943 79 14 09
Martitzena, 21	Zabala	Zarugalde 42-44	943 77 16 30
Eguaztena, 22	Azkoaga	Ferrerias 1	943 79 15 15
Eguena, 23	Azkoaga	Iturriozt 17	943 79 79 99
Egubakoitzta, 24	Corcueria	Maisu Aranbarri	943 79 22 26

BERGARA

Astelehena, 20	Zabala	Barrenkale 25	943 76 16 87
Martitzena, 21	Guallar	San Antonio 5	943 76 61 05
Eguaztena, 22	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Eguena, 23	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Egubakoitzta, 24	Camacho	Oxirondo 4	943 76 11 74

ÖÑATI

Astelehena, 20	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Martitzena, 21	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Eguaztena, 22	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguena, 23	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Egubakoitzta, 24	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58

ARETXABAleta

Astelehena, 20	Iturrealde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Martitzena, 21	Iturrealde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Eguaztena, 22	Iturrealde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Eguena, 23	Iturrealde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Egubakoitzta, 24	Iturrealde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43

TELEFONO JAKINGARRIAK**((112))
SOS DEIAK****OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia).....	943 46 11 11
DYA (Orokorra).....	943 46 46 22
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertaiztza	943 53 47 20
Larraldia	112
Osasun etxeak	
Arrasateko ospitala	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramai	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 78 90 27
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Öñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udalzainoak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramai	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63
Bergara	943 77 91 06
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Öñati	943 78 04 11

GARRAOAK

Eusko trenbideak	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate	943 79 12 22
Aramai	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 77 12 64
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Öñati	943 78 03 65
Renfe	943 28 35 99

DEBAGOIENA

Munkomunitatea	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)	943 78 15 12
Mendi nekazaritzako elkartea	943 76 25 47
Nekazaritzako ganbera	943 76 10 15
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak	
Arrasate	943 77 11 43
Bergara	945 76 44 42
Öñati	943 78 36 67

Kiroldegak

Aramai	945 44 53 35
Arrasate	943 77 16 77
Aretxabaleta	943 71 26 28
Bergara	943 76 56 41
Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Öñati	943 71 63 75

Kultura Etxeak

Antzuola	943 76 60 65
Aramai	945 44 53 74
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 71 10 27
Bergara	943 77 91 58

Eskoriatza

943 71 46 88	
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Öñati	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola	943 76 62 46

Aramai

945 44 50 16	
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 71 18 62
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22

Eskoriatza

943 71 44 07	
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Öñati	943 78 04 11

URBANOAK**ARRASATE**

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguina B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, JL Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguina A eta Gorostiza.
Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguina B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, JL Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia,

kale inuesta

Azken asteotako euriborraren igoerak kezkatu egiten zaitu?



Marixabel Mugartza
Langilea
Eskoriatza



Borja Garrido
Langilea
Eskoriatza



Rosi del Palacio
Langilea
Aretxabaleta



Soraya Arquero
Langilea
Aretxabaleta



Mikel Ilundain
Langilea
Aretxabaleta

Bai, horixe, maileguia ordaintzen nabil-eta. Leporaino sartuta ego-nez gero, hilabete bukaneran diruari asko begiratu behar zaio, eta badarrik jende asko oso justu ibiltzen dela.

Nik neuk momentuz ez daukat kargariak eta lasai nabil. Jendea, baina, maileguetara oso lotuta ikus-ten dut eta asko nabari-tuko du, seguru. Gaine-ra, oraindik igotzeko joera dauka.

Bai, kezkatzen nau. Dena doa gora, dena igotzen soldatak izan ezik; KPI besterik ez digute igotzen. Euriborrak beste kontu askotan dauka era-gina eta prezioek gora egingo dute.

Igoera den guztia da kez-kagarria, eta maileguian sartuta nagoenez, kezka-tu egiten nau. Euroa sartu osteko bigarren urtea latza izan zela deritzot eta ordutik hona gora egin dute prezio guziak.

Bai, egia esateko, kezka-tzen hasita nago, maile-guarekin buru-belarri sartuta nabilelako orain-txe. Oso larri bizi gara gaur egun eta sarri nahi-ko justu heltzen gara hila-bete bukaerara.

txaloak eta txistuak



XABI URTZELAI

Zenbait leku, garbiketa beharrean



Bergarar batek deitu digu esanez Irizar jauregiko parkearen zati bat ez dutela garbitzen garbiketa zerbitzukoek. Parkea babesten duen hesia itxi egin zuen Udalak, baina gure irakurleak dio noizean behin komeniko liztaketa-keela hura zabaldu eta garbitzea.

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

"Aldrebeskerixa"

Aldrebes baten ekintza.
-Aixkorriakin ogixa ebaitzen? Oinddio aldrebeskerixa aundi-xauak ikusiko jittuau.



Marrazkia > Jon Iraegi

asteko datua

530

15 egun barru babes ofizialeko 75 etxebizitza zozketatuko dituze Oñatin. Zozketa horretarako 530 lagunen zerrenda onartu dute, behin-behinera-ko. Zerrenda Santa Anan izango da martxoaren 2ra arte, alegazioak aurkezteko.

5 galdera...

Tere Gabilondo

Bedelkarreko presidentea Bergara

1. Lehen baino beherapen indartsuagoak eskain-tzen dituzte orain denda-rieik; egoera asko okertu da?

Gaur egun ez gara batere serioak beherapenekin: Gabone-tako eskaintza dela... Horren ondorioz, guztiz agresiboak dira. Dago errespetu falta saltzeari eta beherapenei, saltzaileen aldetik.

2. Orain arteko neguko beherapen hauek zela doaz?

Gaizki. Kontuan hartuta batzuk daudela azaroan eskaintzak ipintzen, abenduan Gabone-tako opariak eskaintzen... noiz saldu behar dugu? Ez da serioa. Akaso neu saltzaile zaharra naiz, baina gaurko saltzaile gazteen politika ez dut ulertzten. Edo irailean %300 kargatzan dut eta Gabonetan eskaintza ipini, edo, bestela ezin da halako eskaintzarik egin. Gure adinekoen politika bestelakoa izan da: denboraldian saldu dugu, ordaindu ditugu fakturak eta beherapenak dira geratu zaigun generoa saltzeko; azken batean, irabaziak geratzen zaizkigu. Baina orain ez da horrela. Saltokian daramatzadan 35 urte-otan ez da halakorik gertatu.

3. Orokorean, jendeak zertarako aprobetxa-tzen ditu beherapenak?

Denetik erosako, gauza merkeak zein garestiak. Azken batean, guztia merkeago badago... Neuk ere erosiko nuen.

4. Beherapen sasoi jakin horiek indarra galdu dutela esan genezake?

Jakin. Niri Gabon aurreko astean ipintzen badizkidate Gabonetako eskaintzak, horrek esan nahi du Gabonetako denboraldia guri joan egin zaigula. Kontsumitzaileak lehenago erosten du.

5. Bedelkarrek txartel berria atera du; zertara-ko?

Bergararrek Bergaran eros dezaten. Jendea konturatzeko herriko denda txikiak ixten dabiltzala eta herrian kontsumitu egin behar dela; berdin dela hemen edo Gasteizen eros. Gainera, abantailak ere badituzte.



BIRZIKLAPENA > ERABILITAKO OLIOAK BATZEKO POTEAK


Olio-pote diseinuzkoak laster Arrasaten ikusiko ditugu

20.000 unitate inguru
banatuko dizkiete
herritarrei, esperientzia
pilotu moduan.
Orain, Legazpiko
Plasticos Urola fabrikan
dabiltza egiten

UBANE MADERA > ARRASATE

Laster izango ditugu oliaoak batze-
ko poteak, Udalak bideratutako-
ak. Pote bereziak izango dira. Pro-
prio diseinatuta daude etxean era-
bilitako oliaoak batzeko. Hain justu,
orain dela bi urte hasi ziren proiek-

tua lantzen Eskola Politeknikoan,
Diseinu Industriala ikasten zebil-
tzan Jon Alvarez eta Iker Jauregi.
Eta aurten proiektua bukatu
egin dute Josu Perez eta Sara
Aldai ikasleek. Hala, orain pote
horiek fabrikatzen dabiltza Legaz-
piko Plasticos Urola lantegian.
Arrasateko alkateak jakinarazi
digunez, "20.000 ontzi inguru egi-
ten dabiltza. Horiek Arrasatera
ekarriko ditugu eta bizpahiru
hilabetean esperientzia pilotua
egingo dugu herritarrekin". Gai-
neratu digunez, oliaoak batzeko
edukiontziekin frogak egitea fal-
ta da. Izan ere, poteak diseinatze-
az gainera, pote horietan batuko
dut enolatxo jasotzeko edukion-
tziak ere diseinatu dituzte.



PROTOTIPOA Ontziaren erabilgarritasuna lehenetsi dute prototipoa diseinatzeko orduan.



ESKOLA POLITEKNIKOA

24 ORDUKO ZERBITZUA

Olioak batzeko potea eta edu-
kiontzia asmatu duten ikaslee-
tako batek, Sara Aldaik, esan
digunez, "Udalak nahi zuen pote

estandar bat oliaoak batzeko, bai-
na Eskolan erabaki zuten hori
ez zela nahikoa eta potea asma-
tzeaz gainera, oliaoak batzeko
zerbitzu osoa eskainiko zukeen

KONTUAN HARTZEKO

Potearen eta edukiontiaren ezaugarriak

Poteak litro bateko kapazitatea izango du eta trianguluarrua izango da.
Olio-poteen tapa edukiontiak zabaltzeko giltza ere izango da. Modu
horretan, pote hori edukiz gero bakarrik erabil daiteke olioen edukio-
tzia. Hala, saihestu egindo dute beste edozer botatzea barrura. Gainera,
potearekin edukiontzia zabaltzerakoan, barrura sartu eta
beheko aldetik beste pote bat aterako da, berria.

Edukiontiari dagokionez, normalak baino handiagoak izango dira,
barruan poteak husteko mekanismo berezia sartu behar dutelako: bi metro
zabal eta 1,60 metro luze. Udalak aurreikusita du bost ipintzea Arrasaten.

zerbait asmatu behar zela. Hala,
potea eta pote barrukoa batze-
ko edukiontzia, biak egin ditugu.
Eta modu horretan, herritarrek
eguneko edozein momen-
tutan eraman dezakete oliao
edukiontziatarra. Beraz, 24 ordu-
ko zerbitzu eskain dezakegu
sistema berri horrekin".

DISEINUGILE MODUAN

Halaber, eskolakoek gaineratu
dugite oraindik ez diotela izenik
ipini asmakizunari, eta ideia
eurena izan arren, patentea Arra-
sateko Udalaren dela, baina zera
ere esan dugute: "Gustura gaude,
guztia zela egiten duten ikusten
gaudelako. Eta gu diseinugile
moduan azalduko gara".

EKONOMIA > GAMEI LANTEGIA IXTEAR

Gaur, egubakoitza, argituko dute zein izango den Gameiko langileen etorkizuna

Salatu dute gaur egun
akziodunen arteko
egoera hori dela
azken urteotako
adostasunik ezaren
ondorioa eta langileak
egoera horren
"biktima" direla orain

U.M. > ARRASATE

GOIENKARIAk jakin duenez,
oraingo astean, Gamei lantegiko
enpresako batzordekoak (LABe-
ko bi kide, eta ELA, UGT eta
CCOOko kide bana) hiru batzar
egitekoak ziren Gamei lantegia-
ren etorkizuna argitzeo.
"Gutxieneko akziodunek ezarri-
tako blokeoaren aurrean, dago-
eneko sei hilabete irauen duen dra-
ma honi irtenbidea emateko aha-
legina egin gura dugu".



KRISIA Azken urteotako krisi larriak eraginda kolokan dago Gameiren etorkizuna.

XABI URTZELAI

ATZO AKZIODUNEKIN

Gaineratu dugite atzo, eguna,
Gameiko akzioen %3na duten bi
akziodun horiekin batzeko asmoa
zutela enpresako batzordekoek;
euren akzioak Fagorri saltzko
gertu ez dauden gutxieneko akzio-
dunekin, hain zuzen; "Haietan

adostasunen bat lortzeko ahale-
gina egingo dugu. Izan ere, juri-
dikoki legezkoak diren posturak
dituzten arren, postura horiek
Gameiko 55 langileen esperan-
tzak zapuzten dituzte eta uste
dugu beharrezkoak ez den desafioa
dela hori". Horrez gainera, azal-

du digute gaur egungo egoera hori
desadostasunen ondorioz sortu
dela: "Uste dugu gaur egun akzio-
dunen artean dagoen egoera hori
dela azken urteotan existitu diren
borroken eta adostasunik ezaren
ondorio; eta langileak orain
horren biktima izaten ari garela".

GAUR LANGILE GUZTIEKIN

Bestalde, akziodunekin berba egin
eta gero, gaur, egubakoitza, Gamei-
ko gainerako langileekin batzarra
egingo zutela jakinarazi digute;
halaber, esan digute seguru aski
batzar horretan erabakiko dute-
la zer gertatuko den langileekin.

ETXEBIZITZAK

Gobernuko Etxebizitza Sailaren xehetasunak

UBANE MADERA > ARRASATE
Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak
zehaztasunak egin ditu Zerrajeran Arrasateko Uda-
lak egin gura dituen alokairuz-
ko etxebizitzak direla-eta. Bost
zehaztasun egin dituzte. Bate-
tki, argi utzi dute Arrasateko
udalbatzarra ez dela Etxebizi-
tza Sailarekin harremanetan
ipini elkarrekin kolaboratze-
ko. Bestetik, esan dute Etxe-
bizitza Sailak alegazio bat aur-
keztu diola Udalari, planeamendua
aldatzearren abisatu
barik; izan ere, "horren ondo-
rioz, eraikitzeak ziren 108
etxebizitzen obrak, gutxienez,
urtebetean atzeratu dira".

Hirugarren puntuan, zera
ere argi utzi dute: Jaurlaritzak
Udalari aurkeztu dion hitzaren
alternatiboa "Udaleko Hirigintzako Batzorde Informatiboko
ak proposatutakoa" dela.

Horrez gainera, laugarren
puntuan nabarmendu dute
Viesak izaera publikoa duela,
eta ez La Caixak.

Eta azkenik, esan dute
Etxebizitza Sailak beti nahi
izan duela Udalekin kolabora-
tu "batez ere alokairuarekin
lotutako udal politiketan".

HIRIGINTZA > URIBARRIN ETXEBIZITZAK ERAKITZEKO LANAK HASTEAR

Uribarriko ermitak eta santutxoak balioa dutela esan du Jaurlaritzak

Itxaropenaren ermitan
ondare baliagarria
egon daitekeela uste
du Diputazioak

Jaurlaritzako Ondare
Zentroak Andra Marien
Santutxoan babesteko
gomendatu du

UBANE MADERA > ARRASATE
Udalak behin betiko onartu du
Uribarri auzoa urbanizatzeko
proiektua; izan ere, jendaurrean
egon ostean, inork ez du alega-
ziorik aurkeztu.

Hori bai, proiektu horri zen-
bait egokitzapen egin beharko
dizkiotela zehaztu du Hirigintza
Sailak. Horien artean, bi dira
nabarmenenak, Uribarriko eta,
oro har, Arrasateko ondareari
begira duten garrantziarenagatik.

ITXAROPENAREN ERMITA

Batetik, Itxaropenaren ermitak
ondare baliagarria izan dezakee-
la-eta, hura babesteko gomendioa
egin du Diputazioak. Gauza bera
esan dute ermitaren ondoko kan-
posantuaren gainean: obrak egin
arren, ahalik eta gutxiengutxi
beharko litzatekeela, alegia.

Uribarriko Jone Bergaretxe
auzo-alkateak kontatu digunez,
oso antzinakoa da auzoko ermita
edo "goiko eliza", sasoi batean esa-
ten zioten moduan. Peña Santia-
goren *Ermitas del País Vasco* libu-
ruan eta Elizaren zenbait idatzi-
tan azaltzen denez, 1309. urtean
bazuten dagoeneko eliza haren
berri. Bergaretxek esan digunez,
lau zatitan eraiki zuten Itxarope-
naren ermita: "Azkeneko zatian
dorrea eraiki zuten, eta hori izan
zen orain dela bi mende". Peña
Santiagoren arabera, gotikoaren
amaiera aldeko eraikina da eta,
besteak beste, surrealde erroma-
tar interesgarria du. Barruko
dekorazioa eta moldurak, berriz,
XVI. mendekoak dira.



ONDAREA Ermita (goian) eta Uribarriko Santutxoan (behean) zaindu beharreko ondare direla esan dute. U.M.

Egoera aztertu beharko dute zelan jokatu jakiteko

Itxaropenaren ermitari dagokio-
nezz, Udaleko Hirigintza Sailak
zehaztu du obren promotoreak
ermitaren balio arkeologikoaren
gaineko txosten bat aurkeztu
beharko duela; baita ere balio
arkeologikoa zaindu behar horrek
Uribarriko urbanizazio proiektuan
izan dezakeen eragina aztertu
egin beharko duela.

Santutxoari dagokionez,
berriz, Jaurlaritzak hura babestea
gomendatzeaz gainera, diote
obren eraginez santutxoan lekuz
aldatu behar izanez gero, oraingo
lekuak ahalik eta gertuen ipintzea
komeni dela, errepiidearen
ondoan. Horrez gainera, gomenda-
tu dute Euskal Kulturaren Ondare-
aren Katalogoan sartzea.

189 etxebizitza eraikiko dituzte Uribarrin

Uribarri enpresa elkarrekin egingo
ditu Uribarriko lanak. Sukia eta
Gedi enpresek osatzen dute
elkarrekin. Hala, Sukiatik
jakinarazi digutenez, Arrasateko
Udalak erabakitako egokitzapenak
aztertu beharko dituzte eta haien
arabera zehaztu obrak zela egin
eta zer gertatuko den Uribarrin
babestu beharreko ondarearekin.

Obrei begira, berriz, urbaniza-
zio proiektua onartu eta gero,
edifikazio proiektua onartu beharko
dute. Eta hori egin eta gero hasiko
dira 30 etxebizitza eraikitzeko lanak
egiten (baimena eskuratu bezain
laster). Hori lehenengo zatia izango
da; izan ere, guztira, 189 etxebizitza
eraiki behar dituzte: 44 babes
ofizialekoak eta 145 libreak.

ITXAROPENAREN SANTUTXOA

Santutxoari dagokionez, Uribar-
riko auzo alkateak azaldu digu
zela antzina ohitura izaten zen
auzoetan, eliza aldamenetan-eta,
halako santutxoak ipintzea. Hala,
Uribarriko Santutxoan da Uriba-
rriko Andra Mari edo Itxarope-
narena. Are gehiago, 1771ra arte,
uriarriarrek Andra Mari jaiak
ospatzen zituzten, abenduaren
18an. Baino askotan eguraldi
eskasa egiten zuen eta auzoko
baserritar askok jaisteko arazo-
ak izaten zituzten. Hala, erabaki
zuten jaiak Bartolome egunera
aldatzea, "arbiak erein ostera".
Bergaretxek kontatu digu ez
dagoela zehaztuta Uribarriko
Santutxoan noizkoa den, baina
Donostiarrek elizbarrutiko artxiboan,
1700ean bazutela haren
berri. Halaber, ama izan behar
zirenen zaindari dela kontatu
digu: "Inguruko emakumeak
etortzen ziren erditu baino lehen,
erditze ona izateko eskean".

SALAKETAK

Alkatea eta zinegotzi bat kritikatu ditu EBk

A. LASAGABASTER > ARRASATE
Ezker Batuak salatu du era-
kin bateko etxebizitzan bi
egoitza-area izendatzeko EAJ-
ko zinegotzi ohi bat emanda-
ko baimenak ez direla legez-
koak. Eta hari faborezko tra-
tua eman diotela alkateak eta
Hirigintzako zinegotziak. Hitzarmenean eskatzen ziren
hainbat baldintza ez dituzte-
la bete dio EBk.

Hitzarmen horretan, etxe-
bizitzan egin beharreko hain-
bat aldaketa eta etxebizitzaren
jabeek bete beharreko kon-
promisoak adostu zituzten.
Hain zuen, teilaratu berria egi-
teko proiektua aurkeztu eta
obrak egiteko baimena eska-
tu behar zuten. Bada, EBk dio
ez direla bete, eta hala ere, alka-
teak etxebizitzaz kalifikazioa
eman diola jabeari.

Etxebizitzak jabeek,
berriz, diote ez dela izan fabo-
rezko traturik. Jakinarazi
dute teilaratu obra egitea ez
dela euren esku egin, bestea-
k best, Egitam Orokorrak
eragin duelako atzerapen
hori. Gaia argitzeko asmoa-
rekin laster idatzi bat aurkez-
tuko dutela esan dute.

> ODOL ATERATZEAK Martitzena, eguaztena eta eguna dira hitzorduak

Oraingo astean Arrasaten
izan dira odol ateratzeak egi-
ten eta iragarri digute dato-
ren astean ere etorriko dire-
la Arabako Odol Bankukoak.
Hain justu, otsailaren 21etik
23ra izango dira osasun etxe-
an, 16:30etik 20:00etara. Gogo-
an izan, besteak beste, odola
emateko beharrezko dela 18
urtetik gorakoa eta 66 urte-
tik beherakoa izatea eta
gutxienez 50 kilo pisatzea.
Urte berean emakumeek hiru
aldiz eman dezakete odola eta
gizonek, berriz, lau aldiz.



UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIAK
K21
Arotz lanak orokorrean
• Horma armairuak
• Altzariak • Leihoak • Ateak
ALTZARI DENDA
Ikerlekua zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30
ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91 / Fax: 943 76 08 04

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR
García Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 beheha (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxiek

Egur aroztegia

Leihoak

Ateak

Armairu enpotratuak

Armairu-fronteak

Mota guztiako zoruak

Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaik eta aulkia

ZERBITZUAK > LIBURU DENDA ZABALDUKO DUTE

Elkarlanean fundazioak liburu denda zabalduko du Erdiko kalean

Musika eta liburuak salduko dituzte, eta Erdiko kaleko 14. zenbakian jarriko dute saltokia

Hire liburu denda itxi zutenetik, hainbat herritarrek kezka agertu diote Udalari

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
Elkarlanean fundazioak musika eta liburu denda zabalduko du Arrasateko Erdiko kalean, maizta aurretik. Hala jakin dugu asteo. Oraindik argitzean daude beste zehaztasun batzuk, bai-

na asmoa hori dela konfirmatu du fundazioak. Bada, albiste ona da hori Arrasatendako eta ibarra-rendako.

Hire liburu denda itxi zutenean herritar asko arduratuta gelditu ziren, Arrasate mota horre-

tako denda barik gelditu zelako. Izan ere, Hire lagun askorendako Debagoieneko literaturaren erreferentea zen, eta ibarreko irakurle zein idazle askok atsekabe handia hartu zuten albiste horren berri izan zutenean. Hala eman zuten aditzera.

OINORDEKOEN BILA

Hire dendako arduradunek denda itxi zuten erretiratzeko asmoa zutelako, eta argitu ziguten Arrasaten posible zela liburu denda batekin aurrera egitea. Are gehiago, orduan aurreratu ziguten bes-

te denda bat zabaltzen laguntzenko hainbat gestio egiten zebiltza-la, baina ez zuten bestelako azalpenik eman gura izan. Orain argitu dira asmo haiek.

HERRITAREN KEZKA HANDIA


Modu berean, azken hilabeteotan Monterrongo Udal Liburutegira lagun askok jo dute euren kezka agertzeko, eta liburuak erosteko hiriburueta joan beharrarekin ez zeuden konforme. Hortaz, herritarren kezka ikusita, Udal Liburutegiak ere hainbat gestio egin ditu, eta ahots horiek guz-

tiak Udaleko Kultura Sailera heldu ziren, Udalak konponbideari irtenbidea eman ziezaion.

GIPUZKOAKO HIRUGARRENA

Elkarlanean fundazioak herrietan jartzen dituen musika eta liburu saltokiek Elkar izena dute. Hirietakoek, berriz, Megadenda izena dute, baina tamainan handiagoak dira.

Donostian daudenak alde batera utzita, Arrasatekoia izango da Gipuzkoako hirugarren Elkar denda; Bergarako eta Tolosakoak dira beste biak.



BETERANOA Rafael Fernandez Zubiaga-k urte asko daramatza margolanak egiten.

IKER BARANDIARAN

ERAKUSKETA > MARGOLAN ERAKUSKETA HARRESI ARETOAN

Paisaia koloretsuz bete du Harresi aretoa 'Zubiaga' margolariak

Kantabriako Liebana haranean egindako hainbat margolan ditu Rafael Fernandezek erakusgai hilaren 26ra arte

I.B. > ARRASATE
Zubiaga abizenarekin sinatzen duen Rafael Fernandez ez da hasiberria margolanak egiten. Izan ere, 9 urterekin, eskolako arbelean marrazkiak egiten zituen 16 urtekoek kopia zitzaten. Aitak

marrazkiak egiteko abilezia haindia zeukan, eta hark izan ez zituen erraztasunak eta irakaspeneak semeari eman zizkion. 14 urterekin, Bay-Sala irakasle zuela hasi zen olioak margotzen, eta hala jarraitu zuen urtetan.

Zoritxarrez, Bizkaitik Arrasatera etortzearekin bat negozio bat ireki zuen, eta denbora guztia lanean eman behar izan zuen. Hortaz, denbora luzean margotzeari utzi behar izan zion.

42 URTEKO ETENALDIA

Orain dela 9 urte, erretiratu zenean, berriro ekin zion mar-gotzeari, eta ordutik hona hori da daukan zaletasun handiena. Ordutik gaur egunera arte zor-

tzi erakusketa egin ditu, Arrasaten, Urduñan, Gasteizen, Logroñon eta beste leku batzuetan.

Honako hau Zubiagak Arrasateko Harresi aretoan egiten duen hirugarren erakusketa da. Atzo, eguna, inauguratu zuen eta hilaren 28ra arte egongo da ikusgai.

BETI KANPOAN MARGOTU

Zubiagak ez du inoiz estudioan margotzen. Kalera irten edo mendira jotzen du beti, eta han bertan margotzen du. Hala egitea gustatzen zaio. Artista gutxik dute gaur egun oihitura hori. Zubiagaren esanetan, osasuna daukan artean hala jarraituko du.

Harresi aretoan jarri duen erakusketan 34 lan batu ditu guztira, eta gehienak Kantabriako Liebana haranean eginak daude. Horrez gain, badira Toledo eta beste leku batzuetako paisaia ikusgarriak ere.

IKUSKIZUNA

Txitri, Mirri eta Txiribiton, Amaian

I.B. > ARRASATE

Astelehenean eta martitzenean, hilaren 20an eta 21ean hurrenez hurren, Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoek *Trikitraka Trikitron* ikuskizuna egingo dute Amaia Udal Antzokian. Bi emanaldiak 19:00etan izango dira eta ETBk grabatuko ditu.

Astelehenean *Koadro magikoak* izena duen 91. atala grabatuko dute eta martitzenean 92.a, *Ezkontza agentzia*, hain zuzen ere.

Sarrerak euro baten truke salgai daude www.servicixa.com helbidean edo honako telefono zenbakian: 902 33 22 11. Eta jakin badakigu saldu eta saldu dabilzala. Bestalde, bi egunotan antzokiko txarteldegia 16:00etan zabalduko dute.

IKUSKIZUNA


Golden Apple Quartet taldearen ikuskizuna, datorren astean

Datorren domekan, hilaren 26an, Golden Apple Quartet taldeak *Los Golden en serio* ikuskizuna egingo du Amaia Udal Antzokian. 19:30ean izango da, eta dagoeneko sarrerak salgai daude www.kutxa.net helbidean edo honako telefono zenbakian: 943 00 12 00.

Donostiako laukotek flamencoa, opera, zirkoa, mala-barismoa eta txotxongiloak uztartuko ditu.



EGIN TXOTX! sagardotegietan



Saizar

Kale-Zahar auzoa 39 / USURBIL
943 36 22 28

- Urte guztian irekita
- Txotx garaian sagardotegiko menua sagardotegian
- Jatetxean urte guztian kartara
- Igande gauean eta astelehenen eguerdian itxita
- Bertako janaria
- 500 lagunendako lekua eserita
- "Tolare" sagardotegia



Larre-Gain

Larre-gain sagardotegia / HERNANI
943 55 58 46 / 616 28 78 67

- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Bakailoa saltsan, aurrez deitura
- Astegunetan, gauetan bakarrik zabalik
- Egubakoitzetan eta zapatueta egin osoa zabalik
- Domeketan, eguerdira arte zabalik
- Astelehenetan, itxita
- "Tolare" sagardotegia



Iparragirre

Iparragirre baseria / HERNANI
943 55 03 28 / 639 05 33 10

- Zutik edo eserita
- Eguaztenetik zapatura gaez bakarrik
- Zapatu eguerdietan zabalik
- Sagardoa botilan saltzen da
- Autobusak aparkatzeko tokia gordetzen dugu
- "Zabadiz" banataile ofiziala
- "Tolare" sagardotegia



Iturrieta

Iturrieta baseria / Arraga auzoa
ARAMAIO / 605 70 64 51

- Urte guztian zabalik ostegunetik igandera.
- Sagardotegiko menua.
- Bertako janaria.
- 100 lagunendako lekua, eserita edo zutik.



Ixaun

Elosu auzoa / BERGARA
943 85 32 50

- Egubakoitzak, zapatuak eta domekak zabalik
- Sagardotegiko menua
- Baserriko oilaskoa eta arkumea enkarguz
- Bertako janaria
- 55 lagunendako lekua



Elutxeta

Elutxeta baseria / URNIETA
943 55 69 81

- Urte osoa zabalik.
- Apiril bukaera arte txotxetik.
- Astelehenetan itxita.
- Erretegia urte osoan.
- Bertako janaria.
- 200 lagunendako lekua, eserita edo zutik
- "Tolare" sagardotegia



Rezola

Ipintza baseria / ASTIGARRAGA
943 55 66 37

- Urte osoan egunero eguerdian eta gauean zabalik
- Igande gauetan itxita
- Enkarguz: Arkumea eta txarrikumea burduntzira eta arraina parrillan
- Berritua eta handiagoa
- Urte osoan txotxetik eta botilatik sagardoa
- "Tolare" sagardotegia



Otatza

Otatza baseria / ZERAIN
943 80 17 57

- Maiatz bukaerara arte zabalik
- Domeka gaua eta astelehena egin osoa itxita
- Bertako janaria
- Aste bukaera eta jai egunetan egin osoz zabalik
- 170 lagunendako lekua eserita
- Eguerdietan enkarguz zabalik talde handiendako
- "Tolare" sagardotegia



Zabala

Garagartzia baseria / ADUNA / (Andoain eta Billabona artean) / 943 69 07 74

- Urtarriletik maiatz hasiera arte zabalik
- Zapatu eta domeka eguerdietan enkarguz
- Bertako janaria
- Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako III. Sagardo lehiaketako irabazlea 2004an
- Botilak salgai urte osoan
- "Tolare" sagardotegia



BERDINKETA Puntu bat eraman zuen Urolak Iturripetik; gutxienez, Arrasatek beste horrenbeste egin behar du han. GOIENKARIA

ESKUBALOIA > LIDERTZA JOKOAN

Urola eta Ford Mugarri Arrasate, lehenengo postuagatik lehian

Arrasaten 28-28 egin zuten bi talde horiek; Zumarragan erabakiko dute nork agintzen duen txapelketan

XABIER URTZELAI > ARRASATE
Joan den astean Elgoibarri erraz irabazita, norgiehiagoka amaitu eta berehala hasi zen Andoni Arando taldeko entrenatzalea domekako norgiehiagokaren gai-nean berbetan. *Asteleheneko Goienkaria*-ko lankideei esan zien Urolaren kontrako partidua izango dela denboraldiko norgiehiagoka garrantzitsuena. Bainaz ez da

horrela izango, Arrasatek orain-dik ekainera bitartean norgiehiagoka garrantzitsuagoak jokatu behar ditu-eta. Ondo dakigu, baina, Arandok zer esan gura zuen, domekan erabakiko da-eta nor den lider berria.

Lau norgiehiagoka geratzen dira Lehen Territorialeko txapelketa amaitzeko, eta lehenengo bi taldeak sailkatuko dira igoera faserako. Hala, hiru *olar* daude igoera faserako sailkatzeko lehian: Urola, Arrasate eta Donibane. Hiru talde horiek 27na puntu dituzte, baina Urolak partidu bat gehiago jokatu du; atzetik dabil, hortaz.

Geratzen diren lau jardunaldiaren Urolak eta Donibaneak ez dute elkarren kontra jokatuko.

Bai, ordea, Arrasatek eta Donibaneak; azkeneko jardunaldian izango da hori, Urolak atseden hartu beharko duenean.

MONDRA IDIAZABALEN
Beti Gazteren kontura bolada txarrari amaiera emanda, Arrasateko taldeak Idiazabalen gura du berriro ere aurrera begira hasi. Idiazabalgo taldeak sei partidu baino ez ditu irabazi, baina abilak dira zelaian ondo kokatu eta ondo defendatzeari etekina ateratzen, orain arte bederatzi partidu berdindu dituzte-eta. Mondrak, berriz, nahiz eta joan den astean irabazi, ez du sailkapenean gora egin. Erdi-erdian jarraitzen dute.

**KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK**

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

GAK
Garbiketa, Administrazioa eta Konponketak

- Era guztietako garbiketak
- Zuen komunitateko administrazioa
- Konponketa orokorrak
- Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe.

Tel.: 653 70 45 47 OÑATI

ATLETISMOA

Markel Blanco Lasarten lehiatuko da

Mendizorrotzan
urrea eskuratu zuen
joan den astean

X.U. > ARRASATE
Markel Blanco korrikalari arrasatearra Lasarten izango da domekan, Euskadiko Kros Txapelketan. Gazte mai-lako lasterkariaiak 7.500 metroko proban hartuko du esku. Distantzia horretan, Arrasatekoak joan den astean Gasteizen baino tentu handiagoz neurtu beharko ditu indarrak; Markelek urrea erdietsi zuen Mendizorrotzan, baina 3.000 metroko proban izan zen hori (9 minuto eta 27 segundo). Domekan, baina, distantzia bikoitza izango du aurrean.

LANDER ERRASTI, HOBERA

Pertika-jauzian, berriz, Lander Errastik pozik egoteko moduko lana egin zuen Zaragozan egin zuten Espainiako Txapelketan. Arrasatekoak 4,50 metroko jauzia eginda bere marka pertsonala gainditu zuen, eta zazpigarraren postuan sailkatu zen. Hala, entrenatzeko zentro berezieitan dabiltsan atletekin alde-ratzen badugu, Landerrek egindako markak aparteko balioa du, baita orain arte egin duen ibilbideak ere. Alde horretatik, Jonathan Perezek badu ordezkoia.



Markel Blanco.

futbitoa zaldibar

EMAITZAK

Betrayer - AC Surcos	8-5
Berdes Bremen - HLB 108	2-3
Dribling - Abokajarro	3-4
Iriztu Taberna - Irish Pub	6-3
Iluntz - Fuxxion	4-2
Pippol - Arrano Taberna	7-3
THC - Saukelu Scream	3-9
Txoponbeiek - Billy & The Cowboys	5-10
AT Celaya - Tomahawk	10-7

PARTIDUAK

Otsailak 18, zapatau	Epaileak
09:50 Irish Pub - Fuxxion	Abokajarro
11:00 Iluntz - Abokajarro	Irish Pub
12:00 HLB 108 - Aurrera Bolie	Iluntz
13:00 AT Celaya - Txoponbeiek	HLB 108
16:00 Dribling - THC	Tomahawk
17:00 Saukelu Scream - Tomahawk	Dribling
18:00 Lasagabaster - AC Surcos	Saukelu

Otsailak 19, domeka	Epaileak
10:50 Aurrera Bol. - Abokajarro	Billy & The.
12:00 Pippol - Billy & The...	Aurrera Bolie
13:00 Iriztu Taberna - Betrayer	Pippol

SAILKAPENA

	P	J
1. Betrayer.....	22	9
2. Dribling	22	9
3. Arrano Taberna.....	18	9
4. Lasagabaster.....	16	8
5. Iriztu Taberna	16	8
6. Saukelu Scream	16	9
7. Pippol.....	16	9
8. AT Celaya.....	15	9
9. Billy & The Cowboys.....	15	9
10. Irish Pub Dublin	15	9
11. Iluntz	14	9
12. Fuxxion	13	8
13. Abokajarro	13	8
14. AC Surcos	12	8
15. HLB 108.....	12	9
16. Tomahawk.....	6	9
17. Aurrera Bolie.....	6	7
18. Txoponbeiek	6	9
19. Berdes Bremen.....	3	9
20. THC.....	0	9

> XAKEA

Arrasatekoak Santutxun lehiatuko dira asteburuan

Joan den astean Gasteizko Calasanz taldeari 3-1 irabazita, Arrasate San Andres Xake Taldekoak indarberrituta joango dira asteburuan Bilbo alde-ra. Hernandok, Tornayk, Ruizk eta Villarrek osatzen duten laukoteari atzoko postuetara baino gehiago aurrekoetara dabil begira. Kontuan izanda, noski, lehen eginbeharra atzoko postuetatik lehenbailean aldentzea dela. Santutxuk, berriz, putzuan murgilduta egonda, beharrezko ditu puntuak. Eta behar horri etekina atera diezaioket Arrasatek.

> ERRUGBIA

Arrasatek bihar ere kanpoan jokatuko du, oraingoan Zarautzen

Bi jardunaldi jarraian jokatuko ditu Arrasatek Garagartzatik urrun, oraingoan Zarautzen (bihar, 16:00etan). Joan den astean Mungian galdua (30-13), Arrasatekoek ez dute gura berriro ere esku hutsik itzuli. Dena dela, emaitza horrek ez du erakusten Mungiaren kontra gertatutakoa. Partidu parekatua izan zen; arrasatearrak aurreratu ziren, baina bigarren zatian Mungia gehiago izan zen.

kanpotarrak arrasaten

Aurel Gaman > Errumaniarra
Sukaldaria

"Bost mila laguneko enpresatik, ezer ere ez da geratzen"

XABIER URTZELAI > ARRASATE
Umore onez hartu gaitu Aurelek, eta
nongoa den galduetan diogunean zera
bota digu: **hegoamerikarra dela**
dirudien arren errumaniarra dela.
Badira hiru urte Arrasatera etorri
zela, Bilbon urtebetet egin etagero.

Mendiko lanak egiteko kon-
tratuarekin etorri zen Aurel
Errumaniatik Bilbora: "Nik
Kimika ikasketak egin nituen
Errumanian, eta bost mila lagu-
neko enpresan egiten nuen lan.
Jendea botatzen hasi ziren, eta
Bilbora etorri nintzen, zuhaitzak
moztu, basoak garbitu eta lore-
ak landatzera". Eta Bilbotik Arra-

satera, duela hiru urte. Aurten,
berriz, etxera itzuli da oporretan:
"Udan izan nintzen han, eta ikus-
tekoa da lan egin nuen lantegia
zertan geratu den; ez zegoen ezer".

Egun, Aurelek ostalaritzan
egiten du lan: "Sukaldaritzako
ikasketak ere egin nituen, baina
hango tituluek ez dute balio

**"Hegoamerikarra
naizela dirudien
aren errumaniarra
naiz", esan digu,
barrezka, Aurelek**



Aurel Gaman.

hemen". Gaindegia jatetxean dabil
lanean, eta gustura dago. Hori bai,
onartzen du lantegian lan egite-
ak badituela bere alde onak, ordu-
tegiari dagokionez batez ere.
Lana topatzeko dauden zaitasun-
nen gainean ere galduetu diogu:
"Arrasaten lan egin gura due-
nak ez du horretarako arazorik,
ez bada gauza batean, bestean".

BIZITZA MAILA HOBEA

Errumaniako gazteek Alema-
niara, Italiara edo Espainiara
joateko deseatzen daudela esa-
ten du Aurelek: "Baina kontra-
tua lortzea ez da horren erraza.
Eta hainbat hilabete kanpoan
egon eta gero etxera itzuli behar
izaten dute".

Aurel gustura dago Arrasaten:
"Lehen ez nuen inor ere ezagutzen,
baina orain herri erdia
ezagutzen dut". Mendia du gus-
tuko: "Paraje aldetik, Erruma-
niak eta Euskal Herriak antzeko
tasun handia dute. Hiruzpalau
aldiz joan naiz Udalatxera eta bai-
ta Anboto aldera ere".

bere ustez



Nerea Makazaga

Zentroak,
epizentroak
eta hutsak

Errepideak... noranzko-
ak... bidezidorra... eta
galderen epizentroa
puntu bakoitzean eta guztietan.
Azken mapei ari natzaie
so, testu bakar honi zentroa
oparitzeko. Esaldiari zentroa
marraztu, eta berba singleak
jaurti; jaurti eta zentroa jo!
zure zentroa.

Ez dakin zenbat kilometro
urrutiratzen nauten zu
zaudeneko puntutik. Horre-
gatik zaila egiten zait itsu
antzean jaurtiketan hastea,
noranzkorik zehaztu gabe.
Orri zuriak ere ez du lan

argazki zaharra

Langileak Zerrajeratik irteten

Consuelo Azkarragak
kontatzen du liburuan:
*"Aitak esaten auen 8tan faten
ziela lanera Cerrajerara.
8tan, han lehen kanpaitxo
bat auen goixen, eta kanpaitxuek
joten auenian armozten
etxera. Eta, amandriak,
neure amandriak Ferreria-
sen bizi zien eta orduen
sagar-erriek su bajuen erreta,
haretxeik jan eta ariñeketan
barriro lanera. 8:30tan".*

Kanpaitxo haren hotsa
herri osoan entzuten zen
sirena-hotsarekin tartekatu
zuten. Hiru bider jotzen
zuenean, lanera; behin
jotzen zuenean, etxera.

Argazkia: Arrasate, langileek
eraikitako herria liburua.

Urtea: 1920



**"Horregatik zaila
egiten zait itsu
antzean jaurtiketan
hastea, noranzkorik
zehaztu gabe"**

honetan oztopo bat baino
suposatzen, oztopo inplizi-
tua, hutsak dakarren inpli-
zitate izaeran errotua.

Hitzen osteko puntu elip-
tikoen soilik dute bilatzen
ari naizen halako puntzoi
itzura, hedapen sustraiketa,
mapan zuganako azpibideak marrazteko. Baina zuk
hitz kateatuak nahi dituzu,
bide deskriptiboak, mugatuak
(koadro paisaiak), noranzko ezberdinietan gal-
tzeko arriskua ekiditeko;
zuk ere zein koordenadatan
izango naizen ezagutu nahi
duzu.

Gaur presak ez dit
(hitzen) paisaien erliebeetan
izkilaratzen utziko. Ez gal-
tzeko azalpena: lautadan
puntu txiki bat bilatu eta
beste hiru puntu (...) norabideko.



HIRIGINTZA > ARAU SUBSIDIARIOAK

EAJ-EAk bakarrik ikusten du garbi Zabalotegiko errepidearen proiektua

Zabalotegiko auzotarrek alderdi politikoekin hitz egin dute iritzia jakiteko

Gauzak ondo joanez gero, urtebete barru onartuko dituzte arau subsidiario berriak

OIHANA ELORTZA > BERGARA
 Zabalotegiko errepidea da arau subsidiario berrieta zeretan handiena piztu duena. Udalak aukera hori planteatu du Bolu auzoari eta Mariaren Lagundia ikastetxearen goi aldean egingo dituzten etxebizitzei irtenbidea emateko. Momentuz, hala ere, EAJ-EA da irtenbide hori garbi ikusten duen bakarra. "Oraingo eta geroko arazoari irtenbidea emango dio proiektu horrek eta herriarendako aukera egokiena dela uste dugu", dio Josean Etxebarriak, Hirigintza zinegotziak. Gainerako alderdiek ez dute ikusten beharrezkoa auzo horretan errepidea egitea, printzipioz, eta beste irtenbide batzuk ere aztertu behar direla esaten dute.

ARALAR ETA PSOE, BATERA

Aralarrek ez du uste Boluk beste irtenbide baten beharra dueñik, baina higikortasun azterketa egin beharko litzatekeela uste du. Gainera, uste du beste aukera batzuk Zabalotegiko baino hobeak direla, irtenbidea behar izanez gero. Horrekin ados dago Javier Garai PSOEko zinegotzia. Hala ere, ez du hain garbi ikusten Masterreka kalea zabaltzea, Aralarrek proposatzen duen moduan. Haren ustez, "autoak erdigunetik ahalik eta gutxiengas pasatzea lortu behar da eta bai Zabalotegiko errepideak bai Masterreka zabaltzeak ez ditu ibilgailu-



ETXEA BOTA Zabalotegi kaletik Bolu aldera errepidea egiteko, Zabalotegi 2 eraikina bota egingo dute.

ENEKO AZKARATE

JAKINGARRIA**> 8 URTEAN BEHIN**

Azken arau subsidiarioak 1996an onartu zituzten. Datoen 8 urteetarako herri ordenamendua arautuko dute berriek.

KOSTUA

Oraindik ez dute projekturik egin eta momentuz ez dakite ze kostu izango duen

luak erdigunetik apartatuko". Horren ordez, Zabalotegi gaineztik errepidea egin daitekeen aztertzea planteatzen du.

ZENBAKIA

42

42 iradokizun aurkeztu dizkiote herritarrek arau subsidiarioen lehendabiziko proposamenari. Udalak guztiak aztertuko ditu orain, eta behin-behineko proiektua apirilean erakutsiko du.

ETXEBIZITZAK DIRA ARAZOA

Ezker Batuko zinegotzi Andres Diezek ere ez du, momentuz, arazorik ikusten. Arazoa gero egin

gura dituzten etxebizitzek ekarriko dutela uste du. "700 etxebizitzak daude hutsik herrian eta horiek bete behar dira berriak egin baino lehen", esan du. "Gainera, etxebizitza gehienak libreaiz izango dira, ez babestutakoak", zehaztu du. Hala ere, dio Zabalotegiko errepidea ez dela irtenbiderik egokiena. "Tranbia ere egingo dute gero, eta bide guztiak toki berera joango dira", gaineratu du.

Angel Santano PPko zinegotziak ez dio logikarik ikusten 1.200 etxebizitzak egiteari, "gero eta jende gutxiago bizi delako Bergaran". Bestalde, Zabalotegiko

proiektua errepideez gehiago ulertzen duten bere alderdikideen eskuetan utzi du, aztertzeko. Errepideak nori eta zenbaterainoko mesede egiten duen ere aztertu behar duela esan du, eta gero hartuko duela erabakia.

Bergara Aurrerak kritikatu du Udalak denbora asko pasa duela arau subsidiario berriak landu gabe eta bi hilabeteko epea bakarrik jarri duela iradokizunak aurkezteko. Parte hartze eza ere salatu du herri ekimenak. Jesus Mari Garitanoren hitzetan, "lurra dugun ondasun baliagarriona da eta etxebizitzak egiteko berkalifikazioekin bukatu

ETXEERRIA**ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA**

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

ANTIA**HARATEGIA URDAITEGIA**

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

OGIZUN koop. elk. okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13

egin behar da, zoramena delako. Industriekin ere, nekazari-tzarako balio gutxien duten lurrik erabili beharko lukete". Zabalotegiko proiektuaren inguruau, kale horren bi muturretan topo egiten duten errepideak nola elkartuko dituzten galdezen du, "desnibel handiak daude eta toki gutxi bidegurutze dezentea egi-teko". Gainera, trafiko neurketa egitea eta beste irtenbide batzuk bilatzea proposatzen du.

EZOHIKO OSOKO BILKURA

Zabalotegiko errepideak ekarri duen sokaren harira, ezohiko bilkura egiteko asmoa dute Aralar, Ezker Batua, PSOE eta PP alderdiek. Ezohiko osoko bilkura egi-teko zinegotziak herena behar da, gutxienez, eta lau alderdi horietako zinegotziak herena osatzenten dute. Oraindik ez dakite noiz egingo duten.

Ezohiko osoko bilkuraren gaia Zabalotegiko errepidea izango da eta auzokideak ere gonditatu gura dituzte. Javier Garai PSOEko zinegotziak esan digun moduan, "horrelako osoko bilkuran herritarrei ez zaie hitza ematen eurek gura duten beste, eta agian hobeto izango litzateke alderdi bakotzeo eta auzoko ordezkarien artean bilera egi-tea". Hala ere, ezohiko osoko bilkuraren alde dagoela esan du.

Bitartean, Zabalotegiko auzotarrak alderdi politikoekin bilerak egiten ari dira euren iritzia jakin guran. Alkatearekin berba egiteko gogoa ere badutela esan dute auzotarrek. "Urtarrilaren 16an eskatu genion bilera egiteko, 30eko osoko bilkuran hitz egi-teko gertu zegoela esan zigun, baina harrezkero ez dugu gehiago jakin", gaineratu dute.

HEMENDIK AURRERA, ZER?

Arau subsidiario berrien lehen-dabiziko zirriborroa aurkeztu du Udalak. Orain, aztertu egingo ditu jaso dituen iradokizunak eta emaitzekin beste proiektu bat aurkeztuko du. Hirigintza zinegotziak esan digunez, "apirilean aterako dugu behin-behineko proiektua". Hori aurkeztu ostean beste epe bat zabalduko dute alegazioak aurkezteko. Berriro aztertuko dituzte alegazio horiek eta hurrengo proiektua behin betikoa izango da.

Eperik ez dute jarri oraindik, baina prozesuak luze joko du ziurrenik. "Beste urtebete bai, gutxienez", dio Josean Etxeberria Hirigintza zinegotziak.

"Bergararen onurarako egin gura dugu herri ordenamendu berria, eta hori izango da arau subsidiario berrien oinarria"

JOSEAN ETXEBERRIA > EAJ-EA

"Masterreka kalea zabaltzea aukera hobea izan daiteke; aukerak aztertu behar dira, baldin eta arazoa baldin badago"

INIGO IÑURRATEGI > ARALAR

"Etxebitzitza berriak eginez gero sor daiteke arazoa, baina hutsak bete behar dira lehenengo; irtenbidea gero aztertu behar da"

ANDRES DIEZ > EZKER BATUA

"Boluk behar du beste irtenbide bat, baina beste aukera batzuk ere aztertu behar dira; errepidea goragotik egitea, adibidez"

JAVIER GARAI > PSOE

"Zabalotegiko irtenbidea arraroa iruditzen zait eta aztertu egin behar dut nortzuk ateratzen diren irabazten"

ANGEL SANTANO > PP

"Denbora asko pasa du Udalak arau subsidiario berriak egin gabe eta bi hilabeteko epea soilik iradokizunetarako"

J. M. GARITANO > BERGARA AURRERA



OIHANA ELORTZA

Frontoiak konponduko dituzte

Herriko frontoiak berritu eta konpondu egin gura dituzte, tartean erdigunean dagoen herri pilotalekua. Arkitektoek egoera aztertu dute: estalkiak amiantozko xaflak ditu eta kendu egingo dituzte, itoginak konponduko dituzte, aldagelek banaketa berria izango dute eta hainbat eserleku aldatu egingo dituzte, besteak beste. 2006an egin gura dituzte lan horiek. Baina horrekin batera, auzotako frontoiak ere berritu gura ditu Udalak. Aste honetan, adibidez, Angiozarkoa konpondu dute eta Osintxukoa aztertuko dute laster. 12 frontoi daude guztira.

> EHNA
Dendariei zuzenduta dago otsaileko EHNA egiteko eguna

Dendariei zuzenduta dago otsaileko EHNA eguna. Azaroan lantegietara bideratu zuten mezua eta otsailean dendariei bideratuko zaie. Hala ere, gura duen edonork egin dezake. Eguna, hileko azken zapatua da, otsailak 25. Irizar jauregian egingo dute, goizean, eta eraman behar da: hiru argazki txiki, padroi agiria eta 15 euro.

> PRESOAK
'Aska' omenduko dute domeka iluntzean herriko plazan

Mikel Askasibar Aska-k 15 urte bete ditu espetxeen hilaren 9an. Domekan omenaldia egingo diote plazan, 19:00etan. Bestalde, Iñaki Arietaleanizbeaskoa *Bixkai* berriro eraman dute Osnyra. Eta Ane Miren Alberdi *mitard*-ean sartu da protesta egiteko, beste emakume preso batek funtzionarioengandik jasotako tratuagatik.

> OSASUNA
Erretzeari lagatzeko ikastaroa egingo dute martxoan

Erretzeari uzteko ikastaroa antolatu du zazpigarren aldiz Udaleko Gizarte Departamentuak. Interesa dutenek bertan eman behar dute izena. Martxoaren 10ean eta 11n egingo dute ikastaroa eta 290 euro ordaindu behar da parte hartzeko. Aurreko sei ikastaroetan 99 lagunek hartu zuten parte eta horietatik 63k utzi zioten erretzeari.

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegarieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

K O N D E PANADEROKUA



Burdinatze 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

disdira

ile apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

MUSIKA > EMANALDIAN BANDAKO ETA ORKESTRAKO 114 LAGUNEK HARTUKO DUTE PARTE

‘Saturday night fever’, datorren egubakoitzean Udal Pilotalekuau

Aratusteei hasiera emanet, Udal Musika Bandak eta Orkestrak kontzertua eskainiko dute

Andoni Calles arituko da Tony Manerorena egiten eta Arantzazu Agirre izango du bikotekide

EDU MENDIBIL > BERGARA
Aratusteei hasiera emanet, Udal Musika Bandak eta Orkestrak kontzertua eskainiko dute datorren egubakoitzean Udal Pilotalekuau, 22:30ean.

Bandak 19 urte daramatz Aratusteetako kontzertua eskainzen eta Orkestra Sinfonikoa gehitu zaio azken urteotan. Dagoeneko hainbat herrialdetako giroa

eta doinuak ekarri dituzte Aratusteetan: Errusia, Brasil, Frantzia, Italia, Austria... Aurten *Saturday night fever* filmean oinarritutako ikuskizuna egingo dute Udal Pilotalekuau.

FRONTOIA, 'DISKOTEKA'
Saturday night fever filmak (1977) arrakasta nabarmena lortu zuen mundu zabalean. Tony Manero-

ren rola egiten John Travolta aktoreak goia jo zuen filmarekin. Imitatzaileak ez zaizkio falta izan ordutik hona. Egubakoitzean Andoni Calles soraluzetarra arituko da Manerorena egiten eta Arantzazu Agirre izango du bikotekide Frontoiko *diskotekan*.

Emanaldian Bandako eta Orkestrako 114 lagunek hartuko dute parte. Kontzertuaren lehenengo zatian Bandak honako piezak eskainiko ditu: *Aquarium* (De Meij), *Big Bands in concert* (Lowden) eta *Aratusteetako dantzak* (herrikoia). Jarraian, Orkestrak Carpenters taldearen hainbat kantu joko ditu. Alfredo Gonzalez Chirlaque zuzendaria egin du kantuen moldaketa.



Filmeko kartel bat. GOIENKARIA

Kontzertuaren amaieran Bandak eta Orkestrak batera eskainiko dute *Saturday night fever* ikuskizuna. Esan bezala, *diskoteca* bihurtuko da Udal Pilotalekuau kantxa eta Banda eta Orkestrako kideek bertan egingo dute antzerkia eta dantza.

DIRUA, SAHARAREN ALDE
Kontzerturako sarrerak 5 eurotan salduko dituzte. Kultur etxean eta Lazcano oinetako denden salgai daude dagoeneko. Azken urteotako ohiturari jarraituz, ekintza solidario baterako bideratuko dute batutako dirua. Aurten batutako dirua Saharara bideratzea erabaki dute antolatzaileek.



IRATI AGIRREAZALDEGI

Amodiozko Gutunen Lehiaketako irabazleak

Amodiozko Gutunen Lehiaketako sari banaketa egin zuten martitzenean kultura etxearen. Ohiturari jarraituz San Valentín eguna aukeratu zuten Jardun elkartekoak aurtengo irabazleak saritzeko. Jende dezente izan zen ekitaldia jarraitzen. Musikaz lagunduta, irabazoleek saritutako gutunak irakurri zituzten eta ondoren luntxa izan zen gerturatuendako.

Argazkian, martitzenean saritutakoak. Ezkerretik eskumara, Karlos Aizpurua irabazlea, Nerea Urtzelai bergararra (irakurle gazteen saria), Alaitz Sarasola (iazko irabazlea eta epaimahai-kidea) eta Oier Bolibar (Bergarako gutunik onena). Nagore Etxabe zarauztarrak (2. saria) eta Eider Andresek (SMS bidezko mezuen irabazlea) ez zuten ekitaldira etortzerik izan.


LEHIAKETA

Murgizuren kartela Aratusteak iragartzeko

E.M. > BERGARA
Jesus Murgizu Ezpeletak irabazi du Aratusteetako Kartel Lehiaketa. Bederatzi lan aurkezta ziren lehiaketara eta epaimahaiak Murgizuren lana saritzea erabaki du. Jesus Murgizuk 300 euroko saria jasoko du.

Aratuste-zapatauan, hilaren 25an, Pirritx eta Porrotx pailazozen *Maite zaitut* ikuskizuna izango da pilotalekuau, 16:30ean. Sarrerak kultura Etxean eta Elkar liburu denden daude salgai.

ORGANO EMANALDIA BIHAR
Bestalde, Organo Errromantikoaren Zikloaren barruan, bihar, zapatua, Easo abesbatzak eta Oscar Candendo organo-joleak kontzertua eskainiko dute San Pedro parrokiian, 20:00etan.



mena, Mariasun land EDUAR

Etxerako ederrena, *Zanguitun*



deco-tex

ZANGUITU alfonbrak

Herri lagunak 4 **BERGARA**

Tel.: 943 76 08 69

- Alfonbrak
- Alfonbrak neurrira
- Funda nordikoak
- Edredoiaik
- Kortinak
- Toailak
- Izarak

ZANGUITU margoak

Irala z/g **BERGARA**

Tel.: 943 76 19 54

IRU margoak

Araba etorbidea 3 **ARRASATE**

Tel.: 943 79 11 71

- Parket flotatzailea*
- Sintasola*
- Moketak*
- Paper pintatuak

* Salmenta eta etxeen ipintzea.



Ohitura



Kultura



Natura



Angiozarko Eskola

nork bere erritmoan, nork bere mailan



Teknologia berriak



Elkarri lagunduz



Elkarrengandik ikasiz



Elkarrekin haziz



FUTBOLA > ERREGIONALA

"Intentsitatez jokatzen badugu Ondarroa ez da contrario; han ondo irabazi genien"

Joan den astean Mundaroren kontra gehiago merezi izanda ere esku hutsik itzuli ziren bergararrak (2-1); eta Ondarroaren kontra gura dute arantza atera, Azkoagainen

XABIER URTZELAI > BERGARA Jardunaldiek aurrera egiten duten neurrian, Zumaiako, Urola eta Bergara dira Preferentera igotzeko apustu sendoena egiten dabilzanak. Hiru talde horiek agintzen dute sailkapenean, beste askok baino partidu bat gutxiago jokatuta. Eta, hiru talde horiek etxeen jokatuko dute asteburuan. Bergarak azkenaurreko postuan dagoen Ondarroa hartuko du, eta Josu Zubiaren esanetan, talde hori ezin da contrario izan: "Erregionalean denetik ikus dai-teke, eta inork ez daki zer gerta daitekeen. Hori bai, guk intentsitatez jokatzen badugu, talde hori ez litzateke contrario izan behar; euren etxeen ere ondo irabazi genien".

Mahoneroek Preferentea dute buruan, eta Zubiak ondo baino



INTENTSITATEZ Erretratu moduan, Bergarak gogotsu jokatzen badu Ondarroa ez da contrario izango.

GOIENKARIA

hobeto daki kategoria horretara igotzeko zortea aldeko izatearekin batera akats gutxi egin behar direla: "Esango nuke gehienez bi norgehiagoka gal ditzakegula; eta, hori ezin da Ondarroako taldearen kontra izan".

HIRU JOKALARI FALTAN

Bergarako entrenatzailak ez du aparteko arazorik izango Ondarroaren kontra hamaiakoa egiteko: "Dobao eta Martin zigortuta daude, eta Txanpi badabil politiki-poliki errekuperatzen. Dena

dela, esango nuke beste batzuek baino talde sendoagoa daukagua. Hau da, ordezkoek ere maila ona ematen dutela. Beste talde batzuek, berriz, ez dute hamaiakoa aldatzen, eta horrek badu bere arriskua".

ARKU TIROKETA > EUSKADIKO TXAPELDUNA

Asteburu biribila Fernando Markinarendako Amurrian

X.U. > BERGARA

Fernando Markinak asteburu biribila izan zuen joan den asteburuan. Zapatuan eta domekan lehiatu zen, eta bi egun horietan egindako lanari esker, arku-lari bergararrak bi titulu eskuratu zituen. Areto barruan egiten duten XVII. Euskadiko Txapelketan jardun zuen, eta zapatuko jardunaldian hirugarren sailkatu zen (polea modallitateko arkuarekin). Marka horrek beterano onenaren saria

eman zion. Domeka goizean, berriz, Euskadiko txapeldun absolutua erabakitzeko kamporaketak gaindituta finalerako sailkatu zen, eta baita txapela bereganatu ere.

ARKU TIROKO IKASTROAK
Gezi Bat taldeak arku tiroketa-ko ikastaroa jarri du abian, 12 urtetik gorakoendako. Interesa duenak 943 76 42 04 edo 615 76 83 24 telefono zenbakian izango du informazio zabalagoa.

> GIMNASIA ERRITMIKOA
Astigarragan Ariznoa taldeko alebinak eta kadeteak onenak

Gipuzkoako Txapelketako lehenengo fasesa egin zuten joan den astean, eta, Ariznoa taldeko gimnasten lan ona kontuan hartuta, azpimarratzeko da alebinez eta kadeteek taldeko ariketan lortutakoak; bergararrak lehenak izan ziren bi kategoria horietan. Eta ezin ahaztu Lide Toledo eta Usoa Toledo sokarekin egindako lana; ezta gazte mailan Virginia Odriozolak, Sarai Ruiz edota Izargi Vegak erakutsitako maila ere.

> ESKUBALOIA
Hondarribiako garaipenari balio erantsia eman guran

Joan den astean, Lehen Territorialean dabilen Bergarak puntu baliotsuak ekarri zituen Hondarribiatik (28-31). Garaipen hori, baina, hankamotz geratuko litzateke bergararrek bihar etxeko zaleen aurrean kale egiten badute. Etxekoak zapigarren postuan daude, Urnieta-rekin berdinduta, eta bosgarren lekuaren dagoen Usurbil izango da bihar Labegaraietan bisitari (17:45). Bergara ezin da igoera faserako sailkatu, baina txapelketa ondo amaitzea du helburu.

Labegaraieta

EMAITZAK

Pub Irish - Errotagain	5-9
Agirrebeña - Txakurra	13-1
All Black's - Guri-Guri	2-5
Niu Tim - Paco Cia	1-5
Teatekh - Santana	4-4
Mongatxurra - Kalaveras	3-11
Komando Piperrak - Makanaki	4-4
Belengua - Egurre	5-6
A ze flaxa - Fit automotion	3-0
SDTNT - Pirulotarrak	3-9

PARTIDUAK

Otsailak 18, zapatuan (kanpoan) Epaileak	Epaileak
10:30 Belengua - Makanaki	Txakurra
11:30 Komando Pip. - Txakurra	Agirrebeña
12:30 Agirrebeña - Paco cia	Komando P.

Otsailak 19, domeka (barruan)	Epaileak
09:30 Teatekh - Fit Automotion	Errotagain
10:30 Mongatxurra - Errotagain Fit Automo.	
11:30 Agirrebeña - Irubide	Niu Tim
12:30 Niu Tim - Makanaki	Irubide
17:00 A ze flaxa - Kalaveras	SDTNT
18:00 SDTNT - Santana Rivers	Paco Cia
19:00 All's Blacks - Paco CIA	Pirulotarrak
20:00 Pub Irish - Pirulotarrak	All Black's

SAILKAPENA

P J

1. Alls Black's.....	39	14
2. Guri Guri	34	13
3. Agirrebeña	33	14
4. Teatekh	32	14
5. Kalaveras.....	30	14
6. Errotagain	30	14
7. A ze flaxa.....	28	15
8. Mongatxurra.....	25	14
9. Niu Tim	23	15
10. Makanaki.....	22	14
11. Pub Irish	19	15
12. Pirulotarrak.....	18	14
13. Paco Cia.....	18	14
14. Egurre	18	14
15. Santana Rivers	16	14
16. Komando piperrak	13	14
17. Belengua Tab	13	14
18. SDTNT	11	15
19. Irubide Jatetxea	10	13
20. Fit Automotion	3	14
21. Txakurra.....	3	14

Kontuz bi txartel hori dituztenek, hirugarrenak zigorra du-eta

Antolatzaileek aditzera eman dute Santana Rivers taldeko Aitor Marauri jokalariak norgehiagoka bateko zigorra bete beharko duela oraingo jardunaldian, dagoeneko hiru txartel hori ditu-eta. Horrekin batera, antolatzaileek gogorarazi gura dute horrelakoetan kontuz ibiltzeko; norgehiagoka bat jokatu barik egon eta gero, hurrengoan bi txartel horirekin zigortuko dute-eta. Neurri horiek dira jokaldi gogorregiak ala leku zkapoko jokabideak ekiditeko.

Dixula
BOKATAK DAUZKAGU

Barrenkalea 32
BERGARA
Tel.: 943 76 44 95



Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behe
943 76 59 54 BERGARA



ORMAZBAL
FISIOTERAPIA ZENTROA

Bizkarreko mina • Bihurrituak
Tendinitisa • Masajeak • Erreuma
Etxeetara fisioterapia
Errehabilitazioa
Telleria 6 bis, 11 bulegoa
Labegaraieta ind. BERGARA
Tel.: 943 76 53 35 / 626 90 06 08
ormazabalfisioterapia@yahoo.es

mingainari tiraka

Daniel Valdepeñas > Merkeopari dendakoa

"Gauza asko eta merke saltzen ditugu"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Orain dela urtebete pasa zabaldu zuen Daniel Valdepeñasek Merkeopari denda. Izenak berak dion bezala, oparitarako gaiak saltzen dituzte: etxerako osagaiak, bitxiak... Hau da, aukera zabala, eta merke.

Zein da jaso duzun azken oparia?

Gabonetan GPS bat opari egin zidaten. Lanerako batez ere erabiltzen dut.

Eta zuk egin duzun azkena?

Neskalagunari Parisera bidaia bat opari egin diot.

Zer batuko zenuke erregalo paperean?

Oroitzapen txarrak; paperez edertu eta berriz ez gogoratzeko.

Zein da diru askorik gastatu gabe opari politikak egiteko modua?

Dendako opariei ongi begiratzea eta egokiena aukeratzea. Dendan jarraitzen dugun politika da ahalik eta opari merkeenak izatea eta sarritan produktu berriak ekartzea.



Dendaren gaineko bloga daukazue. Erosten dituzu gauzak Internet bidez?

Blogean jende dezente sartzen da egunean barrena. Urtean irudi berriak sartuko ditut eta jendearen gomendioak jasoko ditut. Nik neuk sarritan erosten ditut Internet bidez gauzak, fidatzekoa da. Saldu momentuz ez dut saltzen.

Zein da dendan duzuen gauza bitxieta?

Asko ditut. Ekartzen ditudan gauzak bereziak izaten dira, eta merkeak. Nire asmoa da gauza asko eta merke saltzea, eta ez garestiak eta aukera urria izatea.

Opariak egiteko arrazoirik behar da?

Ez, denok hartzen ditugu gustura opariak. Nik neure buruari opariak egitea dut gustuko.

Mozorroak ere saltzen dituzue. Zu mozorrotzen zara?

Bai. Iaz dendan mozorrotu nintzen. Galtzen ari den ohitura da, baina nik oso gustuko dut. Aurtengo mozorroa ez dut prestatu, baina mozorrotuko naiz.

bere ustez



Iñigo Garitano

Giltza txikiak gure esku al daude?

A frikako goseteak, Men-debaldeko eta Islamiar herrialdeen arteko gatazka... Debagoieneko etxebizitzent prezioak, eta nahi dituzuen hamaika adibide.

Zenbat aldiz entzun dugu bizi ditugun injustizien, gehiegikerien, erantzulea beti kanpoko norbait dela. Gobernuak ez direnean, bankuak dira, edo multinacionalak, sistema, azken finean.

Eta horren aurrean, etsipena. Kasurik onenean,

"Argi dago, munduan dauden arazo larrienak ez ditugu norbanakok konponduko"

ONGren batekin kolaboratu, hauteskundeetan bota eman... Eta besterik ez.

Argi dago munduan dauden arazo larrienak ez ditugula norbanakok konponduko, eta nola ez, aipatu agenteek, botere faktikoak deitzen zirenak (oraindik ere bai?), erantzukizuna dutela.

Baina guitariko bakoitzak gure esku dagoena eginez gero egoera aldatuko litzatekeela ez daukat zalantzarak. Eguneroko bizitzan, ohituretan, jarreretan, aldaketak sartzen hasiko bagina... baina ezkorra naiz.

Ez dut sumatzen sikiera ahalegin bat egiteko asmorik. Zer espero dezakegu horrela? Betikoa, erantzukizuna bizkar gainetik kentzea eta inori leporatzea: multinazionalak, sistema. Eta hauek, jakina, pozez zoratzen!

bergararrak kanpoan

Maria Abajo > Ille-apaintzailea
Bartzelonan bizi da

"Katalana ulertzan dut eta baita pixkanaka berba egin ere"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Bergararra da Maria, baina 10 urte inguru daramatza herrikiz kanpo. Londresen bizi izan zen lehenengo eta orain Bartzelonan dago. Hiriburuan, erdialdean, egiten du lan eta bizi herri txiki batean bizi da.


Bere ahizpa Ana Bartzelonan zegoela-eta aukeratu zuen Mariak ere destino bera. "Londrestik itzulita Bergara txiki geratu zitzaidan eta Bartzelonara etorri nintzen lan bila", esan digu.

Urte hauetan guztietan bere bizimodua Bartzelonan egiteko astia izan du Mariak. Haren esanetan, "dena" dauka han. "Bizi-

modua, lagunak, mutil-laguna eta lana dauzkat hemen. Gainera, iaz zabaldu nuen ile-apaindegia Bartzelona erdialdean".

Lan hiriburuan egiten badu ere, herri txiki batean bizi da, Villasar de Dalten. "Mendia eta hondartza ditu; beraz, hiria lanerako daukat eta bestea bizitzeko".

"ILLE-APAINTEAONDAKO hiri garrantzitsua da Bartzelona; hiriaren aniztasunak asko erakartzen nau"



Maria Abajo.

ANIZTASUNA ETA LAN AUKERAK

Bartzelona lanerako ematen dituen aukerengatik hautatu zuen. "Ile-apaintzaileondako hiri garrantzitsua da; gainontzean ere aniztasuna dago. Herrialde guztietako jendea bizi da hemen".

Lanak ordu asko kentzen dizkio Mariari eta igandea eta astelehena dauzka libre. "Lagunekin irteteko aprobetxatzen dut. Mutillagunak disko jartzaile lanetan jarduten du diskoteka batean, eta hara joaten gara. Bestela, etxekek lanak egiteko, atseden hartzeko edo gimnasioa joateko aprobetxatzen ditut egun horiek".

Hizkuntzarekin nahiko ongi moldatzen omen da. "Ulertu, dena ulertzan dut, eta hitz egiten ere ahalegintzen naiz pixkanaka". Euskara ahazten ari zaiolesan digu, baina gurekin euskaraz jardun du, eta ongi, gainera.

Hemendik lagunen eta etxeoen falta sumatzen du batez ere, baina joaten zaizkio bisitan eta han ere jende jatorra aurkitu duela esan digu, eta pozik bizi da.

EDEL TAPIZ DENDA

Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

UREDERRA

ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918



Irrintzi
kafetegia

Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

Ganbara
TABERNA

Heure erara
ibiltzeko!

Irala z/g.
BERGARA
Tel.: 943 76 55 75

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen □ bada
giro!

AKEITA Taberna

Pintxoak eta ogitartekoak

Santa Ana 23
Tel.: 943 71 50 94
ESKORIATZA

IOSU taberna harategia

Urdaitegia-gozategia
Kroasantegia
Gertatutako janariak
Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08



EZ BUTU TABERNA

Zatoz gure musikaz gozatzen

Mitarte 9 ARETXABALETA Tel: 943 79 92 01

TABERNA ARLUTZ

Gustuko musika
Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

HAIZEA taberna

Mitarte z/g • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 60



EXPRESS TABERNA

Santa kurtz 16 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 23 43



Durana 26 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 67

OTZETA JATETXEA



Aranburuzabala 7 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67

BASABE

Menuak eta afariak



Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 79 91 84



DORLETA TABERNA
Loramendi, 8 Tel. 943 79 94 15 ARETXABALETA



llargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57



Herriko plaza Aretxabaleta Tel.: 943 79 09 33



Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64



ZARAIA
taberna
Goizeko 06:00etik irekita
Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 95



Matikua jatetxea
Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

Ezohiko diru sarrerak izan ditu Udalak, eta inbertsioak egiteko aprobetxatuko dute

Hiru langile behar dituzte: udaltzaingo, euskara eta kontu-hartzailetza sailetarako

Aralarrek diru partidak handitzeko hiru eskaera egin zituen eta bi onartu egin zituzten

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta
Astelehenean onartu zituen udalbatzarrak 2006ko udal aurrekontuak. EAJ-EA, Aralar eta EBren aldeko botoak jaso zituen, PSE-EEko zinegotziaren aukakoa eta PPkoab abstenitu egin zen.

IAZ BAINO %14,62 HANIDIAGOA
Ezohiko diru sarrerak izan dituela azken urtean Udalak aipatu zuen Arritxu Oilden alkateak, eta horregatik aurrekontuak %14,62 egin du gora iazkoarekin alderatuta. Hala, 12.009.083 euroko aurrekontua onartu zuten –zaharren egoitzaren eta Bihargintzaren gastua barne–, eta hortik erdia inguru inbertsioak egiteko erabiliko dute. Jakina denez, inbertsiorik garrantzitsuena, kopuruari zein herritarren beharrei dagokienez, egiten dabil tan kulturarako eraikinarendako da. Lursailak erosteko ere diru kopuru handia gorde dute, eta urtero egiten dituzten saneamendu lanekin aurrera jarraitzen ere bai; aurten Otalora kalean.

Inbertsioez gain, hiru langile hartzea pentsatu dute: seigarren udaltzaina, eta euskara eta kontu-hartzailetza sailetarako teknikariak. Hala ere, alkateak argitu gura du ez duela esan gura langileok kontratatuko dituztenik.

DIRUA LURRAK EROSTEKO
Aralar alderdia orokorrean ados agertu arren aurkeztutako aurrekontuekin, hiru aldaketa proposatu zituen osoko bilkuraren: batek, lurra erosteko, etxebizitzak egiteko zein industria garatzeko lurra erosteko diru gehiago gor-

EKONOMIA > UDAL AURREKONTUA ONARTUTA

12 milioi euroko aurrekontua, erdia inguru inbertsioendako



ONARTUTA Jeltzaileen, Aralarren eta Ezker Batuaren aldeko botoekin onartu zuten, PSE-EEko zinegotziak aukakoa eman zion eta PPkoab abstenitu egin zen.

M.A.

2006ko udal aurrekontua

Aurrekontua batzordeka

Hirigintza	3.871.578 €
Lehendakaritza	3.346.751 €
Zerbitzuak	1.656.195 €
Ongizatea	790.677 €
Kultura	320.202 €
Kirolak	293.311 €
Euskara	231.710 €
Baserri-auzoak	279.976 €
Ogasuna	246.544 €
Ingurumena	139.268 €
Gazteria	91.181 €
Udaltaingoa	32.870 €

Inbertsio aipagarrienak

Kulturarako ekipamendua	2.250.000 €
Lursailen erosketa	1.124.259 €
Otalora kaleko saneamendu lanak	610.000 €
Pausokako eraikina erostea	423.075 €
Bidegorria	282.240 €
Edukiointziak lurperatzea	140.000 €

Aurrekontu osoa

12.009.083,07 €

Udal aurrekontua	11.644.719 €
Urats Gain zaharren egoitza	678.634 €
Aretxabaletako Bihargintza SA	93.000 €

detzea aipatu zuen. Onartu egin zuten gainerakoek, PSE-EEk eta PPk izan ezik, eta 1.124.000 euro gorde dituzte; bestetik, Arrasatetik Eskoriatzara bitartean dagoen bidegorria guztiz bukatzen diru partida handitza eskatu zuen. Alkateak ez zion trabarik jarri, baina Aldundiak hartu zuela konpromiso hori bere garaian gogorarazi zien. Hala ere, 282.240 euro gorde dituzte; hirugarrenak Barne Produktu Gordina-ren %0,7 Hirugarren Mundura bideratzearekin zeukan zerikusia, baina hobeto aztertu gura zuela aipatu zuen alkateak eta hurrengorako utzi zuten.

propaganda
kartelak
kartak
jai egitarauak
pegatinak
liburuak
etiketak
txartelak
errekordatarioak
gonbidapenak
errebistak
inprimakiak



EGUZKiGRAF

inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4

20550 Aretxabaleta

Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941

E-mail: info@eguzkigraf.com



INGURUMENA 6 urtetik gorako ume eta gaztxoak ingurumenaren gaineke arazoak ezagutarazi eta konponbideak bilatzera bideratuko dituzte.

M.A.

INGURUMENA > KURTZEBARRI ESKOLAREKIN HITZARMENA SINATU DU UDALAK AGENDA 21 GARATZEN HASTEKO

Eskola Agenda 21 garatzeko konpromisoa bultzatu du Udalak

Eskola Agenda 21 betetzeko konpromiso-akta sinatzekotan ziren Kurtzebarri eskolako zuzendariek atzo, eguna, Udalekoen aurrean

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta
Agenda 21 garatzen dabil Udalazken urteotan, eta atzo beste pauzo bat ematekotan ziren: Eskola Agenda 21 garatzeko konpromisoa hartzeko eskolako arduradunekin. Kurtzebarri eskolako Lehen Hezkuntzako zuzendari Eli Areñatzak eta DBHko zuzendari Iñaki Urretak sinatu behar zuten konpromiso-akta, Arrixu Oliden alkatearen eta Joxe Anjel Antxia Ingurumen zinegotziaren aurrean. Ekitaldiaren lekuo izan behar zen Joxan Auzmendi, Hez-

kuntza Sailean Agenda 21en ardua duen ordezkarria.

HARTUTAKO KONPROMISOAK

Garapen iraunkorra lortzeko herriarrek erantzukizunak hartzeko behar dituzte, eta Agenda 21 garatzeko prozesuan sartu. Hala, 6 urtetik gorako ume eta gaztxoek udalerriaren eta garapen iraunkorraren gainean izan ditzaketen ekarpenak bideratu behar dira. Ez hori bakarrik: ingurumenean eragina duten arazoek jabetzen eta erabakiak hartzenten kome-

ni zaie, erantzukizuna sustatuz eta ingurunearren iraunkortasuna hobetuko dituzten neurriak bultzatuz.

Kurtzebarri eskolan herriko ingurumenaren gaineke diagnostikoa egingo dute lehenengo. Ondoren, arazoak konpontzeko proposamenak jasoko dituzte eta Udalera bideratu. Jasotako proposamenok bideragarriak diren edo ez aztertuko dute Udalean, eta erantzuna emango dio eskolari. Bukatzeko, eskolak jarraipena egin beharko dio proposatutako ekintza planari. Hori guztia aurreera eroateko Ingurumen batzordea eratuko dute eskolan eta proiektuaren ardurak izendatu garapen prozesua bultzatzeko eta lortutako emaitzak ebalutzeko.

EKINTZA PLANA ONARTUTA

Udala bere aldetik aurrera doa Agenda 21 garatzeko prozesuan. Herriko diagnostikoa egin zuten lehenengo, Aretxabaletaren egoera ezagutzeko. Hiru arlo landuzituzten: gizartea, ekonomia eta ingurumena. Orain lehentasunak ezarri behar dituzte hiru arloetan eta Tokiko Ekintza Plana diseinatu dute. Hain zuen, horixe onartu zuen udalbatzarrak astelehenean egindako osoko bilkuraren. Bide batez, Aralar alderdi Xabier Sarasuak gogorarazi zuen herritar guztien parte-hartzea eskatzen duela Agenda 21ek eta egiten dituzten batzarretara udalbatzako kideak ere joatea komeni dela zuzen-zuzenean parte hartzeko.

INGURUMENA

Bidegorria osatzeko laguntzak

M.A. > ARETXABAleta

Bidegorria osatu gura dute Arrasate eta Eskoriatza artean, eta lehentasuna eman zion Aldundiak Debagoienari bere garaian. Bidegorriaren zati txo bat eginda dago, CVL enpresak egin du -leku aldaterakoan Udalak eskatuta-Arbizelai baseria zegoen parean. Arrasatetik Aretxabaletara dagoen tartea, ostra, Aldundiak bere gain hartu du eta errepide azpitik egingo du oinezkoendako pasabidea. Udan kaleratu zuten iragarkia lanak egin gura zituztenek izena emateko, baina ez zen inor aurkeztu. Orain, berriro atera ditu lanok enkantera Aldundiak eta 317.124,06 euroko aurrekontua daukate. Azpiko pasabidearen eta eginda dagoen tartearen artean geratzen diren 270 metroak Udalak egingo ditu, eta negua pasatu zain dago lanok hasteko.

Bukatzeko, Eskoriatzara bitartean dagoen zatia geratzen da. Udal aurrekontuetan 160 mila euro aurreikusita bazituzten ere lanendako, Aralar alderdiak kopurua igoztea eskatu zuen eta 282 mila eurotik gorakoa izatea onartu zuten azkenean. Hala ere, alkateak argi utzi gura izan zuen Aldundiak hartu zuela konpromisoa, ahozko konpromisoa, bidegorria egiteko autobideko lanen ordainetan, eta konpromiso hori betetzea eskatuko diola.



Aretxabaletako bidegorria.

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea ARETXABAleta
Tel: 943 79 01 28 / Mugikorra: 606 665 448

Iber

Loteria • Paper denda • Liburuak

Otalora 2. ARETXABAleta
Tel.: 943 79 04 39

EUSKARA > ELKARTRUKEA DONEZTEBEKO EUSKALTZALEEKIN

Doneztebeko Burrunba taldearekin elkartrukea egingo du Loramendik

Apirilean etorriko dira Doneztebeko euskaltzaleak, eta bisita gertatzen hasteko batzarra egingo dute martxoaren 2an, 19:00etan, Loramendin

M.A.> ARETXABAleta
Aspalditik zeukaten gogoa Loramendi Euskara Elkarteko kideek elkartrukea egiteko. Doneztebeko Burrunba taldearekin jarri

dira harremanetan eta apiril bukaerarako egin dute hitzordua. Aretxabaletara etorriko dira nafarrak, eta bisita behar bezala gertatzeko batzarra egingo

dute martxoaren 2an, eguna, 19:00etan, udaletxe zaharrean. Gazte zein heldu, koadrila, taldeetako kide zein herritar soil, guztiegi egingo dute dei Loramendiko

ko kideek ekimena gustuko badute, behintzat, ager daitezten. Hori bai, talde eta elkarteen laguntza jasoko lukete gustura, edozein ekintza antolatzeko samurragoa delako taldeen bitarnez.

ASTEBURU PASA

Doneztebe inguruko euskaltzaleak batzen dituen taldea da Burrunba; 20 eta 40 urte inguruko gazteek dihardute lanean bertan. Asteburu pasa etorriko dira apirilean eta Galartzan egingo dute lo. "Lehenengo hartu-emaña izango da; hortaz, ez dugu helburu handirik jarri: ezagutzea eta harreman polita sortzea bi herrien artean", dio Loramendiko kide Leire Lardizabalek. "Behin ezagututa eta aurrera begira, behar bezalako ekintzak antolatzen hasiko gara; Euskaren Egunera gonbidatuko ditugu, esa-

terako", gaineratu du Lardizabalek. Bestalde, nafarren bisita jaso ostean aretxabaletarrak joango dira Doneztebe aldera. Uztail inguruau izango da hori, ospakizun polita izaten dutelako herrian.

EUSKARA LOKARRI

Euskarak batzen ditu aretxabaletarrak eta doneztebearrak, eta euskara oinarri hartuta beste talde, giro eta herri bat ezagutzeko aukera eskaini gura die Loramendik herritarrei. "Gazte Ekinenari eman genion ekimenaren berri eta oso gustura hartu zuten; edozein lanetarako daude geru", dio Lardizabalek. "Hala ere, gazteen arteko zerbaitean geratu beharrean herritar guztiei emango diegu aukera ekimenean parte hartzeko, oso interesgarria dela uste dugu-eta".

> KIROLAK

Eskola kirolaren gaineke adierazpena sinatu du Udalak kirol politika integratzailea bultzatzeko

Eskola kirolaren manifestuari babesa ematea onartu zuen Udalak astelhenean egindako osoko bilkuraren. Eskola kirola dela kirol politikaren oinarri aipatu zuen Mikel Uribetxebarriak, Kirol zinegotziak, eta lehiakortasuna alde batera utzita heziketa zaindu gura duela gaineratu zuen. Manifestua sinatzerakoan konpromiso batzuk hartu zituen Udalak. Hala, beharrezko bitartekoak jarri beharko ditu eskola kirola antolatzeko; aipatutako eredu zabaldu beharko du elkarteeetan; eta bultzatu beharko du eskoletako umeen beharrei egoki daietzela kirolean dabiltzan agenteak. Mikelen esanetan, Aretxabalean eskola kirola bultzatzeko ez dago arazo handirik elkarteekin.

> ONGIZATEA

Udalak etxez etxeko laguntza zerbitzuaren araudia eta dirulaguntzak emateko ordenantza ditu eginda

Etxez etxeko zerbitzua arautzen duen erregelamendua onartu zuen Udalak iaz, azaroan, eta orain herritarren eskura dago Aldundiak onartu ostein. Erabiltzaileek zeintzuk izan behar duten, zein eskubide eta betebehar dituzten, etxez etxeko laguntzak zelakoa izan behar duen eta gainerako guztia arautzen du erregelamenduak.

Bestalde, Udalak ematen dituen dirulaguntzak zelan eman eta zelan kudeatu arautzen duen ordenantza egin dute. Zeintzuek eska ditzaketen eta ondoren zelan egingo dieten jarraipena zehaztu dute. Bai araudia, bai ordenantza otsailaren 9ko GAOn argitaratu zituzten.

> EUSKARA

Elikadura osasuntsua egiteko gomendioak emango ditu Silvia Huegunek Muru Alde elkartean

Datorren otsailaren 21ean, martitzena, elikadura osasuntsua egiteko gomendioen ikastaroa eskainiko die Silvia Huegunek Muru Alde gastronomi elkartera hurreratzen diren guztiei. 15:00etan hasi eta 17:00ak bitartean jardungo du eskola ematen, eta gura duten guztia hurrera daitezke, ez dagoelako izena eman beharrik.

Eguenean, otsailak 23, bestalde, bioarkitekturaren gaineke berbaldia egingo du Amaia Agiriano arkitektoak. Material naturalak erabilita etxeak egitea, kutsadurariak ez egotea eta beste hainbat gai izango ditu hizpide Amaia, 19:00etan, udaletxe zaharrean.

> ERRETIRATUAK

Erretiratuen zaindari den Aingeru Guarda eguneko bazkarirako izenematea zabalik dago

Aretxabaletako Basotxo Erretiratuen Elkarteko kideen zaindaria da Aingeru Guarda eta martxoaren 1ean ospatzen dute, eguztenea. Urtero legez, meza entzungo dute lehenengo Agustindarren komentuan eta bazkaria izango dute gero Taberna Berri jatetxeen. Bazkaria joan gura dutenek izena eman behar dute aurrez, eta dagoeneko zabalik dago epea Basotxoko lokalean. Txutxu-mutxuak esan eta berriketan egiteko aukera paregabea izaten dute erretiratuek, eta iaz 100 lagun inguru hurreratu ziren bazkarira.



M.A.

Ikasitakoa gurasoei erakutsi diete

Antzerkiaren inguruko astea bukatu dute gaur Kurtzebarri eskolan; irakasleek ikasleei eskaini dieten *Iruzurra* antzezlanarekin bukatu dute. Antzerkiaz gain, bertso emanaldiak, dantzaldiak, txotxongilo ekitaldiak eta txiste eta asmakizun saioak izan dituzte lau egunean. Gainera, Eskoriatzako Luis Ezeiza ikastetxeo ikasleak gonbidatu zituzten, eta gaur goizean ziren etortzeako Aretxabaletara. Eskolan landutakoa gainerako lagun eta gurasoen aurrean erakusteko aukera izan dute, eta gustura jardun dute Haur eta Lehen hezkuntzetako umeek.

**Mobiliario
ARENZA**

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAleta

Angelina's
AUTOZERBITZUA

Frutan eta txarkuterian espezializatea

Mitarte 16 ARETXABAleta Tel.: 943 79 61 42

ZERBITZUAK > OHIKO EDUKIONTZIAK ORDEZKATUKO DITUZTE

Lur azpiko edukiontziak beste bi gunetan

Santa Anan jarrita daude eta San Juan eta Arana kaleen artean laster jarriko dituzte; horren ostean, Dorletan eta Aranburuzabalan.

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Udalak jakinarazi du udalerriko bi gunetan lur azpiko edukiontziak jarriko dituela datozen astetan.

Horietako gune bat Santa Anan jarriko dute. Dagoeneko hasi dira hango edukiontziak jartzen, eta auzoan egiten dabiltsan eraberritze lanak bukatu baino lehenago erabilgarri egongo dira.

Udaleko ordezkarien esanetan, Santa Anako sarreran jartzen dihardutenean edukiontziek mesede handia egingo dute: "Santa Anako kaleak estuak dira, eta ez da erraza zaborrak batzeko kamioia barrutik ibiltzea. Horregatik, edukiontziak sarreran jarri ditugu", azaldu ziguten.

Santa Anan lau edukiontzi jarriko dituzte: bi zabor organikoarenak, bat ontziendako,

beste bat paper eta kartoiarenak eta bosgarren bat beirarenak, hain zuzen ere.

OHIKO EDUKIONTZIAK BAZERTTU
Hurrengo pausoa izango da Arana eta San Juan kaleen arteko bidegurutzean beste lau edukiontzi jartzea: bat zabor organikoarenak, beste bat ontziendako, hirugarren bat beirarenak eta azkena paper eta kartoiarenak.

Horren ostean edukiontzen beste gune bat aurreikusita daude Dorletan, HUHEZItik gertu. Azken hori auzoko eraberritze lanekin batera egingo dute. Eta horrez gain, aurrerantzean Aranburuzabala kalean beste bi gune jarri gura dituzte. Azken bi ekinmen horiek Izartu programaren baitan hitzartuta dauzka.



EDUKIONTZIAK Santa Ana auzoko kaleak kamioiendako estuak direnez, sarreran jarri dituzte edukiontziak.

IKER BARANDIARAN

Hain zuzen ere, Udalaren asmoa da etorkizunean udalerriko edukiontzi guztiak lur azpikoak izatea. Hortaz, gaur egungo ohiko edukiontziak baztertzen joango dira.

IBARREKO LEHENAK

Eskoriatza izan zen lur azpiko edukiontziak jarri zituen ibarreko lehenengo udalerria; orain dela hiru bat urte hainbat jarri zituzten Dorleta auzoan. Eta Arri-

zabal enpresak jarri zituen. Horren ostean, Debagoieneko Mankomunitateak Biurrarena enpresari adjudikatu zion lan hori, eta Biurrarena hasi da zerbitzu hori ematen.

ONDAREA > AINGERU GUARDAKO ERMITA KONPONTZEN DABILTZA

Aingeru Guardako ermita konpontzeko, 20.000 euro

Ermitaren egoera kaskarrarekin kezkatuta, batzordea osatu dute hainbat herritarrek

I.B. > ESKORIATZA
Dagoeneko hasi dira Aingeru Guardako ermita konpontzen. Hainbat herritarrek batzordea

osatu zuten ermitaren egoerarekin kezkatuta zeudelako. Elizengana eta Udalarengana jo zuten laguntza eske, eta Udalak hainbat gestio egin ditu laguntza emateko.

Ramel enpresa dabil lanok egiten, eta auzotarren batzordeak jakinarazi digu 20.000 euroko aurrekontua izango dutela. Teilitua eta hormak konpondu egingo dituzte, eta hezetasuna kendu egingo dute, besteak beste.

Lanak maiatzaren 15erako (San Isidro eguna) bukatu gura dituzte, baserritarrek meza ermitan entzun dezaten.

HERRITAREN LAGUNTA

Udalaren, Aldundiaren eta Elizaren laguntza jasoko dute, baina horrez gain herritarren laguntza behar dute. Bi kontu korronte zabaldu dituzte: 210100 3856012-1391510 eta 303500 44820044012849, hain zuzen ere.

ETXEBIZITZAK > SANTA MARINAN

Santa Marinako etxeak egiteko prozedura abian

I.B. > ESKORIATZA
Dagoeneko abiarazi dute Santa Marinan egin beharreko lanen prozedura. Hain zuzen ere, Visesa-Orubidek idatzitako urbanizazio projektua onartu dute. Lan horiek 2.900.000 euroko aurrekontua izango dute. Eta, horrez gainera, urbanizazio horren lanen zuzendaritzak beste aurrekontu bat izango du.

Udalaren eta Visesa-Orubidek asmoa da lanak San Pedro jaien aurretik hastea.

Baina lehenik eta behin, Olabarri eta Zubizarreta enpresean eraikinak bota egin beharko dituzte.

LURJABEENKIN BATZARRA

Horren harira, atzo, eguna, Udala batzarra egitekotan zen Visesa-Orubidekin eta Santa Marinako lurjabeenkin. Asmoa zen lanen prozedura eta epeak lurjabeen azaltzea eta Visesa-Orubide enpresa aurkeztea, hemendik aurrera haietkin izango dutelako hartu-emana.

ILE APAINDEGIA

APAINDU

San Juan kalea 12c behea
ESKORIATZA

Tel.: 943 08 26 40

DE LA TORRE
igeltserotza

*Erreformak orokorrean
Gremioen koordinazioa*

Intxaurtxeta 7 2-D
20540 Eskoriatza
Tel.: 943 71 52 64 / 639 76 29 27



AZPIEGITURAK > HAINBAT HERRITAR ETA ALDERDIK, ALEGAZIOAK TRANBIARI

Tranbia zalantzhan jarri dute hainbat taldek

EBk, Kontzejupek eta Aitzorrotzek uste dute proiektua ez dela herrira egokitzten, eta aldaketak egin ezean autobusa indartu gura dute

IKER BARANDIARAN> ESKORIATZA

Bukatuta dago tranbiaren proiektuari alegazioak aurkeztekoepea. Aurrekoan Udalak Jaurlaritzari egindakoak jakinarazi genituen. Oraingoan, berriz, herritar, elkartea eta alderdi politikoek jaso ditugu.

Gorosarri plazan bizi diren hainbat herriarrek hainbat eskaera egin dizkiote Jaurlaritzari. Plaza hori tranbiaren geltoki nagusia izango da eta horrek asko eragingo die bizilagunei. Horregatik, honako eskaerak egin dituzte: proiektuaren arabera kendu gura dituzten espaloi zatiak mantentzea, hainbat oztopo arkitektoniko ekiditea eta aurreikusita dagoen elektrizitatearen transformazio-gunea beste leku baten kokatzea, hain zuzen ere.

Bestalde, Ezker Batuak, Kontzejupek eta Aitzorrotz kultura

elkarreka aldaketa nabarmenak egitea eskatu dute. Alegazioak onartu ezean, ez dute uste tranbiak herria zeharkatzea bideragarria denik. Eta tranbia egin beharrean autobus zerbitzu zabalagoa jartza eskatu dute.

EB-K USTE DU GARESTIEGIA DELA

Ezker Batuak uste du garraio publikoa bultzatu behar dela eta tranbiaren aldekoa dela, baina Eskoriatzako kaleak estuegiak direla proiektu horrendako. Horregatik, Jaurlaritzari eskatu dio ibilbidea aldatzeko. Tranbia herri barrutik joan beharrean, San Bernabek gora egitea Olatzarrako tunelean barrena eta Doretaraino trenbide zaharretik abiatzea. Bestela, beste aukera bat aztertu dute: Tranbia Intxaurtxuetaraino, hau da, herri sarrearaino bakarrik heltzea.

Bi aukerak onartuko ez balitztutze, EBk uste du hobe dela Aretxabaletatik Eskoriatzara arteko tramurik ez egitea, eta autobusa indartzea.

KONTZEJUPE, KRITIKO

Aitzorrotz kultura elkartea eta Kontzejupek ere antzeko iritzia daukate. Tranbiaren aldekoak dira, baina uste dute proiektua ez dela herrira onto egokitzten.

Torrebaso industrialdean geltokia jartza ezinbestekotzat du, eta Jaurlaritzak industrialdean kendu gura duen biribilguneari eustearen aldekoa da. Eta herri sarreran biaduktua egitearen kontra daude. Udalarekin bat egiten dute hiru eskaera horietan.

Horrez gain, bi proposamen aurkeztu ditu: tranbia Santa Mariatik desbideratzea edo bestela tranbiaren bidea Santa Anan eteera, hain zuzen ere.

Jaurlaritzak alegazio horiek onartuko ez balitu, Kontzejupek eskatu du tranbia Torrebaso industrialderaino hel dadila, eta autobusak jar ditzatela.




GELTOKIA Gorosarri plazan geltoki nagusia jartzeari pentsatu du Jaurlaritzak.

IKER BARANDIARAN

AZKOAGA

ESTANKOA
943 71 48 77
Zure
Zerbitzura



argazki zaharra



Elizateetakoak Santa eskean

Orain dela mende erdi Santa Ageda egunean Arkarazo eta Mendiola mutil guztiak Santa eskean ibiltzen ziren, eta neskak Uxarte edo Olabena baserrian bazkaltzen gonbidatzen zituzten. Eguraldi onarekin, Arrasteko Gesalibar auzoan erromeria egiten zuten.

Ezkerretik eskumara honako hauek daude:

(goiko ilaran) Higinio Etxabe, Joaquin Lete eta Joxe Arkauz; (bigarren ilaran) Antonio Bengoa, Jesusa Lete, Felisa Arkauz, Tomasa Jausoro eta Isidoro Arenatz; (behean) Juan Iregi, Fermín Lete eta Joxe Zugasti.

Argazkia eta informazioa: Deiane Arrieta eta Higinio Etxabe.
Urtea: 50eko hamarkada hasiera.

> ERAKUSKETA Kontsumoaren eta etiketen gainekeo erakusketa Ibarraundin

Eguenetik (hilaren 23a) domekara arte *Kontsumoa: janari, jantzi eta zapaten etiketak* erakusketa jarriko dute Ibarraundi museoan. Eusko Jaurlaritzaren erakusketa ibiltaria da. Haren helburua da kontsumitzaile moduan herritarrok ditugun eskubideak jakinaraztea eta etiketen garrantzia azpimarratzea, besteak beste.

> KLOWN IKUSKIZUNA Gaur, egubakoitza, Oihulari Klownen eskutik HUHEZIn

Gaur, egubakoitza, Oihulari Klown taldeak *La espera ikuskizuna* egingo du HUHEZiko areto nagusian, 22:30ean.

Gazteleraiz izango da eta gazte zein helduei zuzenduta dago. Ikuskizuna sentimenduen hezkuntzaren gaineakoa da. Ideali-ztatutako mutilaren zain daude hainbat lagun, eta horren parodia egingo dute.

FAGOR

Fagor Ederlan, Elk. Koop.

 Torrebaso pasealekua 7
20540 Eskoriatza
Tel.: +34 943 719 000
Faxa: +34 943 719 001

MONDRAON
ONDORRON GOMBERA



IKUS-ENTZUNEZKOA Jon Belokik hainbat espedizioren gaineko ikus-entzunezkoa eskainiko digu Olaranen.

EITB

ARROLA MENDIZALE ELKARTEA > URTEKO BATZARRA EGUAZTENEAN

Arrolak batzar orokorra egingo du eta Jon Beloki mendizalea etorriko da

Jose Mari Alberdi
izango da presidente
berria; zuzendaritza
batzordea osorik
berrituko dute

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA
Datorren asteko eguaztenean,
hilak 22, urteko batzar orokorra
egingo du Arrola mendizale elkar-
teak. Olaran etxean izango da
hori, 19:00etan. Ondoren, 19:30
inguruau, Jon Beloki mendizaleen
ikus-entzunezko emanal-
dia izango dugu. G3, G4 eta Ogro-
ko espedizioen gainean jardun-
go du Belokik.

BI BATZORDEAK ELKARLANEAN
Eguazteneko batzarrean berri-
tuko dute ofizialki zuzendaritz
atzordea; hala ere, batzorde
berriak lanean dihardu dagoene-
ko orain dela hilabete batzueta-
kik. Lehengo batzordeko kideen
laguntasuna izan dute hilabete
hauetan.

Gogoratuko duzuen moduan,
Arrolako arduradunek deialdia
egin zien herriarrei elkartean
lan egitera anima zitezen; bestea-
la, elkartea desagertzeko aukera
zegoela adierazi zuten. Erantzun
ona izan zuen deialdi hark, eta
bi urtean batzordea berritu ezin-
da ibili eta gero, oraingoan oso-
osorik berrituko dute. Presiden-
te berria zein izango den ere era-

bakita dute dagoeneko: Jose Mari
Alberdi izango da bera. Gainera-
ko batzordekideak, berri, hona-
koak dira: Andoni Balerdi, Ene-
ko Iturbe, Aitor Peñagarikano eta
Patri Bideluze.

BALORAZIO POSITIBOA
Besteak beste, iazko irteera eta
ekintzen balorazioa egingo dute
batzarrean. Orokorean, balora-
zio positiboa egiten dute elkar-
ko arduradunek. Aurtengo urte-
rako, berri, hilabetero irteera
bat egitea aurrez ikusten dute.
Eski irteera egin zuten urtarri-
lean, Candanchura, eta oso gus-
tura ibili ziren. 40tik gora lagun-
ek parte hartu zuten lehenda-
bikiko ekintza hartan.

GIZARTEA > BIZTANLEGOA

Jende askok alde egin zuen kanpora bizi izatera iaz: 76 lagunek, hain zuzen ere

A.I. > ANTZUOLA
Azkeneko sei urtetan, 2005.
urtea izan da kanpora bizi izate-
ra jende gehien joan den urtea.
76 lagunek, hain zuzen ere, alde
egin zuten iaz. Hurrengo kopuru
altuena 2002. urtean aurki-
tzen dugu; 57 biztanle joan ziren
orduko hartan. Azkeneko sei
urteotan, guztira, 291 antzuolar
gutxiago ditugu herrian, beste
norabait bizi izatera joan dire-
lako. Dena dela, etorri ere eto-

rri da jendea Antzuolara bizi izate-
ra. 2005. urtean 101 lagun eto-
rri ziren gurera.

HILDAKO GEHIAGO

Jaiotako eta hildakoei dagokie-
nean ez dugu datu oso onik. Iaz-
ko urtean, guztira, 21 lagun hil
ziren Antzuolan eta 17 ume bes-
terik ez ziren jaio. Oraindik ez
dugu 2006 hasierako biztanle
kopuruaren datu ofizialik.
Orain dela urtebete 2.043 ginene.

> ELIZA

Errukizko Amaren parroquia konpontzeko batzordea osatu dute hainbat herritarrek

Atzo, eguna, Diputazioko arduradunekin batzarra egitekoak ziren
eliza konpontzeko batzordeko kideak, dirulaguntzen gainean ber-
ba egiteko. Batzorde hori osatu dute hainbat herritarrek, eliza ego-
era kaskarrean dagoelako eta konponketa beharra daukalako.

Lanik premiazkoenak dira teilitua konpontzea eta erretea egi-
tea. Hezetasun handia egoten da, goiko aldean, bereziki. Egitura-
ri dagokionez, berezia da Antzuolako eliza: gorputz bakarreko guru-
tzadura du, barne-zutaberik gabea da.

> AURREKONTUAK

Martxoaren 10eko osoko bilkuran aurkeztuko dituzte 2006. urterako aurrekontuak

Martxoaren 10ean egingo dute hurrengo hileko osoko bilkura. Han-
txe, 2006. urteko aurrekontuak aurkeztuko eta onartuko ditzu udal-
batzarrak.

Bi zati izango dituzte aurrekontuek: batetik, Udalaren bera-
ren aurrekontua dugu; 2.016.461 euro izango da, prestatuta duten
zirriborroaren arabera. Bestetik, Antzuola Udal Etxegintzaren
aurrekontua dugu, zehaztu gabe dagoena. Hori izango da garran-
titsuena, proiektu handienak elkarrekin kudeatzen ditu-eta.

> HIRIGINTZA

Diputazioak onartu berri ditzu Udalak egindako hainbat aldaketa arau subsidiarioetan

Behoko auzoa, Eguzki auzoa eta Zurrategi hartzen dituen 3. arean
egin dituzte aldaketa batzuk; baita Olaran izeneko 5. arean eta
Zupide izeneko E alorrean ere.

Arau aldaketen helburua da 3. areako lur-zatia etxebizitzetan
erabiltzea (20 etxebizitza guztira); 5. area, bestalde, giza eta
kultura ekipamenduetara zuzendutako lur-zatia izango da. E alo-
rrean, Zupiden, azkenik, eremu horren mugak handitu egiten dira
arauen aldaketarekin.

ABAD
DEKORAZIOA
PINTURAK
ANTZUOLA
PAPER PINTATUAK

INDUSTRI MANTENIMENDUA

Jose
Gomez
Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

**LEKV-BERRI
MERENDERoa**

Janariak
eta
edariak

Tf. 943 76 60 94
ANTZUOLA

EGAÑA
Era guztiak arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

Igor Letona > Gazte lokaleko hezitzalea

"Gaztetxoek neguan aisialdirako gunea izatea da lokal honen asmoa"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA
Zapatuak zabaldu zuten Elgetan, Ozkarbi elkartearren goiko solairuan, gaztetxoendako lokalak. Asteburuetan egongo da zabalik eta gaztetxoek aisialdiko ekintzak egin ahal izango dituzte han. Besteak beste, mahai jolasetan ibili, filmak ikusi, antzerkia... Igor Letona izango da lokaleko hezitzalea.

Zabaldu berri da gaztetxoendako lokalak. Ze helbururekin?

Elgetan, herri txikia izanik, ikusi zen gaztetxoendako apena zegoela irtenbiderik. Negua gogorra izaten da, eta orain arte pilotalekuak egoten baziren ere, orain obretan daudenez lekurik gabe geratut dira. Beraz, hutsune hori betetzea izan da lokalak zabaltearen helburua. Behin lokalak edukita, nik hezitzalea lanetan jardungo dut, gaztetxoekin ekin-tzak eginge lokalkak funtzi soziala izan dezan.

Zein adinetako jendearendako da lokalak?

12 eta 16 urte artekoendako. Udal erroldan adin tarte horretako 48 gaztetxo daude eta orain goz 30 inguruk eman dute ize-na, eta baliteke beste batzuk ere inguratzea.

Zer aurkituko dute gazte lokalea joaten direnek?

Batetik, lokal bero eta erosoa; bestetik, mahai jokoak, telebista, filmak ikusteko, eta baita musika aparailua ere.

Jolasteaz, filmak ikustearaz eta musika entzuteaz gain, zein beste jarduera egingo dituzue?

Antzerki talde bat abian jar-tzea da nire asmoa, eta horretarako, materiala gertatzeko esku-lanak egingo ditugu. Bestalde,



Igor Letona arrasatearra arduratu da gazte lokalarekin. IKER BARANDIARAN

"Gazte lokalean antzerki talde bat abian jartzea da nire asmoa"

"Asteburuan marrazki lehiaketa egingo dugu logotipoa aukeratzeko"

gaztetxoak badira musika tresnak jotzen dituztenak eta musikaren inguruko ekintzaren bat ere egin nahi dugu. Ping-pong mahaia eta mahai-futbola ere ipini nahi ditugu. Gure asmoa da ping-pong mahaia gazte lokalean guk geuk egitea. Aurrerago irteerak ere egingo ditugu, seguру aski, gaztetxoekin.

Nolakoa da lokalaren funtzio-namentua?

Lehen asteburuan inuesta bat egin nuen gaztetxoen proposame-nak jasotzeko, eta horren arabera antolatuko ditut ekintzak. Nire asmoa da euren asmoak zuzen-teko lagunza ematea.

Beraz, zein da zure eginbe-harra lokalean?

Gaztetxoek eman zaie lokal bat euren zaletasunak egiteko; beraz, nire ardura izango da nire espe-rientziatik horiek betetzeko bidea ematea. Ez dut euren gainetik dagoen norbait izan nahi, baizik eta lagunduko dien norbait. Azto-ra ez daitezten eta lokalak ganoraz zain dezaten saiatuko naiz, baina betiere agintea hartu barik. Azken finean, Udalak eurendako ipini du lokalak.

Gaztetxoek, gainontzean, zein aukera dituzte Elgetan?

Eguraldi onarekin kirol dezena egiten dute, baina neguan ez dute aukerarik. Espaloira joaten dira filmak, antzerkiak, kon-zertzuak... ikustera, baina gehienetan gurasoekin; eta hemen aisialdia goza dezakete; gaine-ra, lagun giroan.

Datozen asteotarako ekintzen aurreikuspenik egin duzue?

Asteburu honetan marrazki lehiaketa egingo dugu lokalera-ko logotipoa aukeratzeko, eta ondoren horman marraztu. Ping-pong mahaia ere guk egiteko asmoa daukagu.

Nola animatuko zenuke jendea lokalera etortzera?

Esango nieke Udalak euren-dako ipini duela lokalak eta apro-betxatzeko aukera duten artean euren denbora librea pasatzeko.

bere ustez



Maria Elena Eztenaga

Hemen debekatuta dago erretzea

Erretzeak hil egiten due-la eta debekatzea erabaki dute gure agintariak lege berri honen bitartez.

Ez dut uste inolako debe-kuek indar handia dutenik ez badaude benetako borondate eta asmoak, hau da, mentaliza-zazio gogorra, legeak eragiten dien artean, kasu honetan, erretzaileen artean.

Pertsona hauei, barne-barnetik aterra behar zaie erre-tzeari uko egitea; horrela ez bada, ez dago helburu hori, hau da, erretzeari uztea, lor-tuko duen debekurik.

"Sarritan galdetu diogu geure buruari zertan gabiltzan; ezertan ere ez, erantzuten dugu"

Hori dela eta gogoeta txiki bat egin dut: bai, denok dakigu erretzearen ondorio bat biriketako minbizia dela, eta hil egin dezakeela, baina, zenbat gauza daude gure gizartean helmuga horretara eramaten gaituztenak?

Ingurumena zeharo kutsatua, osasun kudeaketa ez da beti ona, soldata *basura* deitutakoak, zer esanik ez, gosea eta pobrezia... Eta era-bat kezkaturik naukan arazo, benetan lotsagarria dena, gure gizarte aurreratu honen-dako emakumeen aurkako indarkeria.

Ez da lehenengo aldia (eta zoritzarrez ez dut uste azkena izango denik), arazo bor-titz hau dela eta, lerro batzuk idatziko ditudana, baina benetan diot gure agintari epaile eta boterean dauden hainbat gizasemek, ez dutela gauza askorik egiten, arazo hauei guztiei aurre egiteko.

Egun gutxi barru berriro ere Emakumeen Langilearen Nazioarteko Eguna ospatze-ko aukera izango dugu; eta hori dela eta izango dira han eta hemen promesa politak. Hitz gutxiago eta benetako lan sakon bat, eskatzen diegu, lehen aipatutako guztiei.

Dena den, izenburura itzu-liz, nire benetako zorion agurra, erretzeari uztea erabaki dutenei, euren osasunak eta guk, erretzen ez dugunok benetan eskertuko diegu.



GOIENKARIA

Elgetako bost piano-jole Andoainen

Andoainen elkartu ziren Euskal Herri osoko 430 piano-jole joan zen asteburuan. Euren artean bost elgetar: Iñaki Beristain, Maitena Mañarikua, Maialen Zubiaurre, Maria Sarasua eta Ibane Zubiaurre. Bakoitzak aurrez aukeratutako pieza bana jo zuen, eta diploma bana jaso zuten. Bost domina ere ekarri zituzten Elgetara: brontze-koak bi eta zilarrekoak hiru, hain zuzen ere.

> MOZIOA
Aralar ez dago ados baserri-bideei buruz erabakitakoarekin

Zenbait errepideren mantente-lanak Aldundiaren esku-tik Udalaren era pasatzeko eskarria egin zuen Udalak. Eta Aralar ez dago ados, "gaiak Baserritarren batzordeko desadostasunak agerian utzi dituelako". Udalbatzarreko zerrendan sartzea eskatu arren, eguenekoan ez zuten aurreikusita. Hurrengoan sartu ezean, presazko batzarra eskatuko du Aralarrek.

Bestalde, EAJ-EAREN ustez, Aralar protagonismo bila dabil, "bere jarduera politikoa erabat gutxituta gelditu ondoren".



KAMIOIAK Pesak esan diete autobus handiak ezin direla pasatu Gatzagako errepidetik, baina kamioi handiak egunero ibiltzen dira gora eta behera.

GARRAO BATZORDEA

GARRAOBIDEAK > AUTOBUS ZERBITZUA

Aldundiaren erantzunaren zain dago alkatea idatzia eman ostean

Garraio batzordeak egindako idatzia eman zion Koldo Azkoiari

Taxi-busa oraingoz mantendu egingo du Aldundiak

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA
Batzarra izan zuen Joxerra Perez alkateak Lurralde-Antolamenduko diputatu Koldo Azkoiariaren astelehenean. Hain zuen, Garraio batzordeak egindako idatzia eraman zion alkateak, 100 herritar ingururen babes sinadurak zituen idatzia.

ERANTZUNAREN ZAIN
Aldundiak jarritako garraio zerbitzuaren gaineko iritziz ezkorra jaso zuten batzordeko kideek idatzian, eta bide batez zer gura

dutzen azaldu. Horixe eman zion alkateak Koldo Azkoiari astelehenean, baina batzarretik erantzun garbirik ezin izan zien ekarri herritarrei Joxerrak. Urtarilaren 30ean jarri zuen garraio zerbitzua Aldundiak, hau da, taxi-busaren bitartez Eskoriaztara joan-eroriak eta ikastetxera doan autobusaren zerbitzua. Eta oraingoz mantendu egingo dute jarritako zerbitzua, nahiz eta herritarrek kentzeko eskatu zioten Udalari orain aste bi egindako osoko bilkuraren.

"Pesa autobus konpainiarenkin beste aukera batzuk aztertuko dituela esan zuen Koldok, herritarrek eskatzen duten ildotik", dio alkateak. Hori ez da berria Pesarekin, lehen ere berbaldiak izan zituelako Aldundiak. Bai alkatea, bai herritarrek diputatuaren erabakiaren zain geratu dira orain. Eta ez hori bakarrik: Garraio batzordearen izenean alkateak eramandako idatziari erantzuna emango dionte Aldundiko ordezkariek. Gainera, Joxerraren esanetan, Koldo

JAIAK > INAUTERIAK

Inauteri-zapatuko afarirako txartelak salgai daude Labidean, 20 eta 10 euroren truke

M.A. > LEINTZ GATZAGA
Geroago eta hurrago daude Inauteriak, eta batzuk mozorroak geratzen hasi badira, beste batzuek jaietako gertatu behar dute. Hain zuen ere, otsailaren 25ean, zapatuan, ospatuko dituzte gatzagarek Inauteriak, eta, azken urteotako legez, afari-lege ederraz gozatuz egingo dute.

Labidea dendar erosibehar dira afarira joateko txartelak; nagusiek 20 euroren truke dituzte eta 15 urtetik beherakoek 10 euro ordainduta. Jon Sasiain Kultura zinegotziaren esanetan, menua iazkoaren antzekoa izango da: "Iaz janari gehiegiz jarri genuen eta bildotsa oso gutxik jan zuten; hortaz, antzeko afaria izan-

go da, baina sarrera gutxiagorekin, guztiok probatu ahal izateko bildotsa goxoa". 32 nagusi inguru elkartu ziren iaz, baina aurten gehiago izango diren susmoa dauka Jonek, herritarra dagoneko hasi direlako txartelak erositen. Afalosteak Kuluska taldeak girotuko die gatzagarrei dantza di bikainarekin.

Taxi-busa, bertsoetarako gai

Taxi-busaren gaineko iritzia bidali gura diete gatzagarrek Diputazioko ordezkariei, eta euren haserrean bertsoen bitartez agerrazti.

Diputatuak ibiltzen dira
Aigekin errepidetik
Txistu biziyan pasatzen dira
Gure begien aurriyan
Aldundiak haserre gaude
Gatzagatarren herriyan
Busa ikusi nahi dugulako
Marulandako aldapiyan.

Errege bide izan zelako
Denok ditugu goguan
Erdi aruan gurdiyak eta
Trena aro modernuan
Taxi ziztrin bat ekarri dute
Bakarra egun osuan
Bi buru ezingo dira estali
txapel bakarraz eskuan.

do ez zen ados agertu idatziko puntu batzuekin; esaterako, Aldundiak Gatzagan ezer ez dueela egin esaten duen esaldiarekin. Batzordeko kideek argitu gura izan dute garraioarekin lotu behar dela aipatutako esaldia, eta oso minduta daudela ez die lako inolako begirunerik erakutsi Aldundiak bere jarrerarekin.

BATZORDEA LANEAN

Aldundiak ez du eperik jarri erabakia hartzeko. Horrela, bada, Garraio batzordeak lanean jarraituko du, eta asko luzatuz gero erantzuna, beste era bateko neurriak hartzen hasteko gertu azaldu ziren orain dela aste bi. Bestalde, Mankomunitateari ere jakinarazi edo gogorarazi gura diote Gatzagan daukaten arazoa, eta zerbait egin dezan eskatuko dio te batzordeko kideek.

Horrez gain, komunikabideetara eraman gura dute garraioaren auzia eta datozen asteotan batzordeko kideen nahiz herritarren iritzia argitaratu gura dituzte. Gaur kaleratutako argazkiarekin argi utzi gura dute kamioi handiak ibiltzen direla Gatzagako errepidetan inolako baimen berezi barik; hortaz, autobusek debekatuta dutela pasatzea esatea, Pesak uste du ez duela zentzu handirik.

> HIRIGINTZA
Argindarra kenduko dute domekan, 08:00etatik 10:00etara

Iberdrolak jakinarazi dio Udalari argindarra kenduko duela domeka goizean Gatzagan. 08:00etatik 10:00etara bitartean izango da eta argia berriz noiz jarriko duen ez du jakinaraziko. Hobekuntza lanak egin gura ditu Iberdrolak sarean, eta horretarako derrigorrez moztu behar du argindarra. Bai herrian, bai baserrietan moztuko du.

> KIROLAK
Dorletako Ama Txirrindulari Eskolaren aurkezpena

Bihar, zapatua, Dorletako Ama Txirrindulari Eskolak denboraldiari hasiera emango dion aurkezpen ekitaldia egingo du Gatzagan bertan. 10:30ean Dorletako Santutegian elkartuko dira Ama Birjinari eskaintza egiteko, eta 11:30ean aurkezpen ekitaldia egingo dute gastronomia elkartean. Denboraldian jardungo duten txirrindularien berri emango dute.

> MU-KO TXAPELKETA
Unibertsitateen arteko txapelketa martitzenean

Mondragon Unibertsitateko fakultateen arteko kirol lehia egingo dute datorren martitzenean Iturripen, 10:00etan. Irabazleak martxoaren 8an EHuko eta Deustuko Unibertsitateen kontrako txapelketarako sailkatuko dira. Aurten, Muri egokitzen zaio txapelketa hori antolatzea.

> FUTBOLA
Aloña Mendik etxeana eta UDAk eta Mondrak kanpoan

Oñatiko taldeak azkeneko postuan dagoen Allerru harlauko du domekan Azkoagainen (16:30). Aretxabaletak, berriz, Erreenterian jokatuko du bihar arratsaldean (16:30), eta Pasaiako taldearen kontra neurituko ditu indarrak. Azkenik, Mondrak Idiazabalen jokatuko du bihar (16:30).

> ARETO FUTBOLA
Eskoriatzako taldea Beti Arinen kantxara, etekin bila

Joan den astean bistan geratu zen Eskoriatzaren eta Zierbanaren artean indarrak pare-parean daudela (3-3).

Eskoriatzakoek, baina, sailkapenean atzean utzi dute talde hori, eta bihar (17:30), aurrerago dabilen Beti Arinen kantxara joango dira etekin bila, Zornotzara.

> SASKIBALOIA
Mugarri Alkesak liderraren kantxan jokatuko du

Gorka Zurututzaren taldeak oraingo asteburuan bolada onari eusten badio aurrera-pauso galanta egingo du, lider dagoen Consmetalen kantxan jokatuko du-eta (bihar, 18:00). Larraonako taldeak hamabi partidu jokatu ditu, eta bakarra galdu du; ez da nolanahi-ko kontrarioa.

> FUTBOLA
Realeko akzioak astelehenetik aurrera salduko dituzte

Astelehenean jarriko dute abian Realeko kapitala handitzeko prozesua. Horrela, Realeko bazkideek onartu bezala, Realeko akzioak salgai egongo dira. Lehenengo fasean, orain arte bazkide izan direnek erosi ahal izango dituzte akzioak. Euskadi-ko Kutxan eta Kutxan erosi ahal izango dira.

HENRY BAZAN PERES > ALOÑA MENDIKO JOKALARI BOLIVIARRA

"Aloña Mendirekin hirugarren mailara igotzea da nire ametsa"

Boliviako lehenengo mailan talde barik geratu, eta Europara etortzea erabaki zuen

Lau hilabete egin ditu Oñatin, eta lana eta futbolean egiteko taldea aurkitu ditu

XABIER URTZELAI > OÑATI
Futbolean, bizitzako beste arlo askotan moduan, kontatzeko moduko istorioak daude, eta 21 urteko gazte boliviar horrera da horietako bat. Egun batetik bestera, ordu batetik bestera bizitza zenbateraino alda daitekeen era-kusten duen adibide garbia. Henryrekin eta entrenatzaile Aitor Oruetarekin izan gara.

FUTBOLARI PROFESIONALA
Santa Cruz de la Sierra hirikoa da Henry, eta futbola izan du, orain arte, ogibide. Lehenengo mailako Blooming taldetik Oriente Petrolerok fitxatu zuen. Ezertan jarraitu aurretik, baina, hango txapelketaren gainean hainbat argibide ematea komeni da: "Bolivian denboraldi batek urte eta erdi irauten du. 2005eko urtarrilean hasi genuen denboraldia, eta 2006ko uztailean amaituko dute. Urte eta erdi horretan hiru txapelketa jokatzen ditugu: Aerosur, Apertura eta Clausura. Lehenengo txapelketan txapeldunak izan gin, baina Apertura txapelketa hasi zenean hiru partidu jarraian galdu eta entrenatzailea aldatu egin zuten. Entrenatzaile berriak bere jokalariai ekarri zituen, eta ordura arte titular izan banintzen ere, kanpoan geratu nintzen".

BOLIVIATIK OÑATIRIA
Han geratu ziren hainbat jokalari, taldetik kampo eta denboraldia amaitu arte inork fitxatu ezinda. Orduan erabaki zuen Europara etortzea: "Oñatin neukan neska-laguna lanean, eta lehenengo egunak hara eta hona egin nituen, herria ezagutzen. Nire asmoa zen futbolean entrenatu ahal izatea. Halako batean, paseatzen nentilela Ibarra futbol zelaiko argiek erakarrita gaztetxoak ikusi nituen futbolean". Henryk hainbat egin egin zituen nagusien entrenamenduak ikusten, atezañaren atzean. Lotsa ematen zion ezer esatea, eta azkenean abade batekin berba egin eez lortu zuen taldearekin lehenengo hartu-eman. Aitor Oruetak jarraitu du berbetan: "Entrenatzeko utziko ote genion galduzu zigun eta guk baietz esan genion. Entrenatzeko arropa utzi genion, baita kalean ibiltzeko arropak eta



ENTRENATU Hori zen Henryk egin gura zuen gauza bakarra.

XABIER URTZELAI

lo egiteko mantak ere, hemen Bolivian baino hotz askoz ere handia-goa egiten du-eta".

Oñatiko entrenatzailea berehala ohartu zen Henryk futbolean jokatzeko duen gaitasunaz, eta zuzendaritzan galdu eta gero, taldeko fitxa egin zioten: "Kostatu zitzzion hemengo erritmora moldatzea, zelai txikiak, kontaktu handiko futbola... Hala ere, ikus-ten zen azkarra eta trebea zela".

GERO ETA ZAITASUN HANDIAGOAK

Futbolean gustura ibilta ere, eguneroko bizitzan Henryk zaitasun handiak zituen: "Inori ez nion ezer esan, baina larri nembilen, hona etortzeko dirua eskatu nuelako eta ez nuelako lanik aurkitzen". Aitorrek jarraitu du berbetan: "Argiketari lana eman zion lagun batek, eta nahikoa egin zuen hark, baina ezin zion askorik ordaindu".

Hala, pare bat hilabete Oñatin egon eta gero, Boliviara itzultzeo beharrean zegoen Henryk, erabat etsita: "Lagunen artean ordaindu behar genion bidaia, eta Galizia tabernara joan gin, agurtzen". Eta, hilabete batzuk lehenago bizitza zeharo aldatu bazitzaion, abenduko ilunkera hartan gauza bera gertatu zen: "Agurtzen genbiltzala, Galizia tabernako Manolori zerbitzari bat ez ote zuen behar galdu genion, eta hark baietz erantzun zigun. Gura bazuen, asteburuetan egingo zuela lan, eta futbolean jokatzen jarraitzeko ez zuela inongo arazorik egongo". Henryk jarraitu du berbetan: "Gau hartan horren zoriontsua nintzen, lo ere ezin izan nuen egin".

Ordutik hona Galizia tabernan dabil Henryk, eta han irabazten duenarekin etxebizitzan hobe batera joan ahal izan dira bera eta neskakaguna, baita etxera dirua bidali ere: "Ezingo dut seku-la ahaztu Manolok eta familiaokek zelan hartu nauten; etxeko bat gehiago naiz. Eskerrak eman gura dizkiet egin duten guztiagatik. Eurekin batera, Aitorri, lagunei, Aloñakoei... Denei eman gura dizkiet eskerrak".

UZTAILA GERO ETA GERTUAGO

Oso pozik dabil Henryk, baina badaki uztaila gero eta gertuago dagoela, eta orduan erabakia haritu beharko duela: "Pena handia emango dit Oñati eta bertako jendea atzean uztea. Dagoeneko badakit Bolivian lehenengo mailako talderen batean lekuia izango dudala, familiarekin jarri dira eta harremanetan. Vila-real taldeko Peñarekin ere izan nintzen Anoetan eta hark esan zidan Boliviara joan behar nuela, futbolean egiteko gaztea naiz-eta". Etxe-ra itzulita ere, Henryk badaki Oñatik Elorregitik aurrera egoten segituko duela.

"Boliviara itzultzen banaiz pena handia emango dit Oñati eta Aloña atzean uzteak"

"Eskerrak eman gura dizkiet Manolori eta familiaokei, eta baita Aitorri eta Aloñakoei ere"

"Badakit Boliviara itzultzen banaiz lehenengo mailan jokatuko dudala"

Taldea kategoriaz igoko balitz, Henryk ezingo luke jokatu

Aloña Mendi hirugarren mailan ikustea da Henryk ametsa. Hori lortuko balute, baina, Henryk ezingo luke Oñatiko taldearekin jokatu: "Lehenengo edo bigarren mailetan profesional modura jardungo nuke, kontratuarekin. Baina hirugarren mailan ez dago horrelakorik, eta ezingo nuke taldean jarraitu". Hori izan daiteke Boliviara joatera bultzatuko duen beste arrazoi bat.

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Euskadiko gazteen liga
Peña Ath. - Aloña Mendi
Zapatura: 15:45. Santurtzi.

Preferente maila
Pasajes - Aretxabaleta
Zapatura: 16:30. Don Bosco.
Aloña Mendi - Alleru
Domeka: 16:30. Azkocagain.
Idiazabal - Mondra
Zapatura: 16:30. Idiazabal.

Lehen erregionala
Amaikak Bat - Bergara
Eguena, hilak 23, 19:30,
Deba, (atzeratutako).
Bergara - Rurrera Ondarroa
Zapatura: 16:15. Agorosin.

Bigarren erregionala
Aretxabaleta - Union Txiki
Domeka: 16:30. Ibarra.
Antzuola - Tolosa
Zapatura: 16:00. Antzuola.

Ohorezko mailako gazteak
Aretxabaleta - A. Ondarroa
Eguaztuna, hilak 22, 19:30,
Ibarra, (Atzeratutako).
Mondra - Hondarribia
Zapatura: 12:00. Atxabale.
Aretxabaleta - Urola
Zapatura: 16:30. Ibarra.
Bergara - Ordizia
Zapatura: 18:15. Ipintza.

Lehen mailako gazteak
San Inazio - Bergara
Zapatura: 12:30. Donostia.
Lasarte Oria - Arizmendi Are.
Zapatura: 15:30. Lasarte.
Segura - Antzuola
Zapatura: 16:00. Alustiza.

Bigarren mailako gazteak
(Igoera fasea)
Vasconia - Arrasate
Zapatura: 17:15. Martutene.

Ohorezko mailako
kadeteak
Eibar - Aloña Mendi
Domeka: 15:30. Unbe.
Bergara - Lengokoak
Zapatura: 11:30. Ipintza.

Lehen mailako kadeteak
Arrasate - A. Ondarroa
Domeka: 11:00. Atxabale.
Arizmendi Aretx. - Elgoibar.
Zapatura: 11:30. Ibarra.

Bigarren mailako
kadeteak
Oiarzun - Arizmendi Aretx.
Zapatura: 10:30. Ugaldetxo.
Billabona - Bergara
Zapatura: 11:30. Arratzain.

Ohorezko mailako
infantilak
Elgoibar - Aloña Mendi
Domeka: 12:00. Mintxeta.
Tolosa - Arizmendi Aretxab.
Zapatura: 11:00. Usabal.

Lehen mailako infantilak
(Igoera fasea)
Bergara - Sto. Lizeoa
Domeka: 11:30. Ipintza.
Vasconia - Arrasate
Domeka: 11:00. Martutene.

Infantil txikiak
Eibar - Arizmendi Aretx.
Domeka: 10:30. Unbe.

Emakumezkoen Liga,
igoera fasea, 1. taldea
Luberri - Bergara
Zapatura: 19:15. Berio.
Arizmendi Are. - Anaitasuna
Zapatura: 11:30. Almen.

Emakumezkoen Liga,
igoera fasea, 2. taldea
Mondra - Mutrikua
Zapatura: 16:15. Atxabale.

Emakumezkoak, Kopa
Zumaiako - Aloña Mendi
Zapatura: 12:30. Aita Mari.

Emakumezkoak, F8
kadete maila
Ari. Aretxa. - Ariz. Arrasate
Gaur: 17:00. Almen.

Ordizia - Bergara
Domeka: 11:30. Altamira.
Arizmendi Are. - Urola
Domeka: 11:00. Almen.

Bigarren maila territoriala
Arrasate - BKL CAF
Zapatura: 17:30. Iturripe.

Alebinak
Bergara - Antiguoko
Domeka: 10:00. Ipintza.
Zumaiako - Aretxebaleta
Domeka: 11:00. Aita Mari.

Sanse - Arrasate
Domeka: 12:00. Felix Garin.
San Martzial - Aloña Mendi
Domeka: 10:30. Irun (Gal).

ARETO FUTBOLA

Nazional B maila
Beti Arin - Eskoriatza
Zapatura: 17:30. Larrea.

Gaze mailako liga
nacionala
Berrioxoa - Aloña Mendi
Domeka: 16:30. Berrioxoa.

Aloña Mendi - Artaromo
Zapatura: 16:30. Zubikoa.

Gipuzkoako liga
Ventanas - Aloña Mendi
Zapatura: 17:10. Lasarte.

Gaze maila
Hirukide Esko. - Eskoriatza
Zapatura: 16:00. Tolosa.

SASKIBALOA

Lehen maila
Consmetal - Mugarr Alkesa
Zapatura: 18:00. Iruñea.

Gipuzkoako ligako senior
maila (gizonezkoak)
Oiarso - Aloña Mendi
Domeka: 11:45. Erreteria.

Gipuzkoako ligako senior
maila (emakumezkoak)
Eskoriatza - Fonseca
Zapatura: 18:00. Intxauruet.

Lasarte Oria - Aloña Mendi
Domeka: 11:00. Lasarte.

Gipuzkoako ligako gazte
maila (gizonezkoak)
Mugarr Alkesa - Goierri
Zapatura: 12:00. Musakola.

Aloña Mendi - Hernani
Zapatura: 11:00. Zubikoa.

Gipuzkoako ligako kadete
maila (gizonezkoak)
Mugarr Alkesa - Andraitz
Gaur: 20:00. Musakola.

Goierri - Aloña Mendi
Domeka: 12:15. Urretxu.

Mugarri Alkesa - Zarautz
Zapatura: 10:00. Musakola.
Gipuzkoako ligako kadete
maila (emakumezkoak)
Salletarrak - Eskoriatza
Zapatura: 16:00. Donostia.

ESKUBALOIA

Euskadiko kadete maila
(emakumezkoak)
Verkol Aloña - Kukullaga
Zapatura: 17:30. Zubikoa.

Lehen maila territoriala
Bergara - Ursibil
Zapatura: 17:45. Labegariet.

Leizaran - Arrizkutz Oñati
Domeka: 10:00. Andoain.

Urola - Ford Mugarr Arras.

Domeka: 11:00. Zumarraga.

Bigarren maila territoriala
Arrasate - BKL CAF
Zapatura: 17:30. Iturripe.

Gaze maila
Bergara - Urola
Zapatura: 16:00. Labegariet.

Aloña Mendi - Gatz Museoa
Zapatura: 19:00. Zubikoa.

Gaze mailako Udaberri
txapelketa (emakumez.)
Arrasate - Elgoibar.
Zapatura: 16:00. Iturripe.

Aiala Zarautz - Verkol Aloña
Zapatura: 12:00. Zarautz.

Legazpi - Verkol Aloña
Domeka: 11:15. Legazpi.

Kadete mailako Udaberri
txapelketa (gizonezkoak)
Grosek - Gatz Museoa Jak.
Domeka: 10:30. Donostia.

Gipuzkoako kadete mailako
azken fasea

Aloña Mendi - Urola Azt
Domeka: 12:00. Zubikoa.

ERRUGBIA

Euskal ligako senior maila
Zarautz - Arrasate
Zapatura: 16:00. Zarautz.

Gaze maila
Hirukide Esko. - Eskoriatza
Zapatura: 16:00. Zarautz.

SASKIBALOA

Lehen maila
Consmetal - Mugarr Alkesa
Zapatura: 18:00. Iruñea.

Gipuzkoako ligako senior
maila (gizonezkoak)
Oiarso - Aloña Mendi
Domeka: 11:45. Erreteria.

Gipuzkoako ligako senior
maila (emakumezkoak)
Eskoriatza - Fonseca
Zapatura: 18:00. Intxauruet.

Lasarte Oria - Aloña Mendi
Domeka: 11:00. Lasarte.

Gipuzkoako ligako gazte
maila (gizonezkoak)
Mugarr Alkesa - Goierri
Zapatura: 12:00. Musakola.

Aloña Mendi - Hernani
Zapatura: 11:00. Zubikoa.

Gipuzkoako ligako kadete
maila (gizonezkoak)
Mugarr Alkesa - Andraitz
Gaur: 20:00. Musakola.

Goierri - Aloña Mendi
Domeka: 12:15. Urretxu.



HAMAHIRU Inoiz baino karateka gehiago joango dira Aretxabaletatik, hamahiru guztira.

O. VAZQUEZ

KARATEA > ESKOLA MAILAKO TXAPELKETA BIHAR OÑATIN

"Epaile gutxi ditugu hiru tatami erabiltzeko"

Eskola Mailako Karate Txapelketa jokatuko dute
bihar arratsaldean Zubikoa kirolegian (16:30)


XABIER URTZELAI > OÑATI

Debagoieneko karate klubetako
ehun gazte baino gehiagorekin
batera, Eibarko gaztetxoek ere
hartuko dute esku bihar Oñatin
egingo duten karate txapelketan.
Kata eta kumite modalitateetan
maila onena erakusten dutenek
saria izango dute, Gipuzkoako
Txapelketarako sailkatuko dira
eta. Hala, Gipuzkoan bi multzo

egin dituzte txapelketa horretarako
sailkatzen: Donostia aldean
egindo dute kanporaketa bat eta
Oñatin egingo dute bestea.

EPAILE GUTXIREKIN

Oñatiko taldeko entrenatzaile
Alberto Leraren esanetan, epai-
leak aurkitzea da horrelako txape-
lketa batek duen zaitasun han-
dienetakoak: "Hiru tatami jarri



Abel Barriola.

> PILOTA

Barriolak Bergaran jokatuko du domekan, eta Eugi izango du bikote

Zazpi hilabete geldi egon eta gero,
joan den astean Tolosako pilota-
lekuan jardun zuen Abel Barrio-
lak, Capellanekin batera. Tolosan
ikusitakoarekin, badirudi Leitzako
pilotariak atzean utzi due-
la lesioa, eta ibarreko pilotazaleek
bertatik bertara ikusi ahal
izango dute hori, domekan. Eugik
eta Barriolak Chafee eta Goñi
III.aren kontra jokatuko dute
Aspek antolatu duen pilota jaial-
dian (17:00). Beste bi partidu ere
izango dira.

ASPEPELOTA Goi mailako pilota ikuskizuna

Berasaluze IX - Nalda III / Apezetxea - Apeztegia

Eugi - Barriola / Chafee - Goñi III

Larralde - Zubieta / Baleztena - Arizmendi



- **Eguna:** igandea, otsailaren 19a.
- **Ordua:** 17:00etan.
- **Lekua:** Bergarako Udal Pilotaleku.

Erreserbak baita interneten ere: www.aspepelota.com




Eskubaloiko derbia izango da asteburuan, gazte mailan
Aloña Mendik eta Arrasateko Gatz Museoa Jakioneak derbia joka-
tuko dute bihar arratsaldean Zubikoan (19:00).

Goienkaria **33.825** irakurle




GOIENKARIA: askogatik, irakurriena*

El Diario Vasco **17.765** irakurle




Gara **5.060** irakurle



Berria **2.310** irakurle




El País **1.430** irakurle



Marca **1.265** irakurle




Mundo Deportivo **715** irakurle



El Correo **605** irakurle



Deia **275** irakurle



- GOIENKARIA da Debagoienean gehien irakurtzen den hedabidea.
- Bigarren hedabidea baino bi bider gehiago irakurtzen da.
- Debagoendarren %60,5ek astero irakurtzen du GOIENKARIA.

Eskerrik asko, irakurle.

Goienkaria

*CIES-EK EMANDAKO DATUAK

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> PIZTIAK

taldearen emanaldia gaur Elgetako Espaloian > **45**

> KOMUNIKAZIOA

GOIENKARIA, Debagoieneko hedabiderik irakurriena > **51**

> **MAIALEN ARROIABE**
Eskarmentu handia du Maialenek publizitate-modelo lanetan; hiru urte darama Madrilen, modelo lanak eta ikasketak tartekatzen. > **50**



GERRAKO AGIRIAK BERGARAN

EUSKADIKO Ondare Dokumentalaren zentroa Errekalde Jauregian dago

KAZETARI ugari hurbildu da bertara, Salamancako artxiboen polemika dela eta

GIPUZKOAKO Artxibo Historikoa oraindik inauguratzeko dago Oñatin



IÑAKI ITURBE

HISTORIA > EUSKADIKO ONDARE DOKUMENTALAREN ZENTROA

Espainiako gerra sasoiko testigantza ugari dago Bergarako Irargi zentroan

Espainiako gerra garaiko artxiboei dagokienez, besteak beste Beyris fondoa dago Irargin

Dokumentazio historikoarekin batera, Internet bidez zabaltzen duten datu basea daukate

EDU MENDIBIL > BERGARA

Bergarako San Pedro parrokiaren atzealdean dago Errekalde jauregia. 1984a ezkerro hantxe dago Irargin, Euskadiko Ondare Dokumentalaren zentroa. Irargin biltzen den dokumentazio historikoaren artean, alde batetik euskal gobernuaren artxiboa eta osagarri diren fondoak (Beitia, Azua eta beste batzuk) daude; bestetik, partikularrek utzitako artxibo pribatuak (Ozeta, Heriz, Mitxelena...); eta, azkenik, Euskal Herriarekin zerikusia duten artxibo mikrofilmatuak (Salamancako eta Madrileko Artxibo Historiko Nazionala). Era berean, zenbait udal artxiboren eta artxibo partikularren erreprodukzioak gordetzen dituzte baita Errekalde jauregian.

GERRAKO TESTIMONIOAK

Espainiako gerra garaiko artxiboei dagokienez, Beyris fondoa dago Irargin gordeta. Bilbon, Santanderren eta Bartzelonan Francoren tropak sartu zirenean, dokumentazio ugari gorde tzea lortu zuten, Parisko euskal gobernuaren egoitzara biderita. Ondoren, II. Mundu Gerra izan zenean, naziengandik salbatzeko Iparraldean gorde zuten, naziek Francori eman nahi zizkioten-eta artxibo horiek. Baionako Beyris auzoko Izarra-Eneara iritsi ziren agiriak eta ordutik hona Beyris izenarekin ezagutzen da fondo hori. Espainiako gerraren sasoiko artxibo gehiago dago Irargin:

Bidasoa, Blasco Olaetxea, Pedro Beitia eta Ruiz de Agirre, besteak beste. Blasco Olaetxearen fondoan gerran parte hartu zuten ei gindako elkarrizketak aurki daitezke, audio formatuan. 1970eko hamarkadan eginiko elkarrizketak dira.

Zazpi lagun ari dira Irargin zentroan lanean eta Borja Aginagade dugu zuzendaria. Hark zera argitu digu: "Euskal Gobernuaren artxiboen zati bat dauagu, 5.654 agiri Beyris fondoan. Horiekin batera Salamancan gaur egun diren fondoekin eta gure laguntzarekin Sabino Arana Fundazioak berreskuratzen diharduen fondoekin osatzen da artxiboa, besteak beste. Euskal Herriari eta gerrari erreferentzia egiten dioten Salamancan artxibutako 260 kaxen kokapen naturala Euskadiko Artxibo Nazionala litzateke".

Hain zuzen ere, Euskadiko Artxiboa oraino legealdian zabaltzeko asmoa dauka Jauritzak, baina kokapena non izango duen erabakitzeko dago, kiniela guztietan Bilbo azaltzen den arren. Ikusteko dago Euskadiko Artxiboa zabaltzeak nolako eragina izango duen Irarginen.

KONTSULTA UGARI

Dokumentazio historikoarekin batera, Internet bidez zabaltzen duten datu basea daukate Irargin zentroan. Datu base horretan, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako elizbarrutietako jaiotze liburuak dira kontsultatuenak. Iturriak bilduman.




ARTXIBOAK Espainiako gerrari buruzko artxibo ugari dago Bergarako Irargin zentroan.

E.M.

2.200.000 erregistro inguru dauzka eta urtero, batez beste, 300 bat kontsulta jasotzen dituzte Irargin zentroan. Hauxe duzue helbide elektronikoa: informazioa@irargin.org.

Era berean, interesatuek Irarginen webgunera jo dezakete, zentroan dagoen dokumentazioaren eta argitalpenen gaineko azalpen gehiago jasotzeko: www.irargin.org. 1995ean, esaterako, hain ospetsu egin diren Salamancako euskal artxiboen gaineko inbentarioa argitaratu zuen Irargin, Iturriak bilduman.



HISTORIA Gerra ostean Agirre lehendakariari bidalitako agiri bat.

E.M.


Oñatiko Artxibo Historiko Probintzialaren eta Arrasateko Udal Artxiboa zain

Debagoieneko udal artxiboez gain, Oñatin bi artxibo ditugu: Unibertsitatean dagoen Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa batetik eta Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintziala (argazkian) bestetik. Orain dela hiru urte egin zuten Gipuzkoako Artxibo Historikoa Ibarra zelaian, baina oraindik inaugurateko dago. Espainiako Kultura Ministerioak egindako eraikina da, eta, beste hainbat komunitatetan gertatu den moduan, bi administrazioek bat egitea litzateke logikoa. Oraingoz, behintzat, bereiztuta daude bi artxiboen. Esther Jimeno da artxiboa berriko zuzendaria abuztutik.

2004ko abuztuan urpean geratu zen Arrasateko Udal Artxiboa, udaletxeko sotoan. Agiriak berreskuratzeko lanetarako 400.000 euro inguru aurreikusi ditu Udalak. Madrilen egiten ari diren lan horiek aurten amaitzea da asmoa. Berreskuratutako agiriak batzuk Oñatiko artxiboa berrian dira jadanik. Etorkizunean, Arrasateko Udal Artxiboa Monterron jauregian kokatzeko aukera aztertzen ari dira. Monterronen gaur diren zerbitzuak Seber Altubeko kultura etxean eskainiko dira etorkizunean eta artxiboa jasotzeko libre geratuko litzateke Monterron jauregia.



OIHANA ELORTZA



SWAMP FACTORY AEbetako hegoaldeko rockaren ikur Creedenceren kantuak eskainiko ditu gaur 3.60 aretoan. GRUPOS CLONICOS

MUSIKA > CREEDANCE CLEARWATER REVIVAL-EN BERTSIOAK, SWAMP FACTORYREN ESKUTIK

Creedence Clearwater taldeari omenaldia gaur

Gaur, egubakoitza, hainbat musika emanaldi interesgarri daude Arrasaten eta Elgetan

IKER BARANDIARAN > DEBAGOIENA
Aspaldian joera handia dago iraganeko rock talde handien omeneko bandak sortzeko. Eskarmentu handiko musikariekin euren idoloen janzkerarekin talde horien kantuekin osatutako emanaldiak egiten dituzte. Horien artean nabarmendu behar dugu Swamp Factory, Kaliforniako Creedence Clearwater

talde handiaren bertsioez osatuako kontzertuak egiten dituena. Gaur, egubakoitza, Arrasateko 3.60 aretoan emanaldia egingo du 23:00etan.

Bartzelona sortutako talde horrek AEbetako hegoaldeko rocka edo swamp rock deritzona berpiztu egingo du taula gainean, nostalgiko eta rock-zale guztien gozamenerako. Garran-

tzian Beatlesen parera jarri zuten 60ko hamarkadako talde handia.

PIZTIAK ETA TURBOAMOR

Gaur, egubakoitza, beste bi musika hitzordu garrantzitsu daude ibarrean. Batetik, Elgetako Espainian Piztiak taldeak musika eta ikus-entzunezkoak batzen dituen emanaldia egingo du, 22:30ean.

Bestetik, Arrasateko Gure Leku tabernan Turboamor taldeak ukitu bereziko pop-rock emanaldia egingo du, 23:00etan. Oso emanaldi gutxi egiten dituzte.

ZINEMA

Arrasateko emakumeen gaineko film laburrak

I.B. > ARRASATE

Arrasateko Udaleko Berdin-tasun Sailak *Emakumeak Arrasateko Historian* izeneko film laburren lehiaketa antolatu du. Edozein nazionalitateko errealizadoreek esku har dezakete, banaka edo taldean, baldin eta emakumeek Arrasateko bizitza sozial, politiko, kultural eta ekonomikoan egin dituzten ekarpenak jasotzen baditu.

Lanek 2003ko urtarrilaren 1aren ondoren egindakoak izan beharko dute, eta egi-le bakoitzak bi lan aurkeztu ahal izango ditu, betiere ekainen 2a baino lehenago.

Informazio zabalagoa: emakume@arrasate-mondragon.net edo 943 79 41 39.



GOIENKARIA

Ribas eta Iraegi, komiki lehiaketan irabazle

Arrasateko Julen Ribasek eta Bergarako Jon Iraegik sari bana jaso dute Xirika astekariak antolatu duen Kakarraldo konspirazioa Komiki Lehiaketen. Ribasek eta Iraegik, biek hala biek, ilustrazioarekin eta komikiarekin lotutako ikasketak egin zituzten Bartzelona. Argazkian, Julen Ribas, lehiaketarako egin duen komikia erakusten.



GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA

Espaniako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.

Boni Laskurain 3 BERGARA

943 76 35 71

ESTETIKA PROFESIONALEKO KONTSULTA

Azidoek azala zaintzen laguntzen digute

Zertarako balio dute azido glikolikoek? Azido glikolikodun kremez eta tratamenduez hitz egiten didatenean, sekula ez dakit zer den. Azido mota gehiago daude ala horiek bakarrik erabiltzen dira? Aurrekoan azido glikolikoa (%5) duen krema bat gomendatu zidaten, eta orain aurpegia gorrituta daukat. Noiz edo noiz esan ditate azidoak dituzten tratamenduak onak direla, baina ez naiz askorik fidatzen. Ez zait azala erreko, ezta? Leire A.

Leire, hitz gutxitan azalduko dizut azidoen garantzia.

Alfa Hidroxiazidoak (AHA) zitokinoen produkzioa aktibatzen du; horrela, kolagenoaren sintesia, elastina eta glikosaminoglikanoak (azido hialuronikoa) errazten diru; substantzia horiek denborarekin aldatu egiten dira, eta zahartza eragin. Bere aplikazioa laguntza handikoa da, gehienbat kontrolatutako tratamenduetan.

Azido glikolikoa kantitate desberdinetan: %5etik %70era bitartekoak.

Azido glikolikoa krema edo geletan (hainbat azal motatan ematen da).

Azido glikolikoa: korneozitoen kohesioa txikitzen du eta kornea geruzaren sendotzeari aurre hartzen dio. Kontzentrazioaren arabera arazo bat edo beste konpontzeko erabiliko da.

Leire, segituko dugu hitz egiten.



Maria Isabel Hurtado

Dermatizista

e-maila: mi.hs@euskalnet.net

**1/ ETXEBIZITZAK****101. SALDU**

Aretxabaleta. Hiru gela. Bi balkoi. Dena kanoaldera begira. Ganbara du. 605 75 72 97.

Arrasate. Etxea salgai Agirre kalean. Berriutu egin behar da. 649 55 48 10.

Arrasate. Etxebizitza salgai Santa Teresia. Bi logela, bainuge...

la, egongela, sukaldia, pasilloa eta balkoia ditu. Erabat berriuta eta jantzia. 69 metro koadro. 943 77 06 82 edo 667 89 28 38.

Arrasate. Makatzena auzoan etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, jangela, bainugela eta ganbara. 680 77 06 44.

Arrasate. Uribarri etorbidean. Hiru logela, bi bainugela, egongela sukaldia eta ganbara. Guztiz jantzia. Berriutu. Telefo...

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

- 101. SALDU
- 102. EROSI
- 103. ERRENTAN EMAN
- 104. ERRENTAN HARTU
- 105. ETXEAK OSATU
- 106. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK

- 201. SALDU
- 202. EROSI
- 203. ERRENTAN EMAN
- 204. ERRENTAN HARTU
- 205. BESTELAKOAK

3. LOKALAK

- 301. SALDU
- 302. EROSI
- 303. ERRENTAN EMAN
- 304. ERRENTAN HARTU
- 305. BESTELAKOAK

4. LANA

- 401. ESKAINITZAK
- 402. ESKAERAK
- 403. ERRENTAN EMAN
- 404. ERRENTAN HARTU
- 405. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA

- 501. JASO
- 502. EMAN
- 503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA

- 601. SALDU
- 602. EROSI
- 603. ALOKATU
- 603. KONPONDU
- 604. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK

- 701. SALDU
- 702. EROSI
- 703. EMAN
- 704. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK

- 901. AGURRAK
- 902. HARREMANAK
- 903. DEIAK
- 904. BESTELAKOAK

10. RELAX

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarri ditugu.

943 25 05 01

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIKA DOAN JARRIKO DITU. GAINERAKOAK, 16 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.

GOIENKARIK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

BERGARA

Martxan dagoen taberna errentan ematen da.
943 76 54 75

noa: 625 47 61 62.

Arrasate. Zerrajera kalean. Hego-mendebaldean begira. 110 metro koadro. 660 70 13 80.

Bergara. Etxebizitza salgai Fraiskozuri, 5-A atarian. Bi logela, 87 m², altzairiek. Telefonoa: 699 43 49 52.

Bergara. Ibargari. Eraikin berria. 97 m². Hiru logela. Bi komun. Erdiarrantzia. Trastekua. Bi plazako garaje itxia. Europa garbitzea txokoak. Telefonoa: 661 46 30 75.

Elgeta. Bi gela, egongela, sukaldia, bainugela eta ganbara. Igogailua ere badu. Prezio ona. 645 71 76 25.

103. ERRENTAN EMAN

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan. 943 76 44 34.

Conil. Apartamentua alokagai daukat Batelak hondartzaren ondoan. Guzti jantziak, eta aire girotuarekin. Telefonoa: 680 44 26 68.

Salou. Novelty eraikuntzan apartamentua alokatzen da. Piszi...

DEBAGOIENA

Taberna-jatetxea ematen da errentan, ezin atenditzetegatik. Bezero propioak ditu.
675 23 30 65

na eta garajearekin. 629 98 98 99 edo 943 81 42 38.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Debagoieneko bi mutil eta neskak batek etxebizitza errentan hartuko luke. Hiru ruklagileak. Jabiak. 685 73 67 54.

Arrasate. Etxebizitza errentan hartuko nuke. 618 00 08 30.

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. 645 49 91 05.

2/ GARAJEAK**201. SALDU**

Arrasate. Zarugalde kalean garaje itxia salgai. 15 m². 680 77 06 44.

203. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Garaje itxia errentan. 38m². 656 73 79 54.

Bergara. Garajea ematen da...

BERGARA

Esperimentziadun zerbitzaria behar da egubakoitza gauetarako eta zapatu arratsaldetarako eta gauetarako
943 76 15 59 (Bitxor)

ANGIOZAR

Ortzi erretegia alokatzen da.

943 78 22 80
665 72 24 46

errentan Espaloian. Deitu telefono honetara: 626 30 89 36 edo 943 76 63 10.

204. ERRENTAN HARTU

Antzuola. Garaje errentan hartuko nuke. 943 76 65 38.

4/ LANA**401. ESKAITZAK**

Arrasate. Emakume bat behar dugu goizetan hiru bat orduz etxeko lanak egiteko. 19:30etik

errentan Espaloian. Deitu telefono honetara: 659 82 75 18.

Arrasate. Eritzain laguntzailea umeak zein nagusiaik zaintzeko prest. Maite. 655 72 02 56.

Bergara. Adin ertaineko emakumea lanerako prest. Umeak zaindu edo garbiketa...

501. JASO

BERGARA-jatetxeak. Gasteizko jatetxeak, 16 euro (+BEZ) ordaindu beharko dituzue modulu...

6/ MOTORRA**601. SALDU**

Autokarabana. Turbo Diesel 2500 cm³. Sei toki egunez eta lau gaez, telebistarako antena, ondo zainduta. Dutxa eta berogailua. 945 44 52 67.

Bultaco. Serco trialedo motorra salgai. 2003ko. Estra asko ditu.

690 81 64 39.

802. EROSI

Aretxabaleta edo Eskoriatza inguruan belardiak erozi edo errentan hartuko nituzke ardiak edukitzeko. 676 81 85 44.

egiteko. Deitu telefono honetara: 610 34 97 88.

Bergara. Emakume bat gertu etxeko lanak egiteko edo adinekoak zein umeak zaintzeko, 13:00etik 18:00etara. 645 49 91 05.

Citroen Xsara autoa salgai. 1.6. Full equipet. 79.000 km. Gara-jean gordetako. Egoera onean. Deitu telefono honetara: 647 29 93 44.

Citroen ZX autoa salgai, BI-BX. Errerolke-gantxoa, aire giro-tua, diesela, direkzio lagundua. 650 63 41 14.

Honda Pantheon 150 scooterra salgai. 2000 urteko. 13.600 Km. Berri berria. Jabi. Deitu telefono honetara: 943 79 89 82 edo 665 75 05 73.

Kawasaki KX 250 cm³ krosko motora salgai. Kaskoa eta bes-telako osagarri guztiak. Prezio ona. 687 50 18 02.

Opel Corsa autoa salgai. 600 euro. 943 71 50 72.

Opel Astra 1.7 diesel salgai. Ondo zainduta. Jabe bakarra. SS-AS. 656 72 60 52.

Renault Scenic autoa salgai. 1.4, 95 ZP. 2002ko. Oso egoera onean. Familiuentz egokia. 653 70 62 17.

Yamaha YN 50 ziklomotor sco-oterra salgai. Oso egoera onean. 637 55 14 40.

Yamaha Fazer 600. 98 urteko. 65.000 Km. Egoera onean. 649 17 67 74.

Citroen Xsara autoa salgai. 1.6. Full equipet. 79.000 km. Gara-jean gordetako. Egoera onean. Deitu telefono honetara: 647 29 93 44.

Bergara. Emakumea goizetan lan egiteko prest (16:00akarte). Garbiketa lanak egiten (ataria, bulegoak) edo nagusiak zaintzan (esperientzia dautak). 618 01 30 60.

Bergara. Neska bat gertu etxeko lanak egiteko. Esperientzia-duna. Informeak ere baditu. 20:00etik 22:00etara deitu, telefono honetara: 659 13 56 39 edo 943 76 48 81.

Bergara. Neska euskalduna arratsaldez umeak zaintzeko gertu. 943 76 25 59.

Bergara. Neska gertu adine




Maria Rosario Zeziagak
urteak beteko ditu zapatuan,
otsailaren 18an. Eta etxekek
argazki berezi honekin
zoriondu nahi dute. Oñatin
ateratako da argazkia, Maria
Rosariok 18-20 urte inguru
zituela. Velosoles motorrean
ausart joaten omen zen
Debaraino orduan Maria
Rosario. Etxean marka horretako
bi moto zituzten, gero
desagertu egin zirenak. Etxe-
koek urtebetetze eguna ongi
pasatzeko esan nahi diote eta
baita muxu bana eman ere.
Zorionak, Maria Rosario!

Eskela, urteurren meza edo
eskertzarik jarri nahi baduzu,
etor zaitez GOIENKARIaren
ordezkartzetako batera.

GOIENKARIA

Aster 18.500 etxetan.

Eskelen prezioa: 85 €.



ESKER ONA

Maite Mayo Larrea

Altzelai gozategikoa

Donostian hil zen 2006ko otsailaren 4an, 74 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.




Bergaran, 2006ko otsailaren 17an.

ESKER ONA

Jose Gardoki Eguren

Gasteizen hil zen 2006ko otsailaren 9an, 88 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2006ko otsailaren 17an.

hildakoak

- **Jose Gardoki Eguren.** Bergaran, otsailaren 9an, 88 urte.
- **Mari Tere Azkoaga Atxa.** Arrasaten, otsailaren 10ean, 75 urte.
- **Julian Gorosabel Romaratezabala.** Bergaran, otsailaren 11n, 94 urte.
- **Nikola Zangitu Kortabarria.** Bergaran, otsailaren 12an, 90 urte.
- **Blanca Jauregi Diaz de Mendibil.** Bergaran, otsailaren 11an, 82 urte.
- **Maria Errasti Zubizarreta.** Antzuolan, otsailaren 11n, 90 urte.
- **Felix Ignacio Moto.** Bergaran, otsailaren 11n, 49 urte.
- **Placida Peña Kortabarria.** Antzuolan, otsailaren 11n, 93 urte.
- **Francisco Javier Urkijo Retes.** Arrasaten, otsailaren 12an, 79 urte.
- **Sabina Biain Moiua.** Oñatin, otsailaren 14an, 93 urte.
- **Vidalina Garcia Fernandez.** Bergaran, otsailaren 14an, 68 urte.
- **Luisa Jauregi Aranburu.** Bergaran, otsailaren 15ean, 90 urte.
- **Jose Luis Arregi Goitia.** Oñatin, otsailaren 15ean, 55 urte.

URTEURRENA

Manuel Mira Barreiros

Lehen urteurreneko meza
domekan, otsailaren 19an,
12:30ean, Bergarako
San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izanean.

URTEURRENA

Francisco Unamuno Arbulu

Lehen urteurreneko meza
domekan, otsailaren 19an,
11:00etan, Angiozarreko Mikel
Goyaingeruaren parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izanean.

URTEURRENA

Rosario Eiguren Urkiola

Lehen urteurreneko meza
domekan, otsailaren 19an,
12:30ean, Bergarako
San Pedro elizan.




Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izanean.

URTEURRENA

Anjel Etxabe Arana

Lehen urteurreneko meza
zapatuan, otsailaren 18an,
19:30ean,
Aretxabaletako parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izanean.

ESKER ONA

Eusebio Lizarralde Leibar

Oñatin hil zen 2006ko otsailaren 6an, 91 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Oñatin, 2006ko otsailaren 17an.

ESKER ONA

Mari Tere Azkoaga Atxa

Arrasaten hil zen 2006ko otsailaren 10ean, 75 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2006ko otsailaren 17an.

bila bila 7



sudoku

.	.	2	.	7	.	3	.	.
9	5
.	1	4	.	3	.	6	8	.
.	9	1	4	.	8	7	5	.
.
.	2	6	1	.	7	8	9	.
.	8	5	.	4	.	9	3	2
1	7
.	.	9	.	6	.	4	.	.

hitz gezidunak

Zaparrada, erauntsia	▼	Gaixo	▼	Esaldi, perpaus	▼
Herrestan, arrastaka	►	Norena atzikia	▼	Prestatu, moldatu	
Haurra, umea	►				
Tabako hondakin					
* Argazkian	▼	Toki hartan	►	Infusio mota	►
Jatekoa		Bailara, ibar	▼	Entzuten ez duena	
	►		▼	Infin., agortu	►
				Gizon izena	
Uneko egunean	►		▼	Burdinola	►
Gertakaria				Nire	
	►		▼		
Koalitate, berezitasun	►			Titanioa	►
Elikatu				Kiloa	
	►		►	Tokia	▼

LUMA

jeroglifikoak

Hil ez dena



hizki salda

Debagoineneko bost futbol zelai

E	E	S	T	A	L	A	N	T
P	G	E	I	G	T	A	I	K
L	R	S	O	O	R	H	A	D
A	O	D	Z	R	O	E	G	S
B	K	L	A	R	R	A	A	U
A	S	B	F	O	G	S	O	P
X	I	L	D	S	I	T	K	A
T	A	J	R	I	R	I	Z	E
A	E	Z	T	N	O	Z	A	R

bono fotoa



Onatiko Unibertsitateko klaustroan eskultore ezagun baten lana dago. Nor da eskultore hori?

Argazkia eta galdera > Iñigo Biain

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA.....

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA.....

Ekarri txartela MARTITZEN ARRATSALDEAN
Goienako edozein egoitzara

Clas esne-gain harrotua
250 ml-ko espreria

1,59 € 265 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAIKO IRABAZLEA
FLOREN UGALDErendako (Bergara) eta FELIX AIASTUIrendako (Arrasate) izan dira 30 euroko erosketa-txartelak. Zorionak!
Galderaren erantzun zuzena: Santa Agueda, Azkoagan (Aramaio).



umore giroan

Kike Amonarriz

KOLORETAKO TELEBISTAK

Tolosako herritar bat etxeko tresnak saltzen dituzten denda batean sartu eta zera galdeztzen du:

- Aizue, ba al daukazue koloretako telebistarik?

- Bai, noski!

- Oso ongi. Nik urdina nahi dut!


DEBEKATUTA

Tuterako udaletxean gertatuko pasajeak.

- Sola jauna! Baina zuk ez al dakizu udaletxe honetan debekatuta dagoela lan ordutan edatea?

- Lasai! Ni ez naiz lanean ari!
Ni zurrutean nabil!

soluzioak



J	A	N	1	L	E	K	U
T	A	S	U	N	T	I	I
G	E	R	T	A	E	R	A
G	A	U	R	Q	O	L	A
A	L	H	A	A	G	O	R
E	H	A	N	T	E		
S	E	I	N	A			
N	A	R	R	A			
J	E						

2	7	9	5	6	3	4	1	8
1	4	3	9	8	2	5	6	7
6	8	5	7	4	1	9	3	2
4	2	6	1	5	7	8	9	3
8	5	1	4	2	8	7	5	6
3	9	1	2	3	5	6	8	9
7	1	4	2	3	5	6	7	5
9	3	8	6	1	4	2	7	5
5	6	2	8	7	9	3	4	1

Jeroglifikoak: Bilziduna.
Zerbitzuak: Euskadi Telebista.

A	E	Z	T	N	O	Z	A
T	A	J	R	I	R	I	E
A	S	D	S	I	T	K	A
B	K	L	R	O	A	U	
A	O	D	Z	R	A	G	S
L	R	S	O	O	R	H	A
P	G	E	I	G	S	O	R
E	S	T	A	L	A	N	T

Estreinatu mugikorra musu-truk: 0€*



Samsung
E350

Motorola
V360

Gainera, Motorola
bakoitzarekin, argazki-
album paregabe hau
jasoko duzu
opari

Motorola
V3

Motorola
V360



**ROUTER
COMUNICACIONES, S.L.**

Errebal, 15

Eibar

943 700 369

Maalako Errebala, 8

Arrasate

943 712 781

Euskaltel

-en Banatzaile Ofiziala

* Euskaltel Hautaketa edo Euskaltel Leioha
bezerorezako PSPa, befiere 15/03/06
baiko lehen kontratatzan badute ondoren
ordaintzeko etxeko zerbitzua, 6 €-ko hileko
kontsumo minimoarekin, eta 18 hilabetez
irauteko konpromisoa hartzen badute.
Muga: Terminal eta album bakoitzeko 100
ale.

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

5767
zenbakira

Deiaren prezioa:
1,2 € + BEZA



Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

ABESTIAK POLIFOIKAOK [sms 1] Abestiaren izena (Abeslaria) I KODEA



Himnoak
Eibar | **EIBAR**
Athletic Club | **BILBAO**
Osasuna | **OSASUNA**
Realia | **REAL**
Real Union | **UNION**

Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) | **AITORMENA**
Aizkoldari (Kontatu) | **AIZKO**
Amore amore (Kandadeko bera) | **AMORE**
Askatasunegarri (Lin Ton Tau) | **ASKATA**
Begiak okertuta (Lin Ton Tau) | **BEGIAK**
Bi Minutuero (Hertzainak) | **BIMINU**
Dub manifest (Femin Mugurua) | **DUB**
Eguneru (Hertzainak) | **EGUNERO**
EH Sukarra (EH Sukarra) | **SUKAR**
Bos dicens mienda, nosotros amen (La Polla) | **ELLOS**
Enamorado de la muerte (mip) | **ENAMO**
Entzuidazu (Atzingo's) | **ENTZU**
Etorzkizuna (Etsaiak) | **ETORKI**
Ezer ez da betiko (Ken) | **EZER**
Gora Herria (Negu Gorriak) | **GORA**
Hator Bel-Air (Bide Erteean) | **BELAIR**
Haizea (Ken) | **HAIEZA**
Hegal egiten (Itzel) | **HEGAL**
Ikusi (Oleñum Tremens) | **IKUSI**
Iñaki (Ken) | **KEN**
Inpernuen ate joka (Gatiburu) | **INPER**
Jokin Uraini Hitza (Bide Erteean) | **JKOKIN**
Kaiko (Uriz) | **KAIXO**

Lau Teilitu (Itzel) | **ITOIZLAU**
Laztana (Latzen) | **LAZTA**
Lotuta egon arren (Koke) | **LOTUTA**
Loretxoa (EKXKU) | **LORE**
Marea Gora (Itzel) | **MAREA**
Musturrek sartun (Gatiburu) | **MUSTURREK**
Nicaragua (Kontatu) | **NICA**
No time for love (Hertzainak) | **NOTIME**
Salve (La Polla) | **SAVE**
Sari Sarri (Zati) | **SARRI**
Sorginen leizean (Etxeku) | **SORGIN**
Txatxo (Zarama) | **TXATXO1**
Txus (La Polla) | **TXUS**

Trikitixa
Bexamela ta pastela (Maixa ta ixier) | **BEXAMELA**
Bokespok (Kepa Junkera) | **BOKEPOK**
Hik lan eta nik jai (Tapi) | **HIK**
Itisas ontzit batzen (Kaxian) | **ITISAS**
Kupela (Egile eta Larraialega) | **KUPELA**
Mila galdera (Alait / Mider) | **MILA**
Nirekin (Gozategi) | **GOZATEGI**
Ny Hirahira (Kepa Junkera) | **HIRA**
Txanpon batzen truke (Alait / Mider) | **TXANPON**

Folk
Arratsalde honetan (Sorata Bele) | **SOROTAN**
Bai euskarari (Pantxoa) | **BAII**
Bakezaleak (Anje Duhalde) | **BAKE**
Bizkaia Maite (Bentzo Lertxundi) | **BIZKIA**
Eperrak (Anje Duhalde) | **EPERRAK**



SOINUAK (2 sms)

1,2,3,4...Real!! | **REAL**
Alboka | **ALBOKA**
Athletic Iuep!! | **IUEP**
Buztan bertsoa | **BERTSO**
Hartu...Aitaren ta semea.. | **AITAREN**
Hartu...Ansar | **ANSAR**
Hartu...Argentinarra | **ARGEN**
Hartu...Mexikarra | **MEXIKO**
Hartu...Miami! | **MIAMOL**
Independientzi | **INDEPEN**
Irrintzia | **IRRINTZI**
Jotake irabazi arte! | **JOTAKE**
Milazul (pilota) | **MILAZU**
Suprinu | **SUPRINU**
Tobera | **TOBERA**
Txalaparta | **TXALA**
Txanbera | **TXANBERA**
Txooootx | **TXOTX**

JOKOAK (sms1)

MAFIA

SUDOKU

BARON ROJO

PARCHIS

LOGOAK (sms1)

LAU1

NUKLEAR

LAU3

ARRANO 1

REALIZENA

ZENBAKIA

SORGIN

ARANBURU

ANOETA1

BILBAOIZENA
ZENBAKIA

OSAUNAIZENA
ZENBAKIA
KRUTXAGA

ARCO

1.BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure
poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen
ditugun produktuekin, helbide honetan:
www.smsoinu.com/bateragarri

2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko,
beharrezkoa GPRS sistema aktibatutu izatea.
GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure
horitzalearekin harremanetan. Alfa ematea doan
da eta Kb jaitsiera bakarrak ordaindu beharko
duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sistemaren alta
ematea doan dira.

* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora, /*
Vodafone: deitu 123-ra, * Movistar: deitu 609-ra.

3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri
gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com
/ edo deitu 902 01 21 48 telefonora.

4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurriara egin
ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan
kaleratu eta erabiltaileek eskura dezatela nahi
baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902
01 21 48 telefonora.

...ASKOZ GEHIAGO GURE WEBGUNEAN www.smsoinu.com

Maialen Arroiate > Publizitate-modeloa

"Garrantzia itxurari bakarrik ematen dioten lanek ez naute motibatzen"

Maialen Arroiate arrasatearra gaztea da oraindik, baina eskarmentu handia du publi-

zitate-modelo lanetan; izan ere, Madrilera joan zen, hiru asterako, eta dagoeneko hiru

urte egin ditu hantxe lanean. Arroiberendako modelo lana zaletasuna da, eta aldi berean

beste hainbat gauza ikasten dihardu: kazetaritza, interpretazioa, eta beste.

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Maialen Arroiate 17 urterekin hasi zen, ustekabeen, publizitate-modelo lanak egiten. Oraindik ez daki horretarako bokazioa daukan, baina aspaldian Madrilen bizi da lanbide hori zaletasun daukala. Horrez gainera, kazetaritza eta bestelakoak ikasten dihardu, etorkizunean zer egingo duen erabaki artean.

Txikitatik modelo izan gura zenuen?

Ez, beste gauza asko izan gura nuen: astronauta... Betidanik ideiak eta sentimendua komunikatzea gustatu zait. Orain eginen dudan lanean hori betetzen da, baina ez nintzen horren bila joan. Aukera izan nuen, eta haratu egin nuen.

Noiz hasi zinen modelo ikastek egiten?

17 urterekin. 18 urterekin Bartzelonara jo nuen moda-modeloa egitera, baina handik gutxira bueltatu egin nintzen, ez zelako egin gura nuena; eta giroa ere ez zitzaidan gustatu. Hortaz, Bilbon jarraitu nuen ikus-entzunezko ikasketak egiten eta tarteka lantxo batzuk egiten. 20 urterekin, Madrilen lan bat eskaini zidaten. Hiru asterako joan nintzen, eta hiru urte daramat han.

Gogorra egin zitzazun Madrilera bizi izatera joatea?

Uste baino gutxiago. Ni beti izan naiz independentea eta bidaiatzea oso gustuko dut. Hasieran txunditura nengoengoa, guztia zen berria... Denbora pasatu ahalia hasten zara familiaren eta ingurunearen hutsunea igartzen, baina ondo daramat.

Hiru urte igaro ondoren, ikusten duzu zure burua Arrasaten bizi izaten?

Ez dago jakiterik etorkizunean non egongo naizen. Hala ere, ni Arrasatekoan naiz eta han dauzkat lagunak, familia... Arrasatera joaten naizen bakoitzean sabelean zerbait berezia igartzen dut. Bestalde, ez dakit bizitzak nora eramango nauen, eta nik momentua bizi gura dut.

Kazetaritza ikasten zabiltza Madrilen, eta orain dela urte batzuk ikus-entzunezkoak egiten ibili zinen Leioan...

Bai, Leioakoa bukatu gura nuen, baina ia ezinezkoa zen Madrilen egonda. Hortaz, Madrilen kazetaritza ikasten hasi naiz,

eta egunen baten Leioakoa bukatu gura badut bi ikasturte gelditzen zaizkit. Horrez gain, interpretazioa ikasten nabil. Musika ere gustuko dut, eta gitarra akustikoa jotzen hasi naiz, zaletasun moduan. Txikitan solfeoa eta pianoa ikasi nuen, eta musikarekin izan nuen harremana berreskarratu gura dut.

Ez dira gauza larregi ikastek, lana eta beste ikastaro horiek?

Batzuetan estresatu samar ibiltzen naiz, baina ilusioa izanez gero, gauza asko egin daitezke. Askotan ematen duguna baino gehiago egin dezakegu. Oraindik 22 urte dauzkat, eta ez ditut aukerak galdu gura. Gero ikusiko dut nondik jarraitu.

Non ikusiko zenuke zure burua kazetaritza alorrean?

Oraindik erabakitzear daukat, baina asko gustatzen zait komunikatzea: idaztea, kamera aurrean jardutea...

Eta zer moduzkoa da publizitate-modelo lanbidea?

Lanbidea da, baina niretzat zaletasuna ere bada. Spotak eta bideoeklipak grabatzea eta *acting*-ak (zerbait espresatzea) egitea gustuko dut, baina lan estatikoenak ez zaizkit gustatzen. Garrantzia itxurari bakarrik ematen dioten lanek ez naute motibatzen, ez daukate ezer berezirik. Baino jendeengandik zerbait lortu gura duzunean horrek lan bat dauka atzean, eta hori egiten ikasi egin behar da.

Zer eman eta zer kendu dizu lan horrek?

Gauza asko eman dizkit, ni beti argi ibili naizelako. Erakutsi dit nire burua hobeto ezagutzen, bakarrik ibili naizelako. Gainera, giro honetan jende gehiena ni baino nagusiagoa da eta argi ibili behar izan dut, engaina eta zapaldu ez nazaten. Asko ikasi dut eta bizitzaren ikuspegia zabalagoa eman dit. Horrez gain, asko bidaiatzeko aukera izan dut. Kendu didana da, berriz, nireengandik urrun eraman nauela.

Publizitate-modelo lan egiteko asko zaindu beharra dago? Diziplina handia behar da?

(Barreak). Bizimodu normala egin behar da. Fisikoa garrantzitsua da, baina ez da guztia. Garrantzitsuena da norbera ondo egotea eta sentitzea.



JOSEKO ARANZABAL

PERTSONALA

Herria: Arrasate. **Adina:** 22 urte. **Ikasketak:** Kazetaritza eta interpretazioa. **Zaletasunak:** Musika entzutea, antzerkia, bidaiatzea... **Telebista saio bat:** Ez dut telebista aspaldi ikusi. **Nora egingo zenuke bidaia bat?** Indiara. **Zenbat seme-alaba edukiko zenituzke?** 3 edo 4. **Inoiz diskriminatuta sentitu zara emakume izateagatik?** Ni ez, baina matxismo handia dago. **Zer filmeko protagonista izango zinateneke?** Scarlett Johansson *Lost in translation*-en. **Betetzeko duzun amets bat?** Asko. Oso ameslarria naiz.

PRENTSA > CIES ENPRESAREN DATUEN ARABERA 33.825 IRAKURLE DITU 'GOIENKARIA'-K

GOIENKARIk astero ia 34.000 irakurle ditu, CIESen datuen arabera

Komunikabideen audientzien azterketak egiten dituen CIES enpresak iazko datuak kaleratu ditu; GOIENKARIA inoiz irakurri dutenen portzentajea %80,3 da

EDU MENDIBIL > BERGARA
CIES enpresaren datuen arabera, 33.825 lagunek irakurtzen dute GOIENKARIA. 2005eko datuen berri eman zuen CIEsek urtarilaren erdialdean. GOIENKARIAri dagokionez, bi izan ziren laginoko pertsonei (14 urtetik gorako) egindako galderak: *Aurreko astean irakurri al duzu GOIENKARIA eta Inoiz irakurri al duzu GOIENKARIA?*

%61,5EK IRAKURTZEN DU
Astekaria irakurtzen dutela %61,5ek erantzun zuten. Hala, Debagoienean 14 urtetik gorakoak 55.000 lagun direla kontuan izanda, 33.825 lagunek irakurtzen dute aldizkaria.

Bestalde, GOIENKARIA inoiz irakurri dutenen portzentajea



%80,3 da. Kontuan hartzeko moduko datuak dira, Debagoieneko euskaldunen portzentajea %66 baita, Eustaten datuen arabera. Ia euskaldunen kopurua gehituz, %81era iristen da portzentajea.

CIESen azterketaren arabera, gehien irakurtzen diren hurren-

Prentsa idatzizko hedabideen irakurle kopurua Debagoienean

ITURRIA: CIES

> BLOGAK

Euskararen eta publizitatearen arteko harremana aztertzen duen bloga, Iñigo Fernandezek eskutik

Euskararen eta publizitatearen gainean hausmarketa egin eta eragitea da Iñigo Fernandez Ostolatzaren blogaren helburua. Ondo baino hobeto ezagutzen du arlo hori, publizitate agentzia batean egiten bai lan. Euskararen egoera publizitatean, erabiltzen diren itzulpenak, iragarle euskaldunak, publizitatearen inguru terminologia euskaraz eta beste hainbat gairi buruzko mezuak topatuko dituzue.

Bloga hemen:

<http://tinyurl.com/9zf58>



Euskararen egoera publizitatean aztertzen du Iñigo Fernandezek bere blogean.

> INTERNET

Bideoak zabaldu eta ikusteko gero eta jende gehiagok erabiltzen du Internet

Banda zabaleko konexio gero eta ugarriagoekin, Internet bideoak zabaldu eta ikusteko erabiltzen du gero eta jende gehiagok. Izen bat nagusi, YouTube, bideoak kargatzeko oso erraza delako, eta bertakoak blog batean ikustarazteko ere bai.

Azken hilabeteetan, eremu horretan lehia igarri da. Baino hedapenagatik, lortzen ari den trafiko eta izenagatik, badirudi YouTube dela nagusi oraingoz.

<http://tinyurl.com/73p6e>



Irakeko indarkeriaren azken adibidea Interneten ikusgai.

> TEKNOLOGIA

Puzzle teknologikoen jokoa plazaratu du Elhuyar Fundazioak: Puzzletek

Teknologiaren eta energiaren mundua ezagutzeko, ordenagailurako euskalazko joko berri bat ekoitzi du Elhuyar Fundazioak: Puzzletek DVDA. 12 eta 16 urte bitarteko gaztxoentzako da bereziki aproposa Puzzletek.

Aitzindaria da Elhuyar hezkuntza eta dibulgazio-materialak euskaraz egiten. 1994an egin zuen ordenagailurako lehenengo CDa. Ordenagailurako softwarea, CDak eta DVDAk ekoizteaz gain, Interne-terako hainbat programa ere egin ditu. www.elhuyar.org.



Teknologiari eta, batez ere, energiari buruzkoak dira puzzleen gaia.

> POLTSIKOKOAK

Euskal soinu eta irudiak poltsikoko telefonoan, Goienaren eskutik

Bilboko Goazen enpresarekin batera, poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak erabiltzeko aukera eskaintzen du Goienak. Azken nobedadeak, pop-rock doinuak, himnoak, abesti herrikoiak, trikitiak, jokoak eta hainbat irudi poltsikoko telefonoan jartzeko aukera dago. Argibide gehiago ondoko helbidean: <http://www.smsoinu.com/>

> INTERNET

Euskal Herriko web orrialdeak: '.eu' domeinua martxan

Bergarako Udalak *vergara.eu* eta *bergara.eu* domeinuak eskuratzeko beharrezkoak diren pausoak emateko erabakia hartu zuen joan den urtarrilaren 30eko gobernu batzarrean. Euskal Herriko web orrialdeak identifikatzeko erabili ahal izango da *.eu* domeinua. Horrela, euskal inter-nautaren aldarrikapena bete ahal izango da.

> IRRATIA

Vatikano Irratiak 75 urte; Iñaxio Arregi da informatibotako burua

Vatikano Irratiak 75. urteurrena bete du egunotan. Mundu zabalean emititzen duen irratia 1931ko otsailean inauguratu zuen Pio XI.a aita santuak.

Herri Irratian eta Radio Euskadin jardun ondoren, Iñaxio Arregi (Oñati, 1931) dugu zerbitzatu informatibotako buru 1980ko hamarkada ezkerro. 400 lagun inguru ari dira irratiaren lanean.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko-blog-komertzialak

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskal merkeak
- Emaitza onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

Goiena.net
Debagoineneko ataria Interneten

Prezioen eta ikastaroen gainezko informazioa:

www.goiena.net/blogak

azabarte@goiena.com


943 76 92 70

www.goiena.net/blogak

/4quattro4 /joseba /gallastegi /merkeopari /pando /elejalde
/argi-plastik /BZ-sistemas /garaia /multiópticas /udalatx /maulanda
/aregi /dragon- /gutzideder /ohiak /udalaitz /mayte
/blogak/atai /oriental /irudisport /okipark /gorkataxi
/azkarate /ezkutuorly /korozabaleta /vitoria /ehmff

Eta baita ere:

www.aizue.com
www.lilura.com
www.baster-alde.com



berriak

> EITB SARIAK
**Iparragirre sarietan
Velez de Mendizabal
saritu dute**

Jose Mari Velez de Mendizabal aramaioarra saritu dute EITBk antolatzen dituen Iparragirre sarietan. Aurreko astean banatu zituzten sariak Miarritzen, eta hantxe jaso zuen saria.

Velez de Mendizabalek irratia saioa du Radio Vitorian, eta Eusko Ikaskuntzaren gainerako kontuak jorratzen ditu. Hain zuzen ere, irratsaioaren kalitatea saritu dute Iparragirre sarietan.

> PROGRAMAZIOA
**GOITBren promozioa
Debagoinetik kanpo
DVD baten bitartez**

Mugak gainditzen jarraitzen du Goiena Telebistak. Hala, oraingoan, ikus-entzunezko promozionala sortu dute. Sei minuto irauten du eta bertan jasotzen dira ibarreko telebista katearen sainorik garrantzitsuenak. Euskaraz eta gaztelaniaz eginko ikus-entzunezkoa da.

Hain zuzen, bideoaren helburua da gure telebistaren eskaiztzen berri ematea ibarreko mugetatik kanpo.

> ARRASATE IRRATIA
**Eguaztenero lore
artean Irene
Zenitagoiarekin**

Eguaztenero du Arrasate Irratiko *Igo autobusera!* saioa Bergarako Gorosti loradenda geldialdia. Irene Zenitagoia loreetan adituak etxeko loreak txukun eta osasuntsu izateko aholkuak ematen dizkigu astero. Aholkuak bakanrik ez, hilero lore eder bat opari egiten digu Zenitagoiak, entzuleen artean banatzeko.

Loreak gustuko baditzu, eguzteneroko hitzordua duzu Arrasate Irratian.

> IGO AUTOBUSERA!
**'Los Golden en serio'
ikuskizunerako
sarrerak eskuragai**

Otsailaren 26an, domekan, Golden Apple Quartet talde ezaguna izango dugu Amaia antzokian, *'Los Golden en serio'* ikuskizuna eskaintzen. Emanaldia 19:30ean izango da. Eta oraingoan ere, Arrasateko Udaleko Kultura Saliaren eskuutik sarrerak izango ditugu Arrasate Irratiko entzuleen artean banatzeko.

Sarrerak eskuratu nahi izanez gero, bada, erabili 943 71 17 31 telefonoa eta *Igo autobusera!*

'BEHAZULO' > EGUBAKOITZA, 21:15

Mizpirualde egoitza barrutik ezagutzeko aukera dago gaur

Goiatz Aranak

Bergarako Mizpirualde
egoitzara eramango
gaitu 'Behazulo'
saioan gaur, 21:15ean

GOIENKARIA > BERGARA

Bergarako Mizpirualde egoitzan grabatu da oraingo astean *Behazulo* saioa. Zenbait protagonista izan ditu Goiatz Aranak; bestek beste, Mizpirualden 16 urte daramatzan Aurora Hernández elkarrizketa egin dio.

Mizpirualdeko egoiliarrek, hau da, bertan bizi direnek, zer egiten duten, nola bizi diren, eta beste zenbait konturen berri emango digu egoitzako ardura-dunak.

Gaur egun 107 pertsona bizi dira Mizpirualden eta 115entzat tokia du. Guztiek ere, Bergara, Antzuola eta Elgetakoak.



MIZPIRUALDE Gaur egun 107 lagun bizi dira Bergarako egoitzan. GOIENKARIA

'IRREAL' FILM LABURRA '16 MM' SAIOAN > EGUAZTENA, 22:15

Irudi birtualak eta errealkak nahasten dituen 'Irreal' film laburra oraingo astean

GOIENKARIA > BERGARA

Iñigo Iruretagoiena andoaindarra eta Joseba Beristain azkoi-tiarrak eginiko film laburra eskainiko digute oraingo astean *16 mm* saioko lagunek. Amagoia Lasagabasterrek bi zuzendariei eginiko elkarrikzeta ikusteko

aukera izango da, eta zenbait film labur erakutsiko ditzkigute.

Horian artean animazio birtuala eta irudi errealkak nahasten dituen *Irreal* filma ikusteko aukera izango da, kalitate handiko film laburra. Jose Cruz Gurrutxaga (*Goenkale*) aktore-

ak egiten du lan film horretan; hain justu ere, hura da protagonista nagusia. 24 minuto irauten du eta estralurtarren eta lurtarren arteko harremanak aztertzen ditu, umore handiarenkin. Ez da aurreneko aldia GOITBko film laburren saioan animazioa eskaintzen dena. Era berean, *16 mm* saioan beste bi film labur ikusteko aukera izango da, biak ere Iñigo Iruretagoienak eta Joseba Beristainek eginikoak. Hortaz, gogoratu, eguztenean, 22:15ean.

telebegi

Edu Mendibil > www.goiena.net/blogak/edu

'Soy el que más sabe de TV'

Zenbaitetan gay-festa itxura hartu diot *Soy el que más sabe de TV del mundo* lehiaketari (Cuatro, zapatu eta domeketan, 15:30ean). Teleadikto nostalgikoendako lehiaketa aproposa duzue. Aspaldiko saioak, publizitate kanpainak, telesailetako sintoniak eta bestelako bitxikeriak aurki daitezke Nico Abad *wiki* aurkezlearen saioan. Lehiakideak ez dira nolanahikoak: ematen du telebista ikusteko jaio direla. Domekan, esaterako, *Mazinger Z* aspaldiko marrazki bizidunen kantua japonieraz abesteko gai zen tipo bat azaldu zen.

Cuatro kateko beste hainbat saiotan antzeman daitekeenez, medio gutxirekin eginiko lehiaketa da. Sariak ere ez dira erretirora bidaltzen dizuten horietakoak: Malena Graciaren pelutxe bat edo Javier Coronasek erabilitako txaketa *kantoso* horietako bat. Halere, lehiakideek ondo pasatzen dute eta lagunartean ikusteko saio atsegina da. Onena, beharbada, zera da: ikusle aditu talde bat hainbat saio eta aurkezle desripatzen azaltzen direnean. Komentariorik maltzurrenak, betaurrekodun kritikariaren ziztadak. Barre egindo duzue berarekin.

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua.
Gaizka Olabarrieta eta Gorka Aztiria; Joseba Azkarraga, HUHEZIKO irakaslearekin Mahomen karikaturaren auzia eta eragina ulertu guran; Lorategiaren geltokian Jazinto lorak izango dira aztergai...

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik
egubakoitzera**

10:00-12:00 Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ibil Munduan geltokia
Elkarrizketak
Lorategiaren geltokia
Zozketak
Zorion agurrrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
12:20 Izarreran ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
17:15 Zorion agurrren tarte (errep.)

GOITBko programazioa

Egubakoitza, 17

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Musika saioa. 14:30 M1: Eguraldia eta zerbitzuak. 14:35 Gezi-bideak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Iparorrata. 15:30 M1. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjerido. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:35 Gezi-bideak. 16:45 Albiste 17:30 Eltze bera. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albisteak. 19:00 Klipak. 19:15 Jazz mintegia. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Behazulo: Mizpirualde egoitza barrutik ezagutzeko aukera 21:45 Berriak. 22:15 Ilunpean. 22:45 Albisteak. 23:15 16 mm. 23:45 Berriak 00:15 Amaiera.

Zapatua, 18

07:55 Emisio hasiera 08:00 Marrazki bizidunak bilduma 11:00 Behazulo. 11:30 Ilunpean 12:00 Eltze bera. Kremaz betetako krepak 12:15 16 mm. 12:45 Jaun ta jabe 13:45 Didjerido. 14:15 Klip@. Musika talde bideoklipak. 14:45 Jazz mintegia. 15:15 Mkt. 15:45 Ikuksizuna. 17:45 Marrazki bizidunak. Bilduma 19:15 Eltze bera. 19:30 16 mm. 20:00 Behazulo: Mizpirualde egoitza 20:30 Zera dio eta Motzean. Sebastian Lizaso 20:45 Ilunpean. 21:15 Teknopolis. 21:45 Berbaire. Mahai inguru. 22:15 Elkartsun bideak. 22:45 16 mm. Larrotxene kultur etxeko film laburak 23:15 Erreportajea. Jauzia gasna eta yogourrak 23:45 Emisio amaiera.

Domeka, 19

07:55 Emisio hasiera. 08:00 Marrazki bizidunak bilduma. 11:00 Klip bilduma. 11:30 Iparorrata. Indonesia. 12:00 Didjerido. 12:30 Eltze bera. 12:45 Erreportajea. 13:15 Elkartsun bideak. 13:45 Klip@. 14:30 Bidetxurrek. 15:00 Ilunpean. 15:30 Behazulo. 16:00 Mkt musika. 16:15 Ikuksizuna. 16:45 Marrazki bizidunak. Bilduma 18:45 Klipak. Musika bilduma. 19:15 Iparorrata. 19:45 Behazulo. 20:15 Zera dio eta Motzean. 20:30 Ilunpean. 21:00 Didjerido. 21:30 16 mm. 22:00 Berbaire. Marijo Deograciasek aurkeztutako mahai inguru. 22:30 Didjerido. 22:30 Teknopolis: erreportaje saioa. 23:00 Emisio Amaiera.

Astelehena, 20

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Behazulo. 14:15 Eltze bera. 14:30 M1. 14:35 Gezi-bideak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Munduari bueltaka: Pakistan. 15:30 M1. Eguraldia eta burtsa tarteak. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ilunpean. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:35 Gezi-bideak. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Didjerido. 17:30 Motzean. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Berbaire. 18:15 Jaun ta jabe. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 16 mm. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Hormailatik. 21:45 Berriak. 22:15 Hormailatik. 22:45 Albisteak. 23:15 Jazz zikloa. 23:45 Berriak. 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 21

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Jazz mintegia. 14:15 Zera dio. 14:30 M1. 14:35 Gezi-bideak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Elkartsun bideak. 15:30 M1. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Hormailatik. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:35 Gezi-bideak. 16:45 Albisteak. 17:00 Jazz. 17:30 Danbaka. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Erreportajea: Jauregi gasna eta yogourrak. 18:15 Munduari bueltaka: Pakistan. 18:45 Albisteak 19:00 Klipak. 19:15 Hormailatik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Ilunpean. 21:45 Berriak. 22:15 Berbaire. 22:45 Albisteak. 23:15 Behazulo. 23:45 Berriak. 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 22

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Musika saioa. 14:30 M1. 14:35 Gezi-bideak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Teknopolis. 15:30 M1. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Behazulo. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Berbaire. 17:30 Zera dio eta Motzean: Roberto Moso. 17:45 Gaurkoak. 17:47 16 mm. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Didjerido. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Behazulo. 21:45 Berriak. 22:15 Berbaire. 22:45 Albisteak. 23:15 Erreportajea. 23:45 Berriak. 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 23

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea. 14:15 Motzean. 14:30 M1. 14:35 Gezi-bideak: Ofñati bizikletan eta Landa. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Jaun ta Jabe. 15:30 M1. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Behazulo. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Berbaire. 17:30 Zera dio eta Motzean: Roberto Moso. 17:45 Gaurkoak. 17:47 16 mm. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Hormailatik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Behazulo. 21:45 Teknopolis. 21:45 Berriak. 22:15 16 mm: Irreal animazioa. 22:45 Albisteak. 23:15 Erreportajea. 23:45 Berriak. 00:15 Emisio amaiera.

Debagoieneko WEBGUNEAK



AHOLKULARITZAK

ESTRADOS

www.consultoria.estrados.com

ANTZINAKO ALTZARIAK

ZUMADIA

www.zumadia.com

AKADEMIAK

BASTIDA

www.bastida.es

ALTZARIAK ETA APAINKETAK

BZ-SISTEMAS

www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas

MARRUBI

www.marrubi.com

AROZTEGIAK

ARREGI

www.goiena.net/blogak/arregi

AZKARATE

www.goiena.net/blogak/azkarate

ASEGURUAK

WINTERTHUR

www.winterthur.es

AUTOEN GARAJEAK/KONPONKETA

AUTOS RIBEGOLA –BMW-

www.autos-ribegola.com

GALLASTEGI MOTOR SPORT

www.goiena.net/blogak/gallastegi

AUTO-KONTZESIONARIOAK

4QUATTRO 4

www.goiena.net/blogak/4quattro4

BIDAIA AGENTZIAK

BARCELO

www.barceloviajes.com

BITXITEGI TAILERRA

OSCAR VITORIA

www.goiena.net/blogak/vitoria

ELEKTRIZITATE MATERIALAK

SETALDE

www.setalde.com

ERROTULOAK

PANDO

www.goiena.net/blogak/pando

ESTETIKA ZENTROAK

GUZTIZ EDER

www.goiena.net/blogak/gutzizeder

LILURA

www.lilura.com

ANGELA

www.angelaestetika.net

GIMNASIOAK

IRUDI SPORT

www.goiena.net/blogak/irudisport

HAUR PARKEAK

OKIPARK S.L.

www.goiena.net/blogak/okipark

HIZKUNTZA AKADEMIAK

CIM-OÑATI BAI & BY

www.cim-idiomas.com

HOTELAK

HOTEL MONDRAGON

www.hotelmondragon.com

INFORMATIKA

DCA COMPANY

www.dcacompany.com

INGENIARI GEOLOGIKOA

HARRILUR

www.harrilur.com

INMOBILIARIAK

ANBOTO

www.inmoarrasate.com

ARRIETA & SAN MIGUEL

www.arrietasanmiguel.com

KOROSTI

www.inmokorosti.com

UDALATX

www.goiena.net/blogak/udalatx

JANTZI DENDAK

UDALAITZ

www.goiena.net/blogak/udalaitz

JATETXEAK

BASTER ALDE

www.basteralde.com

DRAGON ORIENTAL

www.goiena.net/blogak/dragon-oriental

MAULANDA

www.goiena.net/blogak/maulanda

LANTEGI ETA TAILERRAK

TALLERES CARPINSA S.L.

www.carpinsa.com

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

www.goiena.net/blogak/argi-plastik

LORADENDAK

MAYTE

www.goiena.net/blogak/mayte

OINETAKOAK

KORO ZABAleta

www.goiena.net/blogak/korozabaleta

OPARIAK

MERKEOPARI

www.goiena.net/blogak/merkeopari

OPTIKAK

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

www.goiena.net/blogak/multiopticas

OSTALARITZA

GARAIA OSTALARITZA HORNICKETAK

www.goiena.net/blogak/garaia

PUBLIZITATE AGENTZIAK

ADOX

www.adoxnet.com

SKATE&SNOW

LAINO

www.laino.info

TABERNAK

EZKUTU

www.goiena.net/blogak/ezkutuorly

ORLY

www.goiena.net/blogak/ezkutuorly

TAXIAK

GORKA GARAI

www.goiena.net/blogak/gorkataxi

UDAL ZERBITZUAK

GAZTEEN INFORMAZIO BULEGOA

www.aizue.com

ZERBITZU DIGITALAK

ATAI

www.goiena.net/blogak/atai

Bisita ezazu:
www.goiena.net/merkatua

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.

Otsailak 17-24

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguzteneko egundik 12:00ak baino lehenago
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

Bertso afaria Artatse elkartean



BERGARA

> Agirre eta Artzallus bertsolariekin afaria egingo dute bihar, zapatua

Joxe Agirre eta Amets Arzallusekin bertso afaria egingo dute Artatse elkartekoek bihar, zapatua, eta txartelak salgai daude Arranon, Pol-Polen eta Korta-Zaharren. Berakatz-zopa, bakailaoa saltsan... daude menuan.

Dokumental bikaina



OÑATI

> 'La pesadilla de Darwin' dokumentala emango dute egunean, 20:00etan

Europen egin den dokumental onenetako bat da. Afrikan arrain espezie berri bat sartu zuten, Victoria lakuan, eta horrek ondorio tragikoak ekarri ditu: mundu mailako industria erraldoi bat, eta horrek miseria, ustelkeria, gosea...

Karikatura erakusketa



ELGETA

> Karikaturen erakusketa ipini dute Espaloia kafe antzokian

Marrazkilari batzuek nahi zuenari karikatura egin zioten orain dela asteburu batzuk Espaloia antzokian, eta marrazkiok erakusketan daude hilaren 25era arte. Egun horretan berriz izango da karikatura egiteko aukera.

Udal Musika Bandaren eta Orkestra Sinfonikoaren kontzerturako txartelak kultura etxean eta Lazkano denda daude; eta kultura etxean eta Elkar denda daude Pirritx eta Porrotzen *Maite Zaitut* antzezlanerako; Ane Monna, Oskola eta Karramarrroi taldearen antzerki musikalera; eta Glu Glu taldearen *Todos Nacemos Vascos* antzezlanera ikusteko sarrerak.

Sarrerak salgai kultura etxean, Lazkano denda (kontzerturako) eta Elkar liburu denda (antzezlanetarako).

ESKORIATZA

> 'Eleanitzasuna Derrigorrezko Hezkuntzan' delako jardunaldia

Jakingarriak aldizkariak 20 urte bete dituela-eta, *Eleanitzasuna Derrigorrezko Hezkuntzan* delako jardunaldia antolatu du HUHEZIk. Bi hitzaldi egingo dituzte lehenengo, eta tailer batzuk segidan.

Otsailaren 17an, egubakoitza, HUHEZIk areto nagusian, 09:00-15:00.

OÑATI

> Artzain bizimodu eta lanbideak ezagutzeko irteera

Artzain bizimodu eta lanbideak delako bisita gidatua egingo dute Gomiztegi baserrian. Autobusa Errekalde Herri Eskolatik irtengo da 09:00etan. Euro bat da.

Otsailaren 19an, domeka. Errekalde Herri Eskolak antolatu du.

BERGARA

> Zuhaitz Egunean, erakusketa eta zuhaitz landaketa

Bihar, zapatua, Zuhaitz Eguna ospatzeko, baso lanerako tresnen erakusketa eta salmenta eta zuhaitzen ezaugarriren inguruko erakusketa egingo dute San Martin plazan; eta zuhaitzak landatzera joango dira gero Gorlara.

Otsailaren 18an, zapatua; erakusketa San Martin plazan, 09:30ean; Gorlara irteera autobus geltokitik, 10:30ean.

OÑATI

> Zuhaitz azoka egingo dute etzi, domeka, herriko plazan

Natura Astearen barnean, zuhaitz azoka egingo dute etzi, domeka. Sei mintegitako ordezkariek euren zuhaitzak eta zuhaixkak erakutsiko dituzte.

Otsailaren 19an, domeka, herriko plazan, 09:00-13:30.

ARRASATE

> Tolosako txokolate museoa bisitatuko dute Zahar Berrikoek

Tolosako Gorrotxategi txokolate museoa bisitatuko du Zahar Berriko berba taldeak hilaren 25ean, zapatua. Autoz joango dira, goizean. Tolosan Aratusteetako poteoa egingo dute.

Izenematea zabalik dago euskaltegietan edo Zahar Berri (943 77 12 28).

Musika

ARRASATE

> Turboamor taldeak kontzertua egingo du, aspaldiko partez

Arrasateko Turboamor taldeak kontzertua egingo du. Oso gutxitan jotzen dutenez, zaleek aukera paregabea dute taldea entzuteko.

Otsailaren 17an, egubakoitza, Gure Leku tabernan, 23:00etan.

ELGETA

> Piztiak musika taldeak kontzertua egingo du

Piztiak Ondarroako taldeak kontzertua egingo du Espaloia antzokian. Sarrera 3 euro da, eta trago bat doan izango da.

Otsailaren 17an, egubakoitza, Espaloia antzokian, 22:30ean.

BERGARA

> Rock-and-roll gaua Aitor Mansilla disko-jartzalearekin

Rock-and-roll musika ipiniko du egubakoitz gauean Ziripot tabernan Aitor Mansilla disko-jartzaleak.

Otsailaren 17an, egubakoitza, Ziripot tabernan, 22:00etan.

ARRASATE

> Creedence Clearwater Revival taldearen omenez

Creedence Clearwater Revival taldearen omenezko kontzertua egingo du Swamp Factory taldeak 3.60 aretoan. Bestetik, Alkatek emanaldia egingo du zapatua gauean.

Otsailaren 17an, egubakoitza, Creedence Clearwateri omendialda, 23:00; hilaren 18an, zapatua, Alkate, 03:00.

BERGARA

> Easo Abesbatzaren eta Oscar Candendoren emanaldia

Easo Abesbatzak eta Oscar Candendo Zabala organo-joleak kontzertua egingo dute.

Otsailaren 18an, zapatua, San Pedro parrokan, 20:00etan.

Antzerkia

ARETXABAleta

> Antzerki Astea bukatzeko, irakasleen emanaldia

Antzerki Astea bukatzeko, Kurtzebarri eskolako irakasleek egingo diete antzerki emanaldia ikasleei.

Otsailaren 17an, egubakoitza, eskolan, 14:45 eta 15:45,

ARRASATE

> 'Errege, soldadu eta bufoia' antzezlan gaztetxean

Errege, soldadu eta bufoia izeneko antzezlanaga egingo du Mairu taldeak.

Otsailaren 17an, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan.

ESKORIATZA

> 'La Espera' antzezlanza aurkeztuko du Oihulari Klownek

La Espera antzezlanaga egingo du Oihulari Klownek

taldeak. Maitasunaren, desiran eta sedukzioaren aurrean ditugun estereotipoez umorezko hausnarketa proposatzen dute, hain zuzen ere.

Otsailaren 17an, egubakoitza, unibertsitatean, 22:30ean. Sarrera, doan.

ARRASATE

> 'Trikitraka Trikitron' saioa ikustera joateko aukera dago

ETBko *Trikitraka Trikitron* saioa grabatuko dute hilaren 20an eta 21ean, eta grabaziora joateko aukera dago.

Otsailaren 20an eta 21ean Amaia Udal Antzokian, 19:00etan

ESKORIATZA

> Kontsumoaren gaineko erakusketa zabalduko dute

Kontsumoa: janari, jantzi eta zapaten etiketak delako

erakusketa ipiniko dute Ibarraundi museoan.

Otsailaren 23tik 26ra.

OÑATI

> Naturarekin lotutako bi erakusketa ipini dituze

Honako erakusketak daude egunotan: *Goroldioak: uraren xarma* delako Natur Eskolan; eta *Ugatza, saia eta saizuria* delako argazki erakusketa kultura etxean.

Natur Eskolakoa, martxoaren 9ra arte; kultura etxekoa, otsailaren 27ra arte. Natura Astearen barnean antolatu dituzte.

BERGARA

Bestelakoak

BERGARA

> Emanalditarako sarrerak aldez aurretik salgai

Hainbat emanalditarako sarrerak erosteko aukera dago. Honakoak dira emanaldiak:

PROPOSAMENA



nire aukera



Eskarne Garitaonandia
Kultura laguntzailea
Arrasate

EGUN GOGOKOENA, EGUBAKOITZA

Amaia Udal Antzokian lan egiten du Eskarne Garitaonandia arrasa-tearrak, kultura laguntzaile. Jendeak ezagutzen du txartel-degian egoten delako sarritan, baina antzoki barruko lana egitea ere egokitzenten zaio eta, oro har, "antzokiko dene-tariko lanak" egiten ditu bes-te bi lagunekin batera. Horregatik, asteburuetan du lan handien, baina "oso ondo" daramenten diosku.

Horrez gainera, Eskarne ezagun da baita ere etxebizitza bezala moldatutako lokal baten bizi delako. Izan ere, hainbat komunikabideetan agertu da horregatik.

Asteburuan lan; eta noiz izaten duzu jai?

Martitzen eta eguzkienetan, normalean, baina ez dugu libratzeko egun jakin bat.

Lo gehien asteburuan ala aste barruan egiten duzu?
Beti egiten dut nahikoa, lana ez da-eta goiz jaikitzeakoa.

Film eta antzezlan asko ikusiko dituzu...

Osorik ez, apeak hasi eta ordu erdira ixten ditugulako. Baina bai, ikusten ditut.

Gomendatuko diguzu bana, orduan?

Los dos lados de la cama filma, barre eta barre egin nuen. Antzezlanetan, *Seda*.

Zure etxeak ezagun egin zaitu. Denbora librean, dekoratzea gustuko duzu?

Ba bai, dekorazioaren inguru-ko aldzikari asko erosten ditut, eta eskulanak egitea asko gustatzen zait.

Asteeko egun gogokoena?

Egubakoitza, lanpetuta egon arren. Egun berezia da.

Zinema

ARAMAIO KULTURA ETXEA

Film emanaldi sorpresa
Egubakoitza: 22:00.
Sarrera, doan.
Stuart little 3: aventura en el bosque
Domeka: 17:00.

ARRASATE AMAIA ANTZOKIA

Match point
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30.
Doce fuera de casa
Domeka: 17:00.
Lutero
Eguena: 20:30.

ELGETA ESPAÑOIA ANTZOKIA

Mulan (españolez)
Domeka: 17:30.
Hay motivo
Eguaztena: 21:30.

ESKORIATZA IBARRAUNDI

Marco Antonio, erresketa Hong Kongen
Domeka: 17:30.

ONATI KULTURA ETXEA

Los dos lados de la cama
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelena: 19:30.
El sueño de una noche de San Juan
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.
La pesadilla de Darwin
Eguena: 20:00.

FLORIDA-GURIDI

Brokeback mountain
17:00, 19:45, 22:30.

Buenas noches y buena suerte

16:50, 18:40, 20:30, 22:30.

Secretos compartidos

17:00, 19:45, 22:30.

Los tres entierros de Melquidas Estrada

17:30, 20:00, 22:30.

Manderlay

17:00, 22:30.

Sólo amigos

17:30, 20:00, 22:30.

Match Point ****

Erresuma Batua, 2005. Zuzendaria: Woody Allen. Aktoreak: Jonathan Rhys Meyers, Emily Mortimer, Scarlett Johansson. 123 min. Drama.

Inglaterrako gizarteko goi mailan giro-tuta dago filma. Gizon gazte baten igorera soziala eta horrek daskartzen ondorio dramatikoak kontatzen ditu, bereziki, emakumeekin duen harremeanen.

Brokeback mountain ****

AEB, 2005. Zuzendaria: Ang Lee. Aktoreak: Jake Gyllenhaal, Heath Ledger. 134 min. Drama.

AEBetako mendebaldeko bi abeltzain gasteren arteko amodiozko istorioa kontatzen du, homosexualitatea isilpean bizi behar izaten duten garai eta gizarte baten. Oskarretarako zortzi izendapen ditu film honek.

Munich ***

AEB, 2005. Zuzendaria: Steven Spielberg. Aktoreak: Eric Bana, Daniel Craig, Claran Hinds. 164 min. Thrillerra.

EIBAR UNZAGA

Secretos compartidos
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelena, martxetza eta eguztzena: 19:30, 22:15.

RIALTO

Volando voy
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelena eta martxetza: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ GURIDI

Memorias de una geisha
17:00, 19:45, 22:30.

Crash

17:30, 20:00, 22:30.

Sin control

17:30, 20:00, 22:30.

Orgullo y prejuicio

17:30, 20:00, 22:30.

Esta abuela es un peligro 2

16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

Dick y Jane, ladrones de risa

16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

Animales heridos

20:00, 22:00, 00:30.

El tiovivo mágico

16:00.

Las Fieras Fútbol Club

16:00, 18:00.

Doce fuera de casa

16:00, 18:00.

Guardando las apariencias

18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

Al fin el mar

20:00, 22:00, 00:30.

Las crónicas de Narnia

16:00, 19:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuak.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

VELMO CINEPLEX-GORBEIA

Underworld evolution

12:15, 16:05, 18:15, 20:25,

22:35, 00:45.

En la cuerda floja

12:15, 17:00.

Dicen por ahí

17:30, 20:00, 22:30.

El jardinero fiel

19:45.

ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

Underworld evolution

16:00, 18:00, 20:00, 22:15,

00:30.

Sólo amigos

16:30, 19:00, 22:00, 00:30.

La joya de la familia

22:00, 00:30.

Esta abuela es un peligro 2

16:00, 18:00, 20:00, 22:00,

00:30.

Terror en la niebla

16:00, 18:00, 20:00, 22:15,

00:30.

Dick y Jane, ladrones de risa

16:00, 18:00, 20:00, 22:00,

00:30.

Animales heridos

20:00, 22:00, 00:30.

El tiovivo mágico

16:00.

Las Fieras Fútbol Club

16:00.

Doce fuera de casa

16:00.

Guardando las apariencias

18:00.

Al fin el mar

20:00.

Las crónicas de Narnia

16:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuak.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

Memorias de una geisha

16:00.

Velmo

CINEPLEX-GORBEIA

Underworld evolution

12:15, 16:05, 18:15, 20:25,

22:35, 00:45.

En la cuerda floja

12:15, 17:00.

Bambi 2

12:15, 15:40, 17:15, 18:50.

Secretos compartidos

20:25, 22:25, 00:25.

Buenas noches y buena suerte

12:15, 16:00, 18:00, 20:00,

22:00, 00:00.

Brokeback mountain

19:45, 22:15, 00:45.

Munich

12:15, 17:30, 20:45.

Valentziako laranjak, 24 orduan Debagoienera

Valentziako nekazari batek bere ortuan hazitako laranjak Internet bidez saltzen ditu; Tourline Express enpresak banatzen ditu gurean

EDU MENDIBIL > BERGARA
Valentziako Corbera herritik Debagoienera laranjak ekartzen dituzte egunero. Corberako nekazari batek bere ortuan batutako laranjak Internet bidez (www.lamejornaranja.com) salten ditu eta ekimenak erantzun ona izan du azkenaldian Debagoieneko herrietan.

Patxi Larrañaga bergararra dugu erosleitako bat. Zera adierazi digu Patxik: "Ohiko salmenta prozesua luzeagoa da hau baino. Corberako laranja hauek zuhaitzketik etxera zuzenean ekartzen dizkigute. Nolabait esatearren, prozesu naturalagoa, garbiagoa da, eta gustuko dut. Ezagun baten bitarte izan genuen laranja hauen berri, eta

pare bat aldiz eskatu ditut laranjak. Egun batetik bestera ekarren dizkizute: eroosa da, eta prezio aldetik azokan merketxoagoak diren arren, laranja gozoak dira Valentziakoak eta etxeen gehiago irauten dute, ez dira horren erraz pikatzen".

OHIKO BEZEROAK

Tourline Express enpresak banatzaile lanetan dabil David Acosta gazte bergararra. Gero eta laranja gehiago banatzen dituztela esateri digu: "Ohiko bezero dezente daude, laranjen kontu hau ahoz aho zabaltzen ari dela". Bergaran eta Antzuolan ibiltzen da David banaketak egiten eta egunean 225 kilometro inguru egiten ditu.



ETXERAINO Argazkian, David Acosta banatzailea Patxi Larrañagari laranja kaxa entregatzen, martitzenean.

EDU MENDIBIL

Laranja kaxak 15 kilokoak dira eta hainbat laranja mota daude aukeran, sasoiaaren arabera. Patxi Larrañagaren esanetan, "laranjak oso urtsuak dira, laranja-ura egiteko edo osorik

jateko aproposak". Kuriositate modura, ez dago erositakoan ordaindu beharrik. Kexaren bat izatekotan, laranjok bueltatzeko aukera ematen dute Valentziako saltzaileek.

Davidek oraindik ez ditu das-tatu banatzen dituen laranjak: "Lanean komentatu dugu gure-tako kaxa bat eskatu behar dugula. Edozelan ere, egia esateko, ez naiz oso laranja-zalea...".

ahobero

"Onartu daitekeen elkarrizketa bakarra da erratzaren eta zaborrontziaren artekoa"

Enrique Mugica Herzog
> Herriaren Defendatzalea

Senide baten erailketa jasan behar izan duenari uler diezaioketu "ez ahaztu eta ez barkatu" nahi izatea. Uler-gaitzagoa da horrelako samina eta gorrotoa duen pertsona bat ardurako kargu publiko batean mantentzea.

iturri onetik

Airetik ateratako argazkiak erostea azterzen dihardu Bergarako Udala

Oraindik erabakia hartu barik daukan arren, Paisajes Españos-ek airetik ateratzen dituen argazki bilduma horietako bat erostea aztertu du Bergarako Udalak. Eskaintza jaso du: Bergarako 600 argazkiz osatutako bilduma, 18.000 euroren truke (lehengo 3 milioi pezeta); bi euskalherrian, paperean eta digitalizatuta. Bilduma, 1961 urtetik hona arteko argazkiekin osatuta dago.

piperraутса

Mikel Irizar > www.goienna.net/blogak/piperraутса

Alkate berriak?

Urtebete pasatxo udal hauteskundetarako, eta hasi dira mugimenduak. Oñatin, Andoni Gartzia utzi egin du alkatezta eta Lurdes Idoiagak hartu; dena ondo, berak behar luke hurrengo zerrenda buru. Bergaran Victoriano ez da berriro izango alkate-gai, eta izen bat dabil ahoz aho, baina auskalo. Arrasaten, udal erosoa hartu zuen Lakunzak baina egoera bihurritu egin zaio; ikusi egin behar ea errepikatzen duen. Eskoriatzako Juan Carlos ere kolokan egon daiteke, Txabarri diputatuaren purrustada gogoratuta. Eta Elgetako Patxik ezin jakin ea beste susto bat pasatzeko gogorik izango duen.

Ez ahaztu EHk lau alkatezta zituela lehen. Aukera izango dute aurkezteko? Lehengoek errepikatuko lukete?

Aurpegi berri asko, agian. Hasi kinielak egiten.


ai, ene!



Hegazkinari beldur hartzeko modukoa

Thailandiara bidaiatzeko zortea baduzue, ez beldurtu Phuketeko airoportuan. Azken metroak badu garrantzia.

<http://tinyurl.com/7duy4>



Kalitatezko Janari eta Sagardoa !!

Ohitura arte bihurtzen dugu Iparragirre Sagardotegian

Osiñaga auzoa/Hernani 943 55 03 28
Eguaztenetik zapatura gauez zabalik, zapatu eguerditan ere bai